

ERRENTERIA

PAUSUZ
PAUSU

NATURA
ETA
GIZAZTARNA



ERRENTERIAKO
UDALA

AYUNTAMIENTO DE
RENTERIA

ERRENTERIA

PAUSUZ
PAUSU

NATURA
ETA
GIZAZTARNA



ERRENTERIAKO
UDALA

AYUNTAMIENTO DE
RENTERIA

6. - LEZO-RENTERIA. - Vista General



Pasaiako badian Oiartzun ibaiaren bokalea. Argazkiak argi erakusten du Errenteriaren itxura XX. mendearen hasieran, nahiz eta Lezok argazkiaren gertuagoko irudiak hartu. Errenteriako elizaren dorrea eraikita dago jadanik, hortaz, mendearen hasieran hartutako argazkia izango da seguruenik.

AGURRA

Gaur egun, aisialdia aprobeatzeko aukera eta egoera onean dagoen ingurune natural batekiko kontaktua bizi-kalitate gisa ezagutzen dugunaren funtsezko alderdiak dira gero eta gehiago.

Gida honen bitartez, aisialdia ingurune naturalik hurbilenera joanez erabiltzeko eskaintza alternatibo bat ezagutarazi nahi izan dugu Ingurugiro Sailatik. Bertan hainbat datu eta erreferentzia barne hartzen dira, alde batetik gizakiak ingurune naturalean eragin dituen eta eragiten dituen transformazioak interpretatzea eta, bestetik, gure mendi eta haranek biltzen duten aberastasun botaniko, faunistiko, antropologiko eta historikoa hobeto ezagutu eta baloratzea ahalbidetuko dutenak.

Kantauriko kostaldetik Nafarroako Goizuetarekin egiten duen mugaraino, gure eguneroko habitata eratzen duen dentsitate handiko hirigunea baino zerbait gehiago da Errenteria. Argitalpen honek sarritan ahazten dugun errealitate hori hobeto ezagutzeko, gure legatu natural baliotsua errespetatzen eta zaintzen ikasteko eta errenteriar guztion bizi-kalitatea hobetzeko balio izatea espero dut.



Jon Ander Arrieta Berasarte
INGURUGIRO SAILEKO ZINEGOTZIA



Sociedad de Ciencias
ARANZADI
Zientzi Elkartea



Errenteriako Udala
Ayuntamiento de Rentería



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Guipúzcoa

Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente
Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua

Egileak:

Mikelo Elorza
Imanol Goikoetxea

Lankideak:

Jesús Altuna
Iñaki Azkarate
César Fernández
Carlos Galán
Fermín Leizaola
Luis Viera
Fran Zumalabe

Argazkiak (egilea eta orrialdea):

Jesús Altuna:

12 (b), 48 (c)

Errenteriako Udal Artxibategia:

2, 22

Mikelo Elorza:

15 (b), 25 (b), 39 (b), 43 (b), 50, 51 (b), 55 (b),
56 (a), 60 (b), 68 (b), 70, 72 (b), 75 (b)

Imanol Goikoetxea:

Portada, 1, 3, 5, 9, 10, 11, 12 (a), 13, 14, 15 (a),
16, 17, 18, 19, 20, 21, 23, 24, 25 (a), 26, 28, 29,
30, 31, 32, 35, 36, 39 (a), 40, 41, 43 (a) 47,
48 (a - b), 51 (a), 55 (a - c), 56 (b), 59, 60 (a),
62, 63, 64 (b - c), 67, 68 (a), 71, 72 (a - c),
74, 75 (a), 76

Fermín Leizaola:

64 (a)

Josetxo Riofrío:

44 (a - b), 60 (c)

Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde
Informazio Zerbitzua:

29, 33, 37, 41, 45, 49, 53, 57, 61, 65, 69 y 73

Diseinu, irudigintza eta maketazioa:

Testa

Okendo, 5. 20004 - Donostia

Euskarazko testuak:

Bitez. Infante Don Jaime Hiribidea, 14.
20008 -Donostia

Testa. Okendo, 5. 20004 - Donostia

Fotomekanika:

Fotolitos Ernio

Heriz Pasealekua, 10. 20008 - Donostia

Moldizketa:

Litografía Danona, S. Coop.

Ugaldetxo poligonoa z/g. Oiartzun

L.G.: SS-650/94

© Aranzadi Zientzi Elkartea
Ignazio Zuloaga Enparantza
20003 - Donostia

© Errenteriako Udala
Ingurugiro Saila

HITZAURREA

Esan beharra dugu 1994ko Madalen hauetan jaso genezakeen oparirik onenetariko bat Errenteria-ko ingururik ederrenetariko batzuk erakusten dizkigun liburu hau dugula. Obra honen aurrean, hiru arrazoi ditugu pozik egoteko.

Alde batetik, pozzgarria zaigu Udalak honelako ekimena izatea, errenteriarrok eta bisitari gisa etortzen zaizkigun guztiek inguratzen gaituen lurralde zoragarria sakonkiago ezagutzeko aukera izan dezagun apostu eginez.

Bestetik, atsegingarria da ere irakurleak ondoko orrialdeetan aurkituko dituen ibilbideen azterketa eta idazkuntza Aranzadi Elkarteko talde batek burutu izana. Testuak gure udal barrutian zehar ibiltzera eta hau ezagutzera gonbidatzen gaitu baina ez horretara soilik; eskas samarra izango litzateke horretara mugatuko balitz. Gaiak sakonki tratatu dira, estilo simple eta atsegina alde batera utzi gabe, eta honi esker gida hau etxean lasai irakurtzeko modukoa da.

Azkenik, ziur gaude obra honek bere aztarna utziko duela. Berari esker, pasealari eta mendizale geldiezinak, beti bertan egon badira ere ahaztuak edo izkutuan zeuden leku, gauza eta gertakizunak ezagutzeko aukera izango du. Horrela, beren balioa zehazki ikusteaz gain, kritikagoak izaten ikasi eta Errenteria-ko zenbait lekuren -gehiegi zoritxarrez- degradazioa objektibotasun handiagoz ebaluatuko dugu.

Baliteke gida honen zeregina erakustea ez ezik zerbait gehiago izatea eta halaxe espero dugu: obra honek gure lurraldeko zonarrik degradatuenak ahal den neurrian berreskuratzeko eta baliorik handieneko inguruak aurkitu bezala beren horretan uzteko balio izatea nahi genuke.

Gaur egun, Urdaburuko pagadi hostotsuetan edo Añarbeko harizti estetikoetan zehar paseatzea luxua da ia.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu berriz Udalari eta zorionak Aranzadi Elkarteko taldeari bere lanagatik. Halaber, gida hau erabiliko duten guztiei probetxugarri izan dakien eta gure arbasoengandik eta naturarengandik jaso dugun legatua ikusi, estimatu eta zaindu dezaten opa diegu.





Errenteriako hirigune historikoaren bilakaeraren eskema.

XIV. gizaldian, hirigunea beraz goi aldeko zonan kokaturik zegoen. Ziur aski, elizaren oina gaur egun bainan askoz ere txikiagoa izango zen. XVI., padurak lehortu eta zabalgunek berriari ekiten zaio. Aldi berean, eliza berria eraikitzen da, alboetako kale eta etxeak murriztuz edota desagertaraziz. Madalen ermitak, harresiz kanpo, Errege Bidea zuintzen zuen. Honen inguruetan, izen bereko errebala kokatzen zen. XX. gizaldian, padurak guztiz lehortu dira, ibaia ubidetu eta Biteri kalea ireki, aintzinako kale-gartzak hautsiz.

Hurrengo orrialdea

XX. gizaldiaren hasieran marraztutako Errenteriako mugarteko karta. Ondo nabaritzen da kalearen egoera eta baserrien eta herribideen kokapena. Gida honetan, herribide hauek erabili izan dira txango eta ibilaldiak antolatzeko.

PLANO

DEL

TÉRMINO MUNICIPAL DE LA N. Y. L.

VILLA DE RENTERIA

Copiado del levantado en 1896 por el Cuerpo de E. M. del Ejército, delimitado y ampliado con las nuevas construcciones ó edificios y vias de comunicacion existantes en 1903 por el Comandante de dicho cuerpo Don Rafael González Rodríguez.

Escala 1:5000
Equidistancia de las curvas 5 metros





Errenteriako Udal Artxibategian gordetzen den Antonio Got-ek 1906ean marraztutako akuarela. Egileak oso lan polita, xehetasun handiz, egin zuen bertan apunte ugari hartuz. Argazki-koadro hau dugu horren emaitza, mende hasierako Errenteriako egoera zehatzaren erakusle. Ezkerretara industri eraikuntzak ikus ditzazkegu. Horien aldamenean, Oiztun ibaia, eta eskuinera, beste ur-adarra: Errenteriako Kanala deiturikoa, gaur egun N-1 errepidea kokatzen den lekuan, gutxi gorabehera. Bien artean, lehortutako padurak baratza bezala landutak. Atzekaldean, berriz, hirigunea, elizaren dorrearekin hornitua.

(Errenteriako Udal Artxibategiak eskeinia).

SARRERA

Conforme al art.º 7 del Decreto-Ley de 29 de Diciembre de 1868, son de aprovechamiento común las producciones minerales de naturaleza terrosa especificados en el art.º 2 del mismo Decreto-Ley cuando se hallan en terrenos públicos. Usando el derecho que me conceden los artículos citados, pongo en su conocimiento, que en las grutas nombradas de Aizbitarte empiezo la explotación de materiales que me convengan, comprendidos en dicho art.º 2.

Lo pongo en conocimiento a los efectos que convengan.

*Dios gue. a V.S. ms. as.
Caserío Apagala, 11 de Junio de 1892.*

Aldurako hegoaldeko isurialdetik doan pistak eginiko lurrauzketetan aurki ditzazkegun material paleozoikoen itxura berezia.



Errenteriako Alkateari idazki labur hau bidaliz, Modesto del Valle Iznaga Lersundiko Kondeak Aitzbitarte edo Landarbasoko haitzuloen ikerketa arkeologikoei hasiera eman zien. Haitzulo multzo honetan, Euskal Herrian aurkitutako lehen hobi paleolitikoa dago. Hurrengo mendean indusketek aurrera egin zuten eta gaur egun badakigu gizakia duela gutxienez 27.000 urte bizi izan zela haitzulo hauetan. Gure espezieak natura aldatu egin du, oso arinki hasieran baina indar eta baliabide gehiagorekin historiak aurrera egin ahala. Horrela gauzatu da gaur egungo Errenteriako gizaingurugiroa. Ingurugiro-gida honetan agertzen diren ibilbideetan gizakiaren eta ingurune naturalaren -askoz ere historia zaharragoa duen ingurunearen arteko erlazio luze horren emaitzak ikusiko ditugu.

Errenteriaren iragan geologikoa. Bere erliebearen sorrera.

Aro Primarioko Debonikoan gaude, duela 380 milioi urte, gaur egun Gipuzkoa denaren ipar-mendebaldean. Garai hartan zona hau itsasoak estaltzen zuen, itsas bero eta sakontasun txikikoak. Egungo kontinenteak Pangea izeneko superkontinente handi batetik eratorri dira inoiz gelditu ez den haustura eta noragabe motel baten ondorioz. Itsaso horretan, gaur egun Bortzirietako Mendigune izenekoaren arbel metamorfikoak osatzen dituzten jalkinak pilatzen hasi ziren. Aipatutako area hau duela 280 milioi urte, Karboniferoaren amaieran, hasi zen itsasotik azalera-tzen. Euskal Herrian azalera-tutako lehen lurraz sortarazi zituen Orogenia Hertziniarraren eraginez, itsas-hondoak jaso eta tolestatu egin ziren. Ozeano Atlantiarra sortu gabe zegoen oraindik eta Euskal Herria egungo Kanadaren, Britainiako Irlen eta Frantziako Britainia penintsularen ondoan zegoen.

Duela 220 milioi urte hasi zen Sekundarioan edo Mesozoikoan, Primarioko material paleozoikoen higadura handi bat gertatu zen. Klima idorra zen eta euri-jasa handiak izaten ziren. Horrela, material hauek leku batetik beste-

Urdaburuko konglomeratu tipikoak, Pagoxarden. Mendi honen hegaletan ikus daitezke goikaldetik eroritako haitz handiak.




ra eraman eta borobiltzen zituzten ibaiak sortu ziren, duela 200 milioi urteko Triasikoan kostaldean pilatu ziren harribilak ekarriz. Harribil hauek silizezko zementu batez inguratu ziren eta konglomeratuak sortu zituzten. Higadurak erliebea berdin du ahala, ibaiak materialak garraiatzeko ahalmena galdu zuten eta tamaina txikiagoko harribilak pilatu zituzten, ondoren harea eta azkenik buztina.

Triasikoan, eta Jurasikoaren hasieran duela 180 milioi urte, kontinente-masa hondoratu egin zen eta itsasoak gure lurra estali egin zuen berriz ere, egungo ozeano atlantiarra osatzen hasi zelarrik. Klima beroko eta mugimendu tektoniko gutxiko garai honetan kararrizko eta tuparrizko jalkinak pilatu ziren.

Kretazikoan, orain dela 130 milioi urte, itsas-hondoa hegoaldean kokatutako kontinentearen bazter batetik etorritako buztinak eta hondarrak jasotzen hasi zen. Kararriak eta tuparriak pilatu egiten ziren oraindik ere baina bai eta konglomeratuak, hareharriak eta limoak ere. Duela 70 milioi urte, Goi-kretazikoan, jalkin hauek tuparri, kararri eta hareharrizko estratuen alternantzia bat osatu zuten, Flysch izenekoa eratzen duena hain zuzen ere.

Mesozoikoan eskualdea estali zuen itsaso honetan organismo anitz bizi izan ziren: brankiopodoak, hala nola Rhynchonelak eta Terebratulak; moluskuak, hala nola Pectenak, Ammoniteak eta Belemniteak; ekinodermo krinoideoak eta ekinidoak, hala nola Cidariak eta Micrasterak; arrainak, hala nola Lepidoteak eta Selaceoak, etab.

Orain dela 60 milioi urte Tertiarioa edo Zenozoikoa hasi zen, bizidunengan aldaketa handi bat gertatu zelarrik. Mesozoikoko itsas organismoetarik askoren ordez beste batzuk sortu ziren (dinosauru ospetsuak ez ziren iraungitako bakarrak izan). Bi aldi hauen artean, itsas-hondoa kararriak eta tuparrizko kararriak pilatzen hasi ziren, eta aurrerago hareharriak, Flyschari gaineratu zitzaizkionak. Duela 40 milioi urte itsas-hondo honek plaka iberiar eta europarraren kolisio eta soldaketaren ondorioak jasan zituen, orogenia berri bat sortzen hasi zelarrik, orogenia alpetarra hain zuzen ere. Hondo hauek, aipatu ditugun aurreko jalkin guztiekin batera, tolestatu eta puskatu egin ziren eta, itsasoaren gaineratik azaleratzean, Gipuzkoako ipar-mendebaldeko mendiak sortzen hasi ziren.



Kretaziko eta Jurasikoko Euskal Herriko kostaldeko eremuatan material sedimentarioetan bilakatzen diren fosil bereziak (J.A. Torres eta L.I. Viera marraztua).

Itsasoa gaur egungo kostaldea baino urrutiago geratu zen eta jalkin hauek higatzen hasi ziren. Ibaiak azaldu ziren, materialik biguinenen gainean edo ubidea trazatzeko haustura zonak aprobetxatuz haranak sortu zituztenak (Oiartzun ibaia adibidez). Era berean, itsasoak kostaldea higatu eta honek atzera egin zuen. Duela 3 milioi urte inguru, Tertiarioaren amaieran, eta 35 milioi urtetik gorako higaduraren ondoren, egungo erliebea definiturik geratu zen.

Añarbetik kostaldera abiatzen bagara, adierazi ditugun jalkin eta arkaitz guztiak aurkituko ditugu bidean. Lehenik Paleozoikoko materialak aurkituko ditugu Añarbe, Malbazar, Aldura eta Zarian. Igoen eta Urdaburuko goiko zonetan Triasikoko hareharri eta konglomeratuak aurkituko ditugu. Landarbason berriz, Jurasikoko materialak daude azaleratuta Kretazikoko kararriekin batera. Listorretatik Errenteriaraino Kretazikoaren amaierako material biguinoak ikusiko ditugu. Ezkerrean, Txoritokieta eta San Markosen (diapiro baten gainean) Jurasiko eta Kretazikoko material gogorrak daude. Azkenik, San Markosen iparraldeko zonan eta Kaputxinoetan Sekundariotik Tertiariora bitarteko arkaitzak aurkituko ditugu. Orain Tertiarioaren hasierako hareharriz osatutako Jaizkibel mendia kostaldera iritsi arte zeharkatzea besterik ez zaigu geratzen.

Gizakiaren sarrera. Errenteriako lehen biztanleak.

Duela 2 milioi urte inguru Tertiarioa amaitu eta Kuarternarioa hasi zen. Aldi honetan bi gertakizun garrantzitsu izan ziren, hots, glaziazioak eta gizakiaren agerpena. Tertiarioan klima beroa zen -tropikala- Gipuzkoaren ipar-ekialdean baina Kuarternarioak giro hotzagoa ekarri zuen hainbat glaziazioaren ondorioz. Glaziazioaldi bakoitzean izotz-tapaki ikaragarri bat sortu zen gure hemisferioaren iparraldean. Egungo Berlin estali zuen izotz guzti hori itsasoko uraren kaltetan pilatu zen. Duela 20.000 urte, azken glaziazioan, itsas sestra 100 m-tik gora jaitsi zen eta kostaldea egungo kostaldetik hamar bat kilometro urrutiago zegoen.

Azken glaziazioan klima hotza eta lehorra zen oro har baina izan ziren fase beroxeagoak eta hotzagoak ere. Fase hotzetan Gipuzkoako landaretza estepa baten antzekoa zen. Landare belarkarez osatua zegoen, hauei zona baxu eta eguzkitsuagoetako zenbait pinudi gaineratzen zitzaizkielarik.



Aitzbitarteko III. eta IV. haizuloak, Errenteriako lehen biztanleen egoitza eta babes. Hemen aurkitutako aztarna zaharrenek 24.000 urte dute, Perigordiar kulturakoak dira, hain zuzen.

Ziurrenik honelako paisaia izango ote zela urtearen sasoiaren barrena glaziazioaren garaian hotzenetan.



Itsasoaren hurbiltasuna, Aitzbitarteko kobazuloetatik, begibistakoa da. Distantzi txiki honen ondorio bat gizaki prehistorikoen elikadura mota izan zen, alegia, moluskuen bilketa eta kontsumoa. Kobazuloetan egindako indusketetan maiz azaltzen dira muskuiluak eta lapak.



Landaretza honetan, gaur egun Europa iparraldean bizi diren espezie desberdinak lekutu ziren, hala nola oreina, marmota, lagopodoa, erbia eta azeri arktikoa. Gaur egun desagertuta dauden tamaina handiko beste batzuk ere bizi izan ziren, hala nola mamuta, bisontea, errinozero iletua eta leizehartza. Hala ere, klima epeleko espezieak ugariagoak ziren, hala nola basurdea, oreina, sarrioa, Pirinioetako ahuntza, otsoa, azeria, erbia eta hiena, batez ere faserik beroenetan, urritzak, haritzak eta haltzak zeudenean alegia.

Dakigunez, Neanderthal gizakia duela 100.000 urte baino gutxiago lekutu zen Gipuzkoan, azken glaziazioaren

hasieran. Baina 70.000 urte gehiago igaro ziren Erreterian bere ondorengoa, hots, gaur egungo gizakia (*Homo sapiens sapiens*) azaldu zen arte.

Duela 24.000 urte, glaziazioaren fase hotz batean, gizaki talde bat Gipuzkoako ipar-mendebaldean zebilen. Ehiztari hauek haitzulo batzuk ikusi zituzten gaur egun Landarbaso izeneko muino batean. Haitzuloak zabalak eta lehorrak ziren, hego-mendebaldera orientatuak. Azpian erreka bat zuten eta muinoa harrapakinak ikusteko puntu ona zen. Horrela, bertan geratzea erabaki zuten.

Indusketetan aurkitu diren silexezko tresna moten arabera, Aitzbitarte III izeneko haitzulora iritsi zen lehen talde hau Perigordiarre kulturakoa zen. Bere mantenu nagusia bisontea zen oreinarekin batera eta talde honek bisontearen hondakinak aprobetxatzen zituen. Ugaztunak eta hegaztiak ehizatzeaz gain, landarelikagai mota orren bilketan ziharduen, gerakinak kontserbatu ez badira ere.

Talde Perigordiarre hauen ondoren beste batzuk etorri ziren, goiko haitzuluan (Aitzbitarte IV) kokatu zirenak. Solutrense kulturakoak ziren (duela 18.000 urtekoa) eta oreinak, sarriok, bisontek, zaldiak eta Pirinioetako ahuntzak ehizatzen zituzten. 2.000 urte geroago, duela 10.000 urterarte, Aitzbitarte IV Magdalenienseko taldeek okupatu zuten. Hauek beren aurrekoek ehizatu zituzten animalia berberak ehizatzen jarraitu zuten baina tresnak desberdinak ziren, hezurrez egindakoak bereziki. Arpoiak, orratzak eta azagaiak ugariak ziren, kasu askotan ebakidura desberdinekin dekoratzen zituztenak. Orein baten burua grabaturik duen hareharrizko harribil bat ere utzi digute.

Glaziazioaren amaiera eta Aitzbitarte uztea.

Ez dira 10.000 urte Ipar hemisferioko izotz-tapakia urtzen hasi zela eta Holozenoari eman zitzaiola hasiera, gaur egungo aldiari. Temperaturek gora egin zuten, bai eta prezipitazioek ere, azken glaziazio handiaren amaiera heldu zen. Itsas mailak gora egin zuten eta antzinako kostaldea erosi-natu zuen, gaur egun ezagutzen duguna definitu arte. Itsas mailak gora egitean ibai haranak ureztatu ziren estuarioak sortuz, hala nola Pasaiakoa. Honela gauzatu zen gaur egun ezagutzen dugun erliebea.



Aitzbitarte IV kobazuloan aurkitutako magdaleniense kulturako arpoiak.

Itsasoa hurbil zutenez, Magdalenien-
seko garai honetan Aitzbitarten bizi
zirenek moluskuak jaso eta jan ahal
izan zituzten. Batez ere Aziliense kul-
turako euren ondorengoek, hauek
orein eta sarriok ehizatzeaz gain,
muskuiu, lapa eta ostrak bildu ahal
izan zituzten eta.

Aziliense garaian bizi zirenek Aitzbi-
tarteko haitzuloak utzi zituzten, ber-
tan gizakia 20.000 urte inguru izan
ondoren. Klimaren hobekuntza zela
eta, gizakiak ez zeuden ordura arte
babes bakarra izan zuten haitzuloen
menpe eta glaziazioaren ondoren era-
bat aldaturik zegoen ingurunea iker-
tzea irten zien.

Gaurko ingurunearen sorrera. Baso hostoerorkorraren finkapena.

Klimaren hobekuntzaren ondorioz,
glaziar aldiko belar-estepa eta pinu-
diei oso bestelako landaretza mota
bat nagusitu zitzairen, baso hostoeror-
korra. Neguan hostoak galtzen dituen
espezieek osatutako basoa, klima epel
eta hezea duten munduko areen ezau-
garri.

Baso hostoerorkorra ez zen bapatean
agertu, Holozenoaren klima-aldaketa-
ren arabera izan zen. Baso hau
osaten duten espezieak piskanaka-
piskanaka nagusitu ziren eta basoa
aldatuz. Glaziazioaren azken fasean,
urkia pinuarekin batera azaltzen da
basoak osatuz. Baso misto hauek, ipu-
ruekin batera, belardiak hartzen hasi
ziren. Duela 9.000 urte inguru glazia-
zioa amaitu egin zen, lehenengo hari-
tza eta ondoren urritza azalduz, pinu-
diek nagusitasuna galtzen dute.
Duela 8.000 urte inguru zuzarra fin-
katu zen eta 1.000 urte geroago hal-
tza eta lizarra, ondoren ezkia eta
hagina. 3.000 urte geroago azaldu zen
pagoa.

Fauna landaretzan gertatutako alda-
ketei egokitu behar izan zitzaion.
Klima hotzetara egokitutako espe-
zieek Europako iparraldera jo zuten
edo kontinenteko mendietako zona
alpinoetan geratu ziren isolaturik,
hala nola Pirinioetako lagopodo zuria
edota marmota. Zenbait espezie
azken glaziazioaren desagertu ziren,
mamuta, leize-hartza edota errinoze-
ro iletsua adibidez. Beste espezie ba-
tzuek denbora laburrez jasan ahal
izan zuten baldintza berrietarako
aldaketa, uroak adibidez, gaur egungo
abelgorriaren tamaina handiko aurre-
koa zena hain zuzen ere. Klima epele-
tara egokituriko espezieak jabetu
ziren, baso-inguruneetara egokituriko

espezien populazioak ugaltu zirelarik,
orkatzarena, sarriarena eta basurde-
arena adibidez.

Glaziazioan zehar gizakiak ez zuen
aldaketarik eragin naturan. Ehiztaria
eta biltzailea zen, elikatzeo baliaga-
rria gerta zekiokkeen guztia ehizatzen
zuen eta, era berean, fruituak, sus-
traiak, eta abar biltzen zituen, zenbait
tresna egiteko erabiltzen zituen lehen-
gaiekin batera. Oso populazio txikia
zen eta ez zen bizi zeneko inguruneari
maila handiko kalterik egiteko gauza.
Holozenoan gizakiak haitzuloak ez
ezik, ordura arte erabilitako bizi-balia-
bideak ere utzi zituen, ingurunea
arian-arian aldatu zuten beste batzue-
kin ordezkaturik.

*Fase glaziarrek bukatu ala, baso hostoerorkorra eremu zabal
jaun eta jabe egiten da. Pagadia, argazkian eredu bezala
daukazutena, Neolitikoen erdikaldean agertu zen.*





Neolitiko Garaiko kultura hiru ezaugarri nagusiekin definitu izan da: monumentu megalitikoak, nekazaritza eta otzandura, hau gero abeltzantza eta artzantza bihurtuz. Goiko argazkian, Langagorriko iruinarrria; erdikaldean, landazabaleko gaur egungo paisaia (Neolitiko garaian hasitako lanen ondorioa neurri batean); behekaldean, behia eta txahala.



Neolitikoko iraultza: Otzantzea eta nekazaritza.

Glaziazioa amaitzerakoan gizakiak ehizarako laguntzaile handi bat lortu zuen, zakurra. Otxoa otzandu zuen eta antzekoa egiten hasi zen ehizatzen zituen espezieekin. Uroarekin behia lortu zuen, basurdearekin zerria, ekialdeko basahuntz piriniarrekin ahuntza, basardiarekin ardia eta abar. Honela, ehiztaria zen gizakia artzai bihurtu zen. Gutxira zerealen laborantzari ekin zion, biltzailea zen gizakia nekazari bihurtuz.

Otzandura eta nekazaritza giza historiaren iraultzarik handiena izan ziren. Gizakia naturak eskaintzen zizkion elikagaien menpe egoteari utzi eta elikagaiak produzitzen hasi zen. Harrapari izateari utzi eta produzitzaile bihurtu zen, ez zegoen ehizaldi baten zoriaren menpe, otzandutako aberetalde bat zaintzeko eta landare desberdinak laboratzeko trebetasunaren menpe baizik.

Gipuzkoan ez da oso ezaguna gure historiaren fase hau, oso hobi arkeologiko gutxi dago eta. Hala eta guztiz ere, duela 5.000 urte inguru gaur egungo Errenteriako inguruetan bizi ziren artzai taldeak hilobi-monumentuak eraikitzen hasi ziren, trikuharriak.

Eraikuntza megalitiko hauek harriz eta harlauzez daude eginak, tamaina handiko zenbait harlauza jartzen zituzten bertikalki, lurtean sartuta, eta hauen gainean beste bat tapaki gisa jarrita, kamara hau harriz estaltzen zutelarik. Hildakoak kamara honen barruan jartzen zituzten eta hauekin batera armak eta elikagaiak. Kalkolitikoan eta Brontze Aroan, zeramika eta brontzea sartu zen garaian, gutxienez 150 trikuharri eraiki ziren Gipuzkoan. Errenteriako inguruetan hauetako zenbait aurkitu dira, hala nola Aitzetako Zabala, Txoritokieta, eta Igoi eta Akolako hamar trikuharriak.

Burdin Aroan, Gipuzkoan garai hartako zenbait herriska edo kastro eza gutzen dugu, hilobi-eraikuntza mota aldatu zen eta hildakoak errausten hasi ziren. Garai honetan harrespilak -lurrean sartutako harlauzez eginiko zirkulu bat- eraiki zituzten, honen zentroan hildakoaren errautsak jartzen zirelarik. Iruinarririk edo menhirrak ere altza zituzten, lurtean sartutako tamaina handiko harlauzak, hauen esanahia ezezaguna zaigu. Errenterian bi iruinarri ditugu, Txoritokietakoa eta Langagorrikoa.

Ingurune naturala.

Ingurune gizatartu baten sorrera.

Duela 3.000 urte inguru egoera klimatikoa oraingoaren paretsua zen, epela eta hezea, eta zegoeneko bazeuden gaur egun aurki ditzakegun animalia eta landare espezie gehienak. Baso zabalak sortu ziren, alabaina, seguru aski ez zuten lurraldea osorik hartuko, garai hartan bizi zirenek, bizimodu berria zela eta, eragotzi egingo baitzuten.

Otzantzeak eta nekazaritzak erabateko aldaketa eragin zuten historiaurreko gizakiaren bizibidean eta elkarren arteko harremanetan, populazioaren gorakada handia ekarriz. Populazio honek elikagai kantitate handia sortu behar zuen eta negurako bildu, ehizaren bila mugitzeko beharrik gabe bertan geratzeko aukera handiagoak baitaude. Ondorioz, oro har, bizi-kalitatearen hobekuntza gertatu zen, horretarako gizakiak ingurunea transformatu behar izan zuen arren. Gizakiak, batetik, larreak behar zituen abereak elikatzeko eta bestetik, lurzoru emankor eta laboratzeko errazak zerealak erein ahal izateko.

Antzinako basoak desagertzen hasi ziren mozketa eta suteen ondorioz. Jakin badakigu duela 2.500 urte baino gehiago Gipuzkoako iparraldean larre eta zerealetarako garbigune zabalak zeuden. Mendi hegalak larretarako hartu ziren eta haranetako lur emankorrak laborantzarako. Era berean, gizakiak, zereal desberdinez gain, intxaurrea eta gaztainondoa bezalako zuhaitz espezieak sartu zituen.

Gizakia ingurune naturala produkzio-ingurune bihurtzen hasi izan ez balitz, Erreterriak gaur egun oso bestelako paisaia izango zukeen. Oiarzun ibaiaren bokalean, gaur egun Pasaiako portutik hurbil, padura bat izango genukeen. Gaur egun padura hau Iztietan, Zubitxo eta Campsatik Fanderiarainoko beheko zona urbanizatuek hartzen dute. Haranaren hondoko ibaiak haltzez egongo ziratekeen inguratuta eta hariztiak udalerriko gainerakoa hartuko zuketean, 600 metrotik gorako lurra izan ezik, hauek pagoa hobe egokitzen baita.

Orduz geroztik, gaur arte, giza iharduerak hasierako edo balizko landaretza hori aldatu edo desagertarazi egin du, zonanik helgaitzenetan baztertuta geratuz. Faunak gizakiaren garapen honen ondorioak jasan ditu, habitatak suntsitu egin zaizkie, zenbait espezie fisikoki desagertaraziz, erabili ditugulako edota gogaikarri eta arriskutsu iruditu zaizkigulako.



Neolitiko garaian hasi eta gaur eguneraino heldu den iharduera ekonomikoa eta ogibidea dugu artzantza. Oraindik nahiko arrunta izaten da honelako irudiak ikustea: artaldea kaminoz larre batetik bestera.



Gaztainondoaren (Castanea sativa) hostoak. Gaztainondoa basoetan berez sortzen den zuhaitza bezala hartu izan da orokorrean. Esan beharra dago Euskal Herriko bizimodu tradizionalen ohiturazkoa izan dela gaztainondoaren landaketa eta zainketa baserriaren elikadura ziurtatzeko.



Andrearriagako erromatar estela, Oiartzunen, Landetxerako errepidearen alboan. Beraz, kopia bat besterik ez da, egiazkoa Donostiako San Telmo Museoan gordetzen da. Aurkikuntza hau gauzatu eta gero, aditu askok Oiartzunen finkatzen zuten erromatar garaiko Oiasso hiria. Gaur egun ordea, ikerketa arkeologiko berriek argitu dutenez, hiri hau Irunen kokatzen zen.



Pasaia badiaren Oiartzun ibaiaren bokalea. 1863an trenbidearen zubia eraikitzean, untxiak ezinezkoa izan zuten ibaiatik gora nabigatu, eta honekin betirako galdu ziren Errenteriantzat portu eta itsas iharduerak. Erdi galtutak ziren iharduerak, Errenteriako kanalatik aspaldi ezin bait ziren untxiak igaro erabat lokatzua zegoenez.

Oiarso erromatarra.

Orri asko bete da eta iritzi asko adierazi da Oiarsoko hiri erromatarraren ("Oppidum") kokapenaren inguruan. Hiri honetan Aiako Harritik ateratzen zen berun zillarduna untziratzen zuten, hiri honek Urumea eta Bidasoa ibaien arteko eskualdea hartzen zuen arren, autore desberdinek, saio handiak eginez baina froga argirik gabe, hiria Donostian, Pasaian, Errenterian, Oiartzunen edo Hondarribian finkaturik zegoela eman dute aditzera. Hasiera batean Oiartzunen aldeko iritziak nagusitzen ziren, antzekotasun fonetikoan, Arditurriko meatzen kokapenean eta Andrearriagako estela erromatarraren arrazoiturik. Gaur egun ordea, aurkikuntza arkeologikoei argitu dutenez, hiria gaur egungo Irunen kokatzen zen.

Errenterian ez da aurkikuntza erromatarrak gertatu, brontzez eginiko eta 26 zentimetroko altuera duen emakumezko estatua txiki bat izan ezik, gaur egun desagertua, alabaina, estatua txiki honen jatorria ez zen batere argia. Oiartzun ibaiaren haranean bizi ziren baskoiek k.a. I. mendetik k.o. IV. mendera bitartean erromatarren eragina jaso zuten, dena den, gaur egun ditugun datuek ez digute argitzen eragin horrek bertako baskoien bizimoduan aldaketa handirik ekarri ote zuten.

Erdi Aroa: Errenteria, portu eta merkataritza-hiria

Goiz Erdi Aroan hutsune handi bat zabaldu zen. XII. mendean lehen foruak eman ziren arte, urriak dira lekuko idatzi eta arkeologikoak. Erregeek emandako foruak hiri-bizitza sortzea sustatzen zuten, biztanleei gobernu eta justizia tresnak eskaintzen baitzizkien. 1180an Donostiari eta 1203. urtean Hondarribiari Foruak eman ondoren, Oiartzungo haranak 1214ean izan zuen bere forua, Oiarsoko Kontzejua izena hartuz.

Lau auzoz osatuta zegoen Oiarsoko Kontzejuan (Orereta, Elizalde, Altzibar eta Iturriotz) biztanleak antzinako zurezko baserrietan barreiaturik bizi ziren, nagusiki nekazaritza eta abeltzantzan iharduten zuten, haraneko hondoa laboratuz. Itsasoaren eta Pekin eta Oiartzun ibaien artean kokatzen zen Orereta auzoan merkataritza iharduera sortu zen.

Etxebizitzak barreiatuta egoteak ("euren etxeak urrun zeuden elkarrengandik eta familia bakar bat bizi zen hauetan (...) ondorioz ezin zioten elka-

rri lagundu eraso, injustizia edota lapurretaren bat gertatu gero) inguruko jendearen lapurreta erraztu zuen. Hori dela eta, Kontzejuko biztanleek eskatuta Alfonso XI.ak antzinako Orereta auzoan Villanueva de Oiarso hiria sortzeko hiri-gutuna eman zuen 1310. urtean.

Hiri berri horretako biztanleen merkataritza iharduerak Pasaiaiko portuko eskubideei buruzko auzi gogorra eragin zuen. Donostiak porturako sarrera zuen kontrolaturik San Pedroko aldetik. Auzi honek 500 bat urte iraun zuen eta batzuetan odoltzua gertatu zen, bertan Elizalde, Alzibar eta Iturriotzeko auzoek ere hartu zuten parte. Hauek ez zuten Orereta haraneko buru berria izatea onartzen eta Donostiarekin egin zuten ituna Oreretaren aurka.

Villanueva de Oiarsoaren itsas merkataritza burdin ihardueran oinarritzen zen bereziki. Itsasuntziak mineralak beterik heltzen ziren hiriko burdinoletan minerala burdina bihurtzeko. 1328. urtean Alfonso XI.ak Oiarso eta Irungo olagizoniei "Burdinolen Forua" eman zien. Foru honi esker, olagizon hauek gobernuaren lurretan (aman-komunak) zuhaitzak mozteko edota euren irizpideei jarraiki ibaietan presak eraikitzeak askatasun osoa zuten. 1476. urtean Errenteriak zenbait burdinola zituen: Suerrin, Gabiola -gaur egun Oiartzunen- Pontika eta Errenteriola, udal jabetzakoa eta gaur egungo Fanderian kokatzen zena.

Landa-ingurunean, gainontzeko Euskal Herri Atlantiarrean bezalaxe, baserria ezaugarri duen nekazaritza sistema bat osatzen hasi zen. Oholez eginiko txabolak harlanduzko eraikinez ordezkatzen dira, bertakoek batipat sagarrondo eta gariaren laborantzari ekin ziotelarik. Jakin badakigu mahatsa ere laboratzen zela, XIV. mendean Pasaiaiko portuaren inguruan gertatu ziren gatazkak zirela eta, berriek *"kalte, galera, lapurreta eta mahasti, sagasti eta bestelako zuhaitzen mozketa"* gertatu zirela ematen baitute aditzera.

Erdi Aroaren amaieran Errenteriako ingurune naturala oso gizatartuta zegoen. Udalerriko zonarik altuenak zenbait larrek eta, batipat, haritz eta pago basoek hartzen zuten. Baso hauetan hasiak ziren burdin industriara zuzenduriko egur-ikatzak lortzeko zur erauzpenak. Kilo bat burdina lortzeko egur-ikatz bihurturiko 5 kilo egur behar ziren. Bitartean behealdean haltzadi zabalak desagertu ziren laborantzei lekua utziz. Antzinako baserriak baratza txikiak, zerealen



Gaur egun ia ezezaguna zaion Pasaiaiko portuaren gertutasuna izan da Errenteriak beti bizi izan duen merkataritza eta portu-zaletasunaren oinarria. Bai merkantzia guztiak, bai bertako untzioletan egiten ziren untzi eta galeoiak, Oiartzun ibaiatik zear nabigatuz itsasoratzen ziren...



...Oso urruti geratzen ez diren galdutako itsasgiro eta itsasgizonen hauen aztarna politik eskuratu ditugu. Hala nola, Beheko kalearen 9an ikus dezakegun galeoi batez hornitutako armari hau.



Errenteriako Udaletxea. XV. gizaldiaren aurretik ertaroko hiriak zabalgunean irabazitako eremuan kokatzen da XVII. mendeko eraikuntza hau.



Fanderia, aintzinako udal burdinola. 1769. urtean pribatu bihurtu zen, fundizioan transformatuz. Azken karlistadan suntsitu zuten, eta hortik aurrera irinerako errota bezala erabili zen duela 30 bat urte.

laborantza, sagastiak, gaztainadiak, larreak eta abar lantzen hasi ziren. Bestetik Errenteriako Erdi Aroko gunea, bere portuari esker, itsas merkataritzan sendotu egin zen eta populazioak ikaragarritzko gorakada izan zuen, 1494an harresiak zabaltzeko baimena lortu sen horrez gero.

Villanueva de Oiarsoz Elizalde, Altzibar eta Iturriotzeko auzoekin zituen etengabeko auziak ikusirik, Juan II.ak 1453an hiria zatitzea erabaki zuen. Honela Oartzunek 1376. urteaz geroztik lortu nahi zuen udal autonomia lortu zuen. Errege Katolikoek zatiketa berretsi zuten 1491n harana hiru zatitan banatzea erabaki zutenean, hauetako bi Oartzunentzat izango ziren, populazio handiagoa baitzuen, eta beste bat Errenteria-entzat. Dena den, arazoak ez ziren hala bukatu, hasiera batean amankomunatuak ziren larre eta basoen erabilerak joan den mendera arte gatazkak eragin zituen eta.

1491ko zatiketari Villanueva de Oiarsoz Errenteria izena hartu zuen, antzeko izenen ondorioz -Oiarso eta Villanueva de Oiarso- bi udalerrien arteko nahasketak saihesteko. Errenteria zegoeneko erabiltzen zuten izena zen, ofiziala ez baitzen ia erabiltzen. Oorereta izenarekin zenbait urte lehenago gertatu zen bezalaxe. Izen berriaren jatorria itsas merkagaien udal eta errege-tributuen ordaintzetan datza, Errenteria errentak ordaintzeko lekua baitzen.

Aro Modernoa. Portuaren gainbetera, lehen industri asentamenduak eta baserriaren sendotzea.

Aro honetan burdinolen iharduerak bultzada berri bat izan zuen. 1567an Orreagako Errege Monastegiak eta 1585ean Goizuetak Errenteriari euren eskumenean Añarbeko burdinolaren presak kokatzeko lizentzia eman zioten. 1592an zegoeneko lanean ari zen eta urtean 130 tona burdina produzitzera heldu zen, udalerriari dirusarrera handiak ekarri zizkiolarik. Joan den mendean labe garaiak agertzeak burdinola ixtea eragin zuen.

1769. urtean Errenteriolako udal burdinola pribatu bihurtu zen, jabe berriek fundizioan transformatu zuten, hots, Fanderia. Burdina eta kobrea lantzeko teknikagatik oso mirestua izan zen industri gune hau 1873an suntsitu zen karlistadan.

Fanderiako instalazio hidraulikoak duela 30 bat urte arte martxan egon zen irinerako errota bat ezartzeko

erabili ziren. Udalerrian izan zen beste errotarik, hala nola Bengoerrotakoa eta Pekinekoa, XVIII. mendera arte Pontikan izan zen martxan.

Pasaiako portua zela eta, Errenterriak izan zituen auzitan, Enrique III.ak Nafarroarekiko merkataritzarako faborea eman zion. Donostiak ez zuen fabore hori onartzerik eta berau bertan behera uztea lortu zuen. Hala eta guztiz ere, udalerrria ez zen artile nafarrarekin merkataritza harremanak galtzera etsi eta 1540. urtean Goizuetatik Errenterriara, Añarben zehar, bide bat zabaltzea proiektatu zuen. Saio hau ere hutsean geratu zen, 1540. urtean Donostiak, Hondarribiak, Tolosak eta Oiartzunek, noski, Batzar Probintzialak proiektua ezestea lortu zuten. Portuaren kontrola ia erabat galdurik, merkataritzak eta itsas iharduerak gainbehera egin zuten piskanaka.

1497. urtean gaur Foruen Plazak hartzen duen lurretan lonja bat eraiki zen. Eraikuntza hau biltegi eta bertan zegoen portura iritsitako generoaren salmentarako erabili zen. Lonja hau dela eta, arazo berriak sortu ziren Oiartzungo herriarekin, Oiartzunek Pasaiako portuan, Donostiako lurretan, bere lonja baitzuen.

XVI. mendean hiru burdinola eraikitzeko proiektuak Probintziako Korregidorearen ikerketa behar izan zuen. Ikerketa honek burdinolen zur beharrianek untxigintza arriskuan jar zezaketen argitzeko xedea zuen. Izatez, koroarentzat interes handia zuen iharduera zen untxigintza.

Errenterriak Ugarritze, Pontika, Madalena, Basanoaga edo Molinao eta Errebalen izan zituen untxiolak. XVI eta XVII. mendeetan Amasa familiakoak euren garaiko untxigile onenak zirela esaten zen. Errenterriko untxioletan Errege Armadarentzako untxi asko egin zen. Koroak untxigile hauetako ospetsuenari, Juan de Amasari hain zuten, 74.125 zilarrezko erreal zor zizkion. Ordaindu, ordaindu zituen, alabaina, Juan de Amasa hil eta 15 urte igaro zirenean.

XVII. mendean lehenengo erdira arte 800 tonako galeoiak egin ziren. Orduz geroztik, tona gutxiagoko untxiak besterik ezin izan ziren egin, Errenterriko itsasadarra lokazten eta lehortzen hasi zen eta. 1658an Errebaleko untxiolek euren iharduera bertan behera utzi behar izan zuten arrazoi hau zela medio. Errenterriak Donostiari leporatu zion honen guztiaren erantzukizuna, honek Pasaiako portuaren zaintzan axolagabetasun handia agertzen baitzuen. Izan ere,



Elizaren dorrea eta Goiko kaleko hasiera, aintzinako Goizuetako Errege Bidea. Bide hau derrigorrezkoa zuten errenterriarekin artile nafarrarekin merkataritza garatzeko. Bide honen hobekuntzarako 1540. urtean aurkeztutako proiektuak inguruko merkatal herri eta hirien aurkaritza jaso zuen berehala.



Oiartzun ibaia, gaur egun ubideratua, itsas behean beti izan da erreka txiki bat besterik ez. Hala ere, itsas goran, bai erreka bai Errenterriko kanala edo itsasadarra urez betetzen ziren 800 tonako itsasuntziak igaro zirelarik eta, noski, Erdi Aroko hirigunea ia isladatzen zuten padurek urez betetzen ziren.

Moztu berria den haritza, Txoritokietako ekialdeko hegalean. Horrelako 350 zuhaitz inguru behar ziren galeoi bakar bat egiteko.



Ekainean belarretan: lan gogorreneteko eta hilabete lanpetuenetenakoa. Baserria, landa-lurraren ustiaketa eta populaketa mota bezala, Erdi Aroaren bukaeran agertzen da eta Aro Modernoan guztiz finkatzen da Euskal Herriko kantabriar isurialdean.

Artoa. Ameriketarik ekarritako landare, arto txikia eta geroxeago garia desagertaraztearen erruduna izan da, hauek bainan hiru aldiz gehiagoko uzta ematen bait zuen. Hedapen handiena XVIII. gizaldian lortu zuen.



honek guztiak behin betirako itxi zituen Erreterriak zituen itsasorako aukera guztiak.

Mende bat beranduago itsasbeherak zirenean itsasoa Pasaiako portuan San Pedro eta Donibaneraino baizik ez zen sartzen. 1805. urteko errege agindu batek Erreterriako portuan zehar merkataritza askatasuna ezarri zuen. Hain desiragarri zen ahalmen hori, hots, askatasun osoz merkataritza iharduerak burutzeko behin-betikoa ahalmena, portuaren egoerak berau praktikan jartzea eragozten zuenean heldu zen. Udalerriko "Libro de Mercantes" delakoaren azken anotazioa 1832. urtekoa da, 1844. urtean Erreterrian bi unti besterik ez zen geratzen.

Erreterriak garai honetan baso-abe-rastasan handia izan zuen. Udalerriko antzinako udal lurreak, bertako azaleraren zati handi bat hartzen zuten, batez ere egur-ikatza egitera eta untzioletarako zur produkziara zuzentzen ziren. 1593. urtean 29 galeoi egiteko zura eskatu zen eta eskaera asetu ahal izan zen. Alabaina, eskaera hau asetzeko behar izan zen zur kopuru izugarriaz jabetzeko, gogoan izan behar dugu 1606. urtean hiru galeoi egiteko beharrezko zura lortzeko mila haritz moztu behar izan zituztela.

Ondare hau Erdi Aroan koroak emandako legeria zorrotz bati esker gorde ahal izan zen. Eta, bereziki, zur-ateratzea arautzeko xedez, Erreterriako baso-ondarea hamabi zatitan banatu zuen probintzi eta udal arautegiari esker. Gogoan izan dezagun harizti batek landatu eta 100 urte igarotakotan sortzen duela kalitateko zura.

Udalerriko gainerakoan baserriaren nekazaritza-sistema familiarra behin-betiko sendotzen da Aro Modernoan. XVI. mendearen lehenengo erdian, eta mende horretan bizi izan zen segurtasun eta oparotasuna medio, harriz eta zurez eginiko bi oinetako baserriak eraiki ziren. Azpiko oina biztanle eta abereentzako zen eta goikoa uzta gordetzeko, batez ere garia, artatxikia eta sagarra. Gainera, baserri hauetako askok sagardoa egiteko tolaera ere bazuten.

Mende honen amaieran gariak baino hiru aldiz ale kopuru handiagoa ematen zuen landare amerikar bat heldu zen gure lurretara, artoa. Jabe askok XVII eta XVIII. mendeetan produkzio berri honetan irabazi-aukerak ikusi zituzten eta alogeran jartzen zituzten baserri berriak altxa zituzten. Baserri berri hauek baso eta larreek hartzen zituzten aldapa handiko lurretan

kokatu ziren. Larreak gutxitzeak beste produktu baten laborantza ekarri zuen, arbia, behi eta idiak elikatzekoa.

XVIII. mendearen erdialdean jabeak, euren irabaziak handitzeko xedez, zenbait baserri banatzen hasi ziren, bi edo hiru familiari alokatuz. Produktuak zen garia errenta ordaintzera zuzentzen zen osorik, izatez errenta zereal horren anegatan ordaintzen zen. Nekazariek gaztainarekin batera euren oinarritzko elikagaiak ziren taloetarako eta artogirako artoa produzitzea besterik ez zuten.

Nekazaritza produkzio handi bateko urte batzuen ondoren, lurra ahuldu egin ziren, laboreak maizago txandakatzen ziren eta karobiak eraiki ziren. Produktutako karea azaroko hilabete hotzean garia ereiterakoan "lurra berotzeko" eta berau ernatzea errazteko erabiltzen zen, bai eta ongarrri gisa ere. Baina, oro har, honen gehiegizko erabilerak gehiago ahuldu zuen lurra eta zenbait lursail "erre zituen". Lurraren emankortasunaren galeraren ondoriozko ahulezi egoera honetan baserriak ez ditu behar hainbat soberakin sortzen eta nahikoa du aurrera egitea lortzen badu.

Aro Modernoan baserriaren hedapenak Errenterian laborantzara zuzendutako lur azalera handitu zuen, baso eta larreen kaltearako. Laborantzara zuzendutako lurren paisaia aniztu egin zen, espezie berriak sartu baitziren. Bestetik harizti eta pagadiak ustiapen handia izan zuten eta baso-ustiapenerako sistema bihurtu ziren. Erdi Aroan inolako ordenarik gabe zura ateratzeko baso naturalak zirenak, orain basoen laboratuak dira. Gero eta ugariagoak dira mintegiak, tartebaketak, azken mozketaren ondorengo birlandaketak, sail landatu berrietara abereak ez sartzeko langak, egur-ikatzera eta eraikuntzara zuzendutako zurak bereiztea eta abar.

XIX eta XX. mendeak. Industrializazioa, egungo ingurunea.

Itsas-ihardueraren gainbehera ikusirik, udalerrriaren ahaleginak iharduera berri baterantz zuzentzen ziren, industriadantz. Espainia eta Frantziaren arteko mugei buruzko 1846ko hitzarmenak eragotzi egiten zuen mugarekiko distantzia jakin batean industria garatzerik. Errenteria zen debeku zonan barne hartzen ez zen lehenengo herria. Burdinolek euren instalazioei eutsi zieten edota modernizatu egin ziren, hala nola Fanderia-



Baserriaren ustiapenaren sisteman beharrezkoa izan da beti, neguan aziendaren elikadurarako eta ohea prestatzeko, belarra eta garoaren pilaketa metetan. Hain ugariak diren metak gure landa paisaiaren elementu bat gehiago bezala ikusten ditugu. Azken urteotan, metatzeko sistema berri bat azaldu da, hots, plastiko beltza edo zurizko tramankulu borobil handietan. ¿Desagertuko ote dira metak hemendik urte gutxietara?.



Baserriaren mekanizazioa oso zaila, ia ezinezkoa, da bertako aldapa gogorak, minifundismoa eta partzelen neurri txikiak kontuan hartuz. Soluzioa erraza dugu: eskuz eta egun osoan lan egin.



Sagarrondoak. Aspaldidanik izan dugu gure artean, baina azken urteotan ugaritzen doa. Sagarrondoak gehienetan etxetik gertu dauden soro eta belazietan kokatzen dira.

koa. Era berean, industri berriak zabaltzen hasi ziren udalerrian.

1860. urtean Errenterriak lihozko ehunak egiten zituzten zenbait fabrika zituen. 1818. urtean Pekin izeneko bat zuen eta 1855 beste bat kokatu zen Zumardian. Gaur egun ordea, 1845ean zabaldu zen eta ohe-arropa produzitzen zuen Fabril Lineraren arrastoak besterik ez zaizkigu gertzen. Antzeko izena duen Fabril Lanera industriak berriz 1890. urtean zabaldu zen Pekineko errota zaharrenean, 1976. urtean berriz ateak itxi behar izan zituen. Artilea gordinik jaso eta bertako produkturik nagusia, "Baionako txalekoa", produzitu artean bertan gertatzen zen eskulantze prozesu osoa.

Oso bestelako ezaugarriak zituen I. karlistadan suntsitutako kaputxinoen komentu zaharrenean lurretan 1853. urtean sortu zen Real Compañía Asturiana de Minas. Aiako Harriko Arditurri meatzeetako beruna eta zilarra urtzen zuen. Gerxeago zinka lantzen hasi zen eta xafladura-pabiloi bat eraiki zuen. 1866an "La Ibérica" edo Olibeteko gaileta fabrika sortu zen. 1889. urtean oraindik ere lanean diharduen Papelera Vasco-Belga enpresa sortu zen. 1902. urteaz geroztik beste 11 paper fabrikarekin batera

Papelera Españolan bildu zen. 1912. urtean egin zuen hormigoizko eraikina oso mirestua izan zen garai haieran.

Gure mendean beste industri batzuek eman zioten hasiera euren iharduera-ri. 1901ean Manufacturas de Yute fabrika zabaldu zen, jutea txirikordatzen eta alpargatak egiten iharduten zuen. Fabrika honen eraikin bat geratzen da Niessenen ondoan. 1929. urtean sortu zen Niessen enpresak, material elektroteknikoa eta bakelitzako objektuak egitera zuzendua, 1.000 langile baino gehiago izan zituen. Beste enpresa interesgarri bat Fabrica de Harinas Vda. de Londaiz izan zen, 1903. urtean sortua. Garia eta artoa ehotzeko urak mugitzen zituen bi errotarri zituen.

Hauetako industriarik gehienak Errenterriako Alde Zaharrenean inguruko lurretan instalatu ziren arren, udalerrriak, mende honen erdialdetik aurrera, batipat, ezagutu duen hiri-zabalkuntzaren ondorioz, enpresa asko gaur egungo hiri-bilbean barne hartuta geratu dira.

Hiri-garapen hau joan den mendearen erdialdean hasi zen. 1848an Oiartzun ibaiaren eskuinaldean, Kaputxinoak eta Lezo artean, kokatzen ziren padura eta hondartza zonak lehortu ziren,



Mende hasierako lana motaren aierupena dakarren argazki ederra, Olibet lantegian. Hain famatuak izan ziren etxe honetako gailetek errenteriarrei ekarri zien "Galleteroak" izengoitia.

hasiera batean laborantzara zuzenduz. 1868 eta 1887 artean egungo Biteri kalearen eta Oiartzun ibaiaren artean kokatzen zen Zubitzoko padura "saneatu zen". Errenteriako antzinako portuaren lekuko bakarra zen ubidea desagertu zen eta honek Lezorako errepidea zabaltzea ahalbidetu zuen. Lur hauek ondoren saldu izanak Iztietauko auzoaren sorrera ekarri zuen, honi Alaberga, Galtzaraborda, Beraun eta abarrek jarraitu zioten.

Azpiegiturek, halaber, garapen handia izan zuten garai honetan. 1828rako eraiki zuten Astigarragako Bentarako errepidea, Oiartzun eta Astigarraga arteko Errege Bidearekin lotuz. Andoain eta Landetxe arteko errepide nagusi berriak, egungo N-1, Erdi Aroko gunea zeharkatu zuen Karretera-Kalea sortuz, gaurko Biteri kalea, eta 1915. urtean saihesbide berri bat egiten da. 1858an Madril-Irun trenbidearen eraikuntzarako lanei eman zitzaien hasiera; 1912an inauguratu zen "Topoa".

Industri garapenak hasiera batetik ingurugiro arazoak eragin zituen. Honela 1893. urtean Osasun Batzordeak eta Udalak Papelera Vasco-Belgari, Fabril Lanerari eta "La Margarita" distilategiari "zuen industrietatik datozen sustantzia kaltegarriekin Oiartzun ibaiko ura kutsa ez dezazuen" ohartarazi zieten. 1904ean Udalak arestian aipaturiko alkohol fabrika bera salatu zuen "ibaira isurtzen diren hondakin osasungaitzak direla eta".

Hedatzen ari zen hiriguneaz kanpo, landa-inguruneak desamortizazio prozesuak jasan zituen. Konbentzio-gerra (1794), Independentzi gerra (1808-13) eta I. Karlistadak udalerrietako kutxak oso zorpetuta utzi zituzten. Finantzazio beharrak udalerrri asko euren udal ondasunak partikularrei saltzera behartu zituen. Saldu ziren ondasun hauek mendi zuhaitzuenak ziren nagusiki eta nekazaritza ustiapen berri bihurtu zituzten, baserri berri. Joan den mendeko desamortizazioari buruzko legeek iharduera hau bultzatu zuten. Errenteriako 1810 eta 1915 artean, udal ondasunak saldu zituen arren, ez zuen "Añarbe Mendia" saldu, Erabilera Publikoko Mendia izendatu baitzuen. Salbuespen honi esker, kostaldeko gainerako herriek euren zuhaitziak galdu zituzten bitartean, Errenteriako du probintziako pagadi-harizti azalerarik handiena.

Udalerrriak beraz, udal ondasun asko galdu zituen, hauetako batzuk hala-beharrez, hala nola berreskuratu berriak diren San Markos eta Txorito-



Errenteriako erdi gunea. Ezkerretara, N-1 errepidearen 1915. urtean Biteri kaleko trafikoa leuntzeko irekitako saihesbidea. Eskubitarra, padura eta kai zaharra lehortu eta gero egindako zabalgunea. Atzekaldean, granitozko mendi ospetsua den Aiako Harria, Errenteria eta Oiartzun bat izan zela gogoratuz bezala.

XIX. mendeko zabalgunean industria berriak gehienak instalatu ziren. Urteak igaro hala, eta frankismoaren garaian batez ere, hiri-bilbe berriak barne hartuta geratzen dira. Irudian, Bisseuil y Huet lantegia, eredu bezala hartu duguna. Oso hurbil kokatzen dira beste industri eraikuntzak: Niessen, Esmaltería, etabar.





Tobar baserria. Euskal Herriko kantabriar isurialdeko landa etxearen arketipoa dugu.



Baserriaren lan tradizionalari loturik dagoen landazabalaren paisaia aurkitu dezakegu Erreterian kalezuloetik oso hurbil.



Galtzaraborda Hiribidea bukatzen denean, aintzinako Errege Bidearen aztarnak ikus ditzazkegu porlanezko bide hontan.

kietako gotorlekuak, 1888 eta 1892. urteetan eraikiak hurrenez hurren. Desamortizazioak azalera handia hartu zuen ondoko datua kontuan hartzen badugu, Erreteriak ehunen bat baserri izan ditu, hauetako 40 XVIII. mendearen eta 1840. urtearen artean desamortizazioaren ondorioz sortu ziren.

Baserriaren kolonizazio berriak hasiera batean emaitza onak izan zituen, honi babarrunaren eta patataren laborantza berria gaineratu behar zaiolarik. Hala ere, egoera hau berriro ere gainbeheran sartu zen eta zekala eta oloaren laborantza bertan behera utzi zen. XIX. mendearen amaieran baserria produkzio sistema autarkiko bihurtu zen, beharrezkoa gertatzen zen guztia produzitzen saiatzen zen, ingurunearen transformazioaren mailarik gorenena lortuz, landazabalaren hedapena. Baserriaren sistemak paisaia transformatu zuen, landazabaleko paisaia sortuz.

Landazabalean barazkiak eta ortuak lantzeko baratzak; gariaren laborantza, mende honen hasieran baztertua; abereak elikatzeko soroak; sagastiak sagardoa produzitzeko; abereen ohetarako eta ondoren ongarrirako iralekuak; egurretarako basoak; eta abar topa ditzakegu. Produktu desberdin hauetara zuzenduriko espazio guzti hauen menpe zeuden gizakia eta honen abereak. Izatez, gizakiak abere hauek lanerako, haragitarako, esnetarako, artiletarako eta arrautzetarako erabiltzen zituen, produktu hauetakoren bat saltzeak dirusarrera osatzea ahalbidetzen zuelarik.

Erreterriako oso baserri gutxi gordetzen dituzte XIX. mende aurreko elementu arkitektonikoak. 1873an, II. Karlistadan, 41 baserri erre zituzten. Bi mende lehenago, 1638an, tropa frantziarrek udalerria suntsitu zuten, 11 etxe baizik ez zituzten zutik utzi. Gogoan izan behar dugu hain egoera penagarrikeri geratu zela guztia, Basanoagan -Molinaon- Erreterria berri bat eraikitzea pentsatu zuten.

Joan den mendearen amaieran Erreterriak zuen ingurugiro egoerak antza handia zuen gaur egungo egoerarekin. Gaur egungo paisaia zegoeneko hiru osagai nagusiz zegoen definiturik; hedatzen ari zen industri populazioa, baserria eta honen landazabaleko paisaia eta nolabaiteko garrantzia duen baso aberatsaren iraupena.

Gizakiak desiratzen ez zuen fauna ia erabat deusezturik zegoen. 1814an Oiartzunek inguruko udalerriak "astean egun bat otsoaren ehizan erabiltzera" gonbidatu zituen, ordureroz geroztik ez da animalia honen berririk

izan. Garai honetan sortu zen pizti-hiltzailea. Honela, Errenterian eta Altzan 1891. urtean hauetako bat kontratatu zuten, Zaldibiatarra, San Markosen piztiak ehiza zitzen. Honek zenbait azeri, 5 ar eta 7 eme hain zuzen, hil zituen estrikninaz.

Desamortizazioari basoen egoeran zerikusi handia izan duen beste gertakari bat gaineratu behar zaio. Izan ere, gaztainondoaren tinta, txankroa eta hariztiaren oidioa bezalako gaisotasunek erabateko eragina izan zuten probintziako basoen bilakaeran. Mende honen hasieran desamortizazioak eta gaisotasun hauek Bizkaia eta Gipuzkoako garai bateko baso aberatsak guztiz murriztu zituzten. Basoa birlandaketaren behar zeneko ideia bultzatu zen eta intsinis pinuaren hedapena gertatu zen.

Adan de Yarzak ekarri zuen joan den mendearen erdialdean Lekeitiora espezie hau, eta mende batean Euskal Herri osoan zabaldu zen. Izan ere, haritza eta pagoa baino askoz ere errentagarriagoa gertatzen da ekonomiarik dagokionez. Haritzek eta pagoek 100 urte baino gehiago izan behar dituzte mozteko, radiata edo intsinis pinuek ordea, 15 eta 30 urte besterik ez dituzte behar. Mende honen erdialdetik aurrera, kalitatezko zuraren eskaria murriztu egiten da, konglomeratua bezalako material berrien eskaria igoz. Honez gain, papergintzaren sektore indartsuak, pinuaren sustatzaile nagusia, zuntz luzeko lehengai merkea behar zuen.


Ondorioz, gaur egun Euskal Herri kantauriarreko eta, bereziki, Errenteriko paisaia presentzia nagusia du. Izatez gure paisaia ez zaigu ezaguna egingo intsinis pinuaren berdeune ilun horiek azaltzen ez badira. Errenteriko Udal lurretan antzinako harizti eta pagadiak zati batean intsinis pinuarekin eta bestelako espezie exotikoekin ordezkatu ziren. Gaur egun lur hauetako zenbait pinudi moztu ondoren, jatorrizko zuhaitz espeziekin birlandatzen ari da.

Hiri-garapenak ere itxuratu du Errenteriko gaur egungo ingurunea. Industri garapenarekin hiri-zonek garrantzi handia hartu zuten, giza populazio handia izateaz gain, lurraldearen gainerako zonei nagusitzen baitzaie. Lehengai eta elikagai asko kontsumitzeak landa-zonei euren produktioa handitu beharra ekarri zien. Elikagai eskari honek eraginda landa-zonetako antzinako produktio sistemak transformatu egin behar izan zituzten, etekin handiagoak lortzeko xedez. Izatez, produktio sistema hauen jabe izaten hasi ziren.



Errenterian jasan duen harrigarritzko garapen urbanoa azkarregia izan da. Horregatik, hiri-bilbearen inguruan sortzen den espazio periurbanoa ez da garatu bere kasuan, eta honelako irudiak agertzen zaizkigu: haziendak eta kale-etxeak.

Alertzea landatu zen barra-barra 50. hamarkadaren bukaerako izozteek intsinis pinuei kalte handiak egin eta gero. Hasieran ondo eta azkar hazten dira, baina heldutzekean enborra ez da asko loditzen. Ezaugarri hauekin, alertzearen etorkizuna desagertzea izango da ziurrenik.





Gure mendietan gehiegi ugaritzen den intsinis pinuaren partzela bat bere kolore bereziarekin.



Baserri askotan nabaritzen da joera berri bat: bertako hiriek nahi dituzten produktuak eskeintzea eta horietan espezializatzea.



Errenterian lehen ahalik eta produktu gehien produzitzen saiatzen ziren baserriek produkzio bakunago batera jo zuten. Esnetarako baserria, haragitarako baserria, negutegiak dituen baserria eta abar aurkitzen ditugu. Gauza gutxiago produzitzen dira baina kopuru handiagoan. Produktzioaren gorakada hau gertatzeko baserriaz kanpoko laguntza guztiak dira beharrezkoak. Lehen baserri batek nahikoa zuen eguzkiaren energiarekin, egurrarekin, abereen laguntzarekin eta lan handia egitearekin. Gaur egun berriz, gasoila, elektrizitatea, motoaitzurra, motozerra, produktuak saltzeko garraioa eta produkzioa handitzeko ongari kimikoak, herbizidak eta pestizidak behar ditu. Honela, paisaia aldatu egin zen: pinudiak bere pista, matarrasa eta suteekin azaldu ziren, larreak zabaldu egin ziren, ikuilu berriekin eta ongari kimikoekin iralekuek ez dute horrenbesteko garrantzirik, fauna basatiaren babesleku bakarrak ziren palaxu eta zuhaitziak desagertarazi zituzten finak handitzeko, eta abar.

Honela sortu da gaur egun Errenterriak duen ingurune gizatartua. Gizakiak, bere bizimodua hobetzekotan, glaziazioaren ondoren aurkitu zuen ingurunea aldatzen ihardun du. Alabaina, epe laburrean diru eta material helburuak asetzean oinarritzen delako gaur egun zalantzan jartzen dugun bizimoduaren hobekuntza honek guztiok ezagutzen ditugun ingurune arazo anitzak sortu ditu. Irizpide hauen pean oso paisaia gizatartu anitza sortu da. Udalerrian Euskal Herri atlantiarreko gaur egungo ia ingurune guztiak topa ditzakegu, kaleko ingurune erabat gizatartua, landazabaleko ohizko ingurunea eta Añarbeiko baso naturalak barne. Guztiek dituzte interes handiko natur eta kultur elementuak.

Gizakiak inguruneari galdatu dizkion produktuek (bizilekua, ehiza, eretikoa lurren, lehengaiak eta abar) eragin dute aniztasun hau. Gaur ordea produktu berri bat eskatzen zaio; beronen gozamina, ingurugiroa gure bizikaltatearen osagai nagusienetakotzat hartuta. Gure ondorengo belaunaldiak ezin diegu artatu diren natur eta kultur balioak uka eta hauek artatzen eta zaintzen jarraitu behar dugu. Alabaina, balio hauek artatzeko eman beharreko lehen urratsa hauek ezagutzea da. Hori da gida txiki honen xedea: ondo pasa...

Errenterriako ingurunea ezagutzen eta gozaten.

IBILALDIEN ZERRENDA LABURRA

Zk.	Alderdia	luzera (km)	desnibela (m)	zailtasuna	iraupena	abiapuntua	aukerak	loturak (ibil. zkia.)	natur- interesa	giza- interesa
1	Hirigunea	2,2	25	1	Aldakorra	Hirigunea	ez	ez	•	•••••
2	San Markos	9,2	290	2	2ordu 15'	Hirigunea	bai	3	•••	••••
3	Txoritokieta	4,6	220	2	ord.1. 15'	Zamalbide	bai	2	••••	••••
4	Landazabala	7,2	390	3	2ordu	Txikierdi	ez	7	••••	••••
5	Igoin	5,2	310	5 (3)	2ordu	Listorreta	bai	6tik 10era	•••	••
6	Landarbaso	4,5	190	3	ord.1. 15'	Listorreta	bai	5,7,8,9,10	••	••••
7	Aldura	6,2	300	3	2ordu	Listorreta	bai	4tik 11ra	••••	••••
8	Añarbe Ek.	9,4	400	3	2ordu 45'	Listorreta	bai	7,9	•••••	••
9	Añarbe Mend.	12,6	325	4	3ordu 30'	Listorreta	bai	7,8,10	•••••	••
10	Urdaburu	7,8	425	4 (3)	2ordu 30'	Listorreta	bai	5tik 9ra	•••••	••
11	Zaria	6,8	370	3	ord.1 45'	Sorondo	ez	7	•••••	••
12	Bizikletaz	17,1	-	3	Aldakorra	Hirigunea	ez	ez	••••	•••••

AHOLKU ETA GOMENDIOAK

Ez da inoiz ahaztu behar egiten dugun edozein txangotan, bazter atsegin eta baketsuetan zehar ibilita ere, arriskuak izan daitezkeela. Ez da gauza bera hiribide batean paseatzea eta mendian ibiltzea. Gida honen erabiltzaileari zenbait gomendio azalduko dizkiogu, bi gomendio nagusitan laburtuak hain zuzen ere:

Segurtasuna...

- Arropak egingo dugun txango motaren arabera izan beharko zaio. Ez da gauza bera Erreenteriako herrigunetik paseatzea eta Úrdaburura igotzea. Oinetakoak oso garrantzitsuak direla azpimarratu behar dugu: komenigarria da beti mendiko bota arinak erabiltzea, zola onekoak eta altuak. Gainerako arropari dagokionez, urtaro bakoitzari dagokiona eraman beharko da. Hortaz, ez ahaztu burukoa eta eguzkitarako betaurrekoak udan. Eta, edozein urtarotan, ez da soberakoa motxilan anoraka eramatea, batez ere ibilbide luze samarra egin behar badugu.

- Ahal bada ez joan mendira bakarrik, jende gutxi ibiltzen den Añarbeko ibilbideetarantz joaten bagara bereziki. Hala ere bakarrik joaten bagara, komenigarria da zein lekutara joango garen jakinaraztea, edozein ezusteko gertatuz gero berehala aurki gaitzaten.

- Ohitura ona da janari piska bat, kantiplora bat ur, arropa, tiritak, etab. garraiatzeko motxila txiki bat eramatea.

- Irten aurretik eguraldiaren iragarpena kontsultatu behar da. Egin beharreko ibilbidea arretaz aztertzea ere gomendatzen dugu. Horrela punturik interesgarrienak, biderik nahasienetako zonak, desnibelik handienak,... non dauden jakingo dugu alde aurretik.

- Azkenik, kontu izan behar da erreka txikiekin, inguruetan abere gehiegi egoteagatik kutsatuta egon baitaitezke (udan batez ere). Horregatik, kontuz ibili ura edozein lekutan edaterakoan edo hartzerakoan.

eta errespetua:

- Mendian ez da inolako zabor motarik bota behar, bertan geratuko baita betirako. Hondakinatarako plastikozko poltsa bat eraman behar da, eta ondoren hondakinak haranera edo horretarako jarritako edukiontzietara jaitsi.

- Ez ebaki lore, zuhaiska edo zuhaitzik.

- Sua horretarako prestatutako leketan besterik ezin da egin (sutondoa duten txaboletan edo atsedenezko sutondoetan hain zuzen). Udan eta udazkenean sute arriskua handiagoa da eta oso arriskutsua da haize handiko egun batean sua piztea. Zigarrokinekin ere kontu izan behar da.

- Bidean gaudela, begirunez jokatu behar dugu gureak ez diren gauzekin. Horrela, abereak bakean utzi eta langetako ateak itxi egin beharko dira (abereek ihes egiten dute eta neketsua izan daiteke berriz aurkitzea). Era berean, sagastiak edo baratzak ezin dira nolanhari tratatu, ez eta belarra moztu gabea duten belardiak zapaldu ere, norbaiten bizimodua baitira.

- Jende askok zakurra eramaten du paseatzera. Egia esan, atsegina da abere hauek mendira irteten direnean zein alai ibiltzen diren ikustea. Baina honek ez du esan nahi zakurra kontrolatu behar ez dugunik, ganadua -ardiak batez ere- uxatzen baitute, galera konponezinak eragin ditzaketelarik.





LUZERA: 2.2 km.

IRAUPENA: Aldakorra

ZAILTASUNA: Bat ere ez

KONTUAN IZATEKOAK

Ez ibili jende asko dabilen egunetan. Bisita hau egiteko egunik aproposena igandea da, goizean goiz ez da ez kotxerik, ez eta jende askorik ere. Gainera eliza irekita egon ohi da.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



Errenteriako armaria

Erretereriako Erdi Aroko Gunea.

Antzinako Oreretaren gainean sortu zen 1320. urtean Villanueva de Oiarso hiri harresiduna. Harresi hauek bi metroko zabalera izan zuten eta dorre eta almenak zituzten, alabaina gaur arrasto batzuk besterik ezin ditugu ikusi. Erdi aroko guneak 4 kale zituen; Beheko kalea, Erdiko kalea, Goiko kalea eta Elizako kalea. Ondoren XV. mendean barrutia zabaldu egin zen Kapitanenea, Andra Mari eta Santxoenea kaleak hartuz, gune berria hartu zuen harresi berria eraiki zen, obal itxurako gune bat sortuz, gune honen zentroan gaur egungo Herriko enparantza kokatzen zen eta bertara zazpi kaleek jotzen zuten. Erretereriak 5 ate zituen garai hartan, zenbait dorretexez zainduta zeudelarik: Morrontxo, Gaztelu, Urdinso, Orozko, Uranzu,... Goiko kalearen irteeran Nafarroako, Sanjoango edo Gaztelutxo atea zegoen. Frantzia edo Santa Klarako atea Erdiko kalearen bukaeran irekitzen zen. Gainerako atea kostarantz irekitzen ziren. Iparraldekoa edo Ugarritze atea Lezorekin lotzen zuen, eta Kapitanenea, Andra Mari eta Santxoenea kaleak beste ate batean egiten zuten bat: itsasoko atea. Erretereriako atea lonjarantz eta porturantz irekitzen zen eta Donostiarekin lotzen zuen Madalena eta Galtzarabordan zehar.

Erretereriako Udaletxea. XVII. gizaldiko eraikuntza honek, beste hainbat auzoko etxeekin eta elizarekin alde zaharraren plaza nagusia, Herriko Enparantza delakoa, antolatzen du.



- Gamon Zumardian kokaturik, Erdi Aroko barrutira Herriko Enparantzara garamatzen kaletik sartuko gara, Lezoko atea gurutzatuz, XIX. mendearen amaiera aldean suntsitua.
- Ezkerretara jo eta Beheko kalea hartu, hiriaren itsas iraganaren arrasto gehien gorde duen kalea, horren lekuko eraikin desberdinetan ikus ditzakegun armarrak dira. 3 zenbakia duen etxeak armari ahokatu bat dauka, behealdean aingura bat azaltzen du. 5 zenbakian beste armari bat ikus dezakegu, aingeru-buru bat azaltzen du. 9 zenbakia duen eraikinaren sarrerako arkuak biltzen duen galeoi eder bat ikus dezakegu. Eraikin honen aurrean, 12 zenbakiak erdi-puntuko arku bat irekitzen du kanpualdera. Kalearen bukaeran, honek eskuinaldera biratzen duen lekuan, 20 zenbakia duen eraikin ederrarekin egingo dugu topo, eraikin honek kale honetara eta Erdiko kalera ditu fatxadak, azpimarratzekoa da balkoian eta teiltategalean dituen zurezko lanak.
- Beheko, Erdiko, Santa Klara eta Orereta kaleen artean gaude, Santa Klarako Ataria kokatzen zen lekuan bertan. Antzinako harresiaren hormatalari itsatsita Zubiaurre Jauregia eraiki zuten. Hasiara berrin traza gotikoa zuen arren, 1638ko sutearen ondoren erabat berritu zuten fatxada. Oin laukia duen eraikin honek bi altuera dituen, mentsulak oinarri dituzten balkoi korrituak eta oso eder dekoratutako teiltategalak nabarmentzen direlarik. Fatxada nagusian, era berean, Elizaldetarren armarrak ikus dezakegu, familia honek XVII. mendearen bukaera aldean eskuratu baitzuen etxea.
- Santa Klara kalea izen bereko zubiraino luzatzen da, non kokatzen zen 1933-6-16ra arte Santa Klarako Ermita -behartsuentzako ospitalea izan zen-. Egun horretan uholde batek suntsitu zuen ermita eta bertako batek santaren irudia aurkitu, jaso eta etxean zaindu zuten. Jendeak loreak eraman ohi zizkion, bai eta diotenez beti piztuta egoten zen argitxorako olio ere.
- Gure ibilaldiak Erdiko kaletik darrai. Kale hau izan zen Erdi Aroko kalerik nagusiena eta hauxe da Erdi Aroko eraikuntza-ezaugarriak hobekien gorde dituen kalea. Oinak hegalkinetan jarraian izatea da hauetako ezaugarrietako bat: artekormak mailakatu egiten dira eta oinak hurrenez hurren antolakera honi egokitzen zaizkio. Kanean behera goazela Erdi Aroko arkitektura tipikoaren adibide zoragarriak ikus ditzakegu: 26 zenbakia, 16 zenbakia (eraikin honek leiho geminatu bat, ireki berri den bao batek oso

aldatu duen sarrerako arku bat eta honen gainean giltzarri bat ditu), 11 zenbakia (sarrerako arkuzabala eta giltzarria), 10 zenbakia, 5 zenbakia eta 3 zenbakia. Azkenik kalearen amaieran, 1 zenbakia duen eraikinak armarri bat du.

- Herriko Enparantzara heldu gara, antzinako Erdi Aroko hiriaren eta XV. mendean garatu zen zabalduaren arteko muga. Izan ere, mende horren amaierara arte, udal korporazioaren bilerak Elizaren koruan burutzen ziren eta 1603. urtean batzarrak burutzeko eraikin bat egitea erabaki zuten. 1607. urtean eraikina ia bukatuta zegoela, Probintziako Batzar Nagusiak bertan izan baitziren. Hala eta guztiz ere, 1638ko suteak kalteak eragin zizkion eraikinari eta zaharberrikuntza lanek 1666. urtera arte iraun zuten. Udaletxeak eraikin mota honen ohizko eraikuntza du: etxabe arkupe-duna, 2 oin, hiru balkoi oin nagusian eta simetrikoki kokatutako armarria. Aipagarria da zurezko harburuz ederkor horniturik dagoen teilategala.
- Jasokundearen Eliza ere oso nabarmen ageri da enparantzan. Erdi Aroko antzinako elizaren arrastorik geratzen ez den arren, honen nabek gaur egungoak baino altuagoak ziren, oso arku zorrotzak zituen, eta oina txikiagoa zuela diote adituek. Ezagutzen dugun lehen aipamena 1384koa da, gaur egungo eliza, haatik, XVI. mendean hasi ziren eraikitzen eta 1573. urtean amaitu zuten, obren zati bat hiriko galeoiak saltzerakoan lortutako irabazien ehuneko erdiarekin finantzatu zien. Adierazi dugun bezala, oina aurreko elizarena baina handiagoa da eta elizak Elizako kalearekin sortzen dituen txoko berezietan, Mikela Zulo arkuak eta Goiko kalearen hasieran dagoen bihurgunean antzeman dezakegu hau. Izatez, inguruko kaleetako zenbait eraikin bota behar izan zituzten gaur egungo Eliza eraikitzeko. Hiru nabetako eta altuera bereko hiru absidetako areto-planta du, alboetan kaperak ditu. Ez du arbotanterik, seguru aski kanpoaldean espazio gutxi duelako, beraz, bermeak horma zabalaren bitartez ebatzi zituzten. Osotasunean, eliza euskal estilo gotikoan barnebiltzen da. Barruan, zenbait artelan ikusi ahal izango dugu. Erdiko erretabloa (XVII. mendekoa, neoklasikoa) Ventura Rodríguez maisuak diseinatu eta bere ikaslea zen F. Azurmendik egin zuen. San Migelen aldarean antzinako aldare nagusiko sagrarioa eta Gregorio Hernándezen tailerrekoak omen ziren bi irudi zoragarri -Andre Maria sortzez garbiarena eta San Migelena-

daude. Agian, balio handiena duena Andre Mariaren koroapenaren irudiak dituen XV. mende amaierako triptiko flandriarra izango da. Maria de Lezok, izatez Morrontxokoa zena, ekarri zuen triptiko hau. Enrike VIII.aren lehen emaztea izan zen Katalina Aragoakoa Erreginarean dama eta zerbitzari izan zen Londresen. Pasadizu gisa konta dezakegu karlistadetan, zegoeneko hiriak harresia galduta zuela, zenbait kaleska itxi zirela. Eliza soldadu libe-ralen aterpe gisa erabili zen eta eliza eta udaletxea lotzen zituen pasabide bat egin zuten. Dorrean batera karlistek San Markosetik bonba bota zutela iragartzen zuen kainoi bat kokatu zuten.

- Gure ibilbideak elizaren ezkerreko darrak. Enparantzarekiko izkinan bertan zaharberritu berri den eraikin batek Erdi Aroko arrasto garbiak ditu agerian, hala nola, leiho geminatu bat. Honez gain, sarrerako arkuaren gainean giltzarri bat ikus dezakegu. Kalean gora 21 zenbakia duen eraikina (Gure Toki Elkartea) eta 23 zenbakia duena dira azpimarragarriak, hiri-etxe tradizionalak dira.

Erdi Aroko hirigunearen muga zenaren Orereta kaleko Torrekoa eta, atzean, Arranbide etxeak.



Mikela Zulo. Errenteriako leku ezaugarrienetako. Goizueta Errege Biderantz oztoporik gabe kalesak eta gurdia igarotzeko elizaren dorre azpian, honen oina handitu zenean, egindako pasadizua dugu Mikela Zuloa.

- Elizako kalearen amaieran Orereta kalera helduko gara, Erdi Aroko barrutiaren harresi-itxitura izen lekura. Bertako eraikinik garrantzitsuena Arranbide jauregia da, harresiaren trazadurari jarraiki eraikia.
- Eskuinaldera jo eta Goiko kalera helduko gara. Torrekua eta Morrontxo Dorretxeek Nafarroako atea zaintzen zuten. Torrekua ageriko eraikuntza da, itxura trinkoa du eta zenbait aldakuntza berri ditu (ba oak ireki dira,...). Goiko kalerako fatxadan, bi arku zorrotz ditu, hiriguneko bakarrak. Aipatzekoa da bigarren oinerako sarbide zen eskailera bat zegoela, bai eta Orereta kalearen eta Goiko kalearen arteko izkinan giza-aurpegi landu bat ere. Morrontxo hobe gorde da, leiho geminatuak eta zenbait baoetan arkuak ditu, azken hauen artean zitiriz errematatua dagoena azpimarra dezakegu. Goiko kaletik behera abiatuz, 22 zenbakia duen etxeak, Morrontxori itsatsia, landutako harburuak oinarri dituen balkoi eder bat du. 10 zenbakia duen etxeak erdi-puntuko arku baten eta armarri baten arrastoak ditu, 8 zenbakia duen etxeak ere arku bat irekitzen du kanpoaldean. 6 zenbakia duen etxean jao eta bizi izan zen izen handiko Koldo Mitxelena filologoa. Azkenik, elizaren dorrearen azpian kokatzen den Mikela Zulo arkura iritsiko gara, arku honek Goizuetako Errege-Bidetik zetozen gurdiei pasaera ahalbidetzen zien. Herriko Enparantzan azalduko gara, San-

txoeneatik barrena jarraitu aurretik, komenigarria gertatuko da ezkerraldera jotzea eta Foruen Plazara hurbiltzea. Erdi Aroko gunetik plaza honetarako irteera, antzinako lonja, Errenteriako atearekin zegoen itxita. Plazaren beste aldean Madalen errebala kokatu zen, Donostiarako Errege-Bidearen bazterretan. Madalen kalera hurbildu gaitzek eta bertako eraikin zaharrak ikusi. 3 zenbakia duena, Amasa etxea bezala ezagutzen dena, izan zen lonja. Kale honetan Xenpe lar bizi izan zeneko etxea nabarmentzen da, gaur egun Kultur Etxea da.

- Atzera jo dezagun Herriko Enparantzara heldu arte, bertatik Santxoenea kalea hartzeko. 2 zenbakia duen etxeak, Enparatzarako fatxadarik ere badu, eta 4 zenbakia duenak elementu gotikoak dituzte, hala nola kale honetarako baoak. 9 eta 19 zenbakiak dituzten etxeak erdi-puntuko arkuak dituzte eta giltzarriek errematatuta daude. Kalearen amaieran Tolare eraikina nabarmentzen da, ezaugarri neogotikoak dituen estilo historizistako eraikina.
- Bira eman eta Andra Mari kalea hartuko dugu, seguruki aski XV. mendeko zabalduko kalerik nagusia da. Bertan Erdi Aroko elementuak gertatzen dira. 8 zenbakia duen etxeak bi JHS anagrama ditu, hauetako bat gurutzelarkatuz egina. 12 zenbakia, piska bat lehenago, harlanduzko eraikin zoragarri bat da.
- Enparantzara iritsi eta Udaletxearen aurretik igaro ondoren Kapitanenea kaletik abiatuko gara. Kale honetan 2 zenbakia duen etxeak erdi-puntuko arku duen sarrera du, ondoren kale honetako eraikinik garrantzitsuena dago: Kapitanenea. Etxe hau Martin de Rentería y Urantzurenaren izen zena, "Machín de Rentería" gisa ezaguna. Karlos V. enak eman zion itsasgizon trebe eta maltzur honi general tituluz gain, armarrria erabiltzeko baimena. Barroko estiloko eraikin honek jatorrizko oinetxeen bi armarri eder eta teilategal artistikoa ditu. Kapitanenea kaletik jarraitu eta Biteri kalea gurutzatuko dugu. XIX. mendearen erdialdean trafikoa hirigunetik igarotzea saihesteko irekia zen Biteri kaleak eten egiten du Erdi Aroko barrutia. Maiz burutu ziren honelako iharduerak, ia kirurgikoak, XIX. mendetik aurrera Erdi Aroko guneean. Biteri kalearen beste aldean oraindik ere Erdi Aroko oinak badirau, Fernández de Landa plazara heldu arte. Plaza honen izkinan, itsasorako atea kokatzen zen lekuan erdi-puntuko arku baten arrastoak antzeman ditzakegu ezkerraldeko eraikinean.

Erdiko kalearen etxebizitzak. Kale honetan ba dira oraindik ertaroko eraikuntzaren elementu tipologikoak mantentzen duten eraikuntzek, hala nola, oinak hegalkinetan jarraian etabar.





LUZERA: 9.2 km.

IRAUPENA: 2 ordu 15'

ZAILTASUNA




KONTUAN IZATEKOAK

Eguraldi hezea dagoenean mendiko bota arinak eramatea komeni da.

INTERESA

	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Erreneriako kaleetan dagoen Madalenaren ermita.

EZAUGARRIAK

San Markos Erreneriarrek paseatzeko gogokoen duten gunea da, beraz inguru honetan jende asko ibiltzen da jaieguna edo eguraldi ona denean. San Markoseko gotorleku interesgarrira igotzeko, antzinako galtzada militarrek osatzen duen bide monotono eta ez atsegina egin beharrik ez dugu eta horretarako beste aukera bat eskaintzea bidezko dela uste dugu. Itzultzeko, gida honen ibilbide guztietan bezala, igotzeko erabili den bidea ez den beste bat hartuko dugu.

AUKERAK

San Markosera igotzeko bide asko daude. Luzeagoa bada ere erosoagoa den bide bat aipatu dezakegu; *Fuente de la Hoja* edo Altondoko Iturria (2,5 km) deitutako tokian gaudenean errepidea jarraitu. Eskualde-zaborteja inguratu ondoren ezkerretara jarraitu eta antzinako galtzada militarretik (3,4) igoz bi bihurgune zabalaren ondoren San Markoseko gotorlekura iritsiko gara, galtzeko arriskurik gabe.

LOTURAK

4,6 km-an aurrera jarraitu eta 3. ibilbidearekin bat egiten badugu Txoritokitara igo eta/edo Zamalbidera jaitsi ahal izango gara. Ibilbidea ondo aztertuz bi txangoak nahastu eta zortziaren itxura izango duen ibilbidea egin ahal izango dugu, kaletik abiatuz bi gotorlekuak ikusteko aukera izango dugularik.

GOTORLEKUA BISITATZEKO ORDUAK

Larunbat, igande eta jaiegunetan, 12etatik 20etara

0,0 km Madalenaren ermita. Urbasa kaletik eta Galtzaraborda etorbidetik abiatuz Beraunera iritsi eta han ezkerretara San Markos kalea hartu. Honen bukaeran

1,4 km Urristi zubia, autobidearen gainetik igarotzen dena, zeharkatu. Errepidea jarraituz eskuinetara joan. Pollitane etxearen ondotik igaro ondoren, aurrera jarraitu.

2,5 km Altondoko Iturria, *Fuente de la Hoja* bezala ezagutzen dena. Honera ailegatu eta gero, atzera metro batzuk itzuli beharko dugu eskuinetara zelai artean igotzen den bidea hartu ahal izateko.

2,9 km Soraburuko lepoa, izen bereko baserriaren aurririen oinetan kokatzen da. Hemen gaudenean Epertxoko erreka guneetik San Markosera igotzen has gaitezke. Erdi-bidean iturri bat dago eta azkenik

3,4 km pista batera iritsiko gara. Zeharkatu eta

3,5 km Kutarroko lepoa gainditu. Mendibizkarretik zehar ezkerretara jarraituz eta beti gora eginez,

3,8 km San Markoseko gotorlekura helduko gara. Obligaziozko bisita eta gero, galtzada militarretik segi.

4,4 km Bidegurutzea. Ezkerretara, Txoritokitako norabidea hartu. Aparkaleku txiki batera iristen gaudenean ezkerretara joango gara. Metro gutxira

4,6 km bigarren bidegurutze bat ikusiko dugu. Ezkerretara desbideratuz, pista Ondartxo baserriaren ondotik jaisten da eta.

5,2 km Ondartxabaleko lepora iristen da. Hemendik gure ezkerretara pista bat abiatzen da. Honi jarraitu, herribide zaharra dela konturatuz, eta

5,5 km beheko pista batera azalduko gara, Uretxe etxearen, orain urritan dagoen etxea, ondoan. Ezkerretara jarraituz

5,7 km Bordaberri baserrira eramango gaitu pistak. Bertara iritsi aurretik metro gutxi goraxeago, mendi-hegalaren erdialdean igarotzen den bidean ezkerretara joko dugu. Iturri txiki baten albotik igaro eta San Markos inguratzen duen bide honek bidezidor bihurtuko da. Honi segituz,

6,8 km Soraburuko lepora iritsiko gara. Etorri garen bidetik itzuli behar gara.

7,3 km Autobidearen gainetik igarotzen den zubiaren inguruetara iritsi aurretik eskuinetara asfaltatutako bidea abiatzen da. Atxuania baserriaren ondotik igaro eta

7,6 km Ezkerretara bidegurutze bat ikusi eta hartuko dugu. Autobidea zeharkatzen duen eta Berauna iristen den harrizko bidetik jaitsiko gara. Behin Beraunen, eskuinetara jarraituz eta Pontikan zehar jaitsiz Erreneriako kaleetara hurbilduko gara Pekin eta Lanera fabrikak igaroz

9,0 km Madalenaren ermitaraino ailegatzeko.

Madalenaren ermita (ikus 12. ibilbidean egindako azalpena).

Galtzarabordako etorbidea. Bide moderno honen trazadura antzinako Errege-Bidearenekin ia bat dator. Goialdean, San Markos kalean ezkerretara jotzen dugunean, Galtzarabordako lerroa jarraitzen duen bide bat dagoela ikus dezkaugu. Hau Molinaotik Altzara zihonan Errege-Bidearen jarraipena da.

Beraungo auzoa. Gerra Zibilaren ondoren Beraun Berri eta Beraun Zaharra baserrien lurretan hasi ziren eraikitzen auzo hau. Izenari dagokionez, zenbait ikertzailek erromatarren meatz-ustiapenekin (Beruna) erlazionatzen dute. Beraun Berri gaur egun institutua dagoen inguruetan kokaturik zegoen, Galtzaraborda etorbidean, eta Beraun Zaharra berriz gaur egun Isidro Ansorena kalea dagoen tokian kokatzen zen. Finka hau mende honen hasieran 21.000 pezetan saldu zen.

Txipres baserria. San Markoserako bidean eskuinetara geratzen da, Altzako lurretan. Txipres baserria ingurueta-ko eraikin zibil zaharrenetako bat da. Erdi Aroan egiten ziren obren arabera bere zimentuak lurrean asko hondoratzen dira eta aitzaki honekin herriak jentilei eragotzi izan die baserri honen eraikuntza. Fatxadan elementu gotikoak nahiz jatorri ezezaguneko San Jeronimoren irudia ikus daitezke, azken hau batzuek San Markosen egon zen oratorioarekin erlazionatzen dutelarik. Gainera, Santiago-bideko geldidune izan zela ere pentsatzen da eta hau guztia ikusita batzuek baserriaren inguruan ermita bat eraikitzeke dirua bildu nahi izan zuten, ahalegin honek arrakastarik izan ez bazuen ere.

Altzondoko Iturria (Fuente de la Hoja). Udaran ia urik ateratzen ez bada eta gizakiaren nahiz animalien eraginez edateko ona dela ziurra ez bada ere, Errenteriako biztanleak botila eta bidoiz horniturik joan ohi dira bertara.

San Markoseko eskualde-zaborteia. Donostialdeko udalek, Astigarragako Petrítegikoa ordezkatzen duen zaborteia hau erabiltzen dute. Paisaia-inpaktu gutxiko inguru batean kokaturik badago ere, bertako usaina eremu zabal batean hedatzen da.

Abrin baserriak. Goragune txiki batean kokatuta daude. Abrin Goia baserriaren erdia Altzan eta beste erdia Errenterian dago. Kanpoan, fatxada dotoretuz, harriz egindako eta purpurinaz estalitako taila rudimentarioko Santokristoa du.

Kutarroko gotorlekua. San Markoskoaren osagarri den eraikin militar honek, gotorleku nagusitik gutxi ikusten den NW hegala babesteko funtzioa zuen.

Madalenako mendizerra. Antzinako mapetan, San Markoseko gotorlekua eraiki aurretik, inguruaren toponimo gisa "Madalenako mendizerra" agertzen da. XVI. mendearen erdialdera Juan de Yerobi y Gamon, 1522tik 1561era bitartean Batxiler eta Bikario izan zenak, Bistaraingo gainean ermita bat eraiki zuen. Bertan Erromatik ekarritako Madalenaren irudi bat ezarri zuen eta hau Udalak izendatutako zaintzaile batek zaintzen zuen. Inguruetan San Jeronimo gurtzeko oratorioa ere eraiki zuen. San Klamente ermita izan zela ere jasota dago agirietan. Herrietatik urrun zeuden ermita guztiak 1770. urtean eraitsi ziren errege-agindu baten ondorioz eta bertako irudiak hirira eraman zituzten.



San Markosera abiatzen den bideko lepo baten inguruetan Soraburu baserriaren hondakinak.

Gotorleku militarrek koroatzen duen San Markos mendiaren gailurra.



San Markoseko kantina. Lepo estrategikoan kokaturik eta gaur egun aurritan dagoen eraikin hau taberna izan zen.

Ondartxuloko dolina. Bidearen eskuintara dolina adibide bat ikus dezakegu. Sakonune honetan euri-urek lurpean zuzenean iragaztea beste aukerarik ez dute, honela lurrazpiko akuiferoa elikatuz.

Sabarako iturburu karstikoa. Sabara baserrira doan hormigoizko pistaren aldamenean kokatua dago eta bertan aska bat dago. Iturburu honen urak San Markos eta Txoritokietako akuifero karstikora doaz.



Ondartxuloko dolina, luto edo zulo karstikoa.

San Markos eta, atzekaldean, Jaizkibel.



Zabortegekiko kaioak.

Mende honetan zehar Kaio hankaoria (*Larus cachinnans*), lehen kaio hauskarra (*Larus argentatus*) deitzen zena, asko ugartu da mundu guztian. Gaur egun, toki askotan izurri bihurtu direla esan ohi da eta ondorioz koloniak kontrolatu beharra dago, beste espezie batzuen kolonietan sartzen ari baitira hauen kumeak ehizatuz. Belgikan adibidez 4 edo 5 bikoteri besterik ez diote lagatzen habia egiten. Hiri-garapenak zabortege handiak sortu ditu eta espezie hauek bertan aurkitzen dute elikagaia. Hirietako nahiz industrietako zabortegetara egunero janari gehiago iristen da eta honek hegazti hauen gehikuntza nabarmena eragin du. "Egungo arratoiak" direla ere esan izan da. New Yorken adibidez 200.000 kaio zaborrari esker bizi dira. San Markoseko zabortegeira egunero kaio-talde izugarriak etortzen dira Ulia eta Jaizkibelek.

San Markoseko gotorlekua.

Pasaiaiko porturako sarbidea defendaetzeko eraiki zen gotorleku zahar honek 26.000 m² inguruko azalera betetzen du gaur egun. II. Karlistadaren garaian lubaki-itxurako babesleku bat besterik ez zen baina gerra bukatu zenean Errege-agindu baten bidez 1877an egungo gotorlekua eraikitzea onetsi zen. Eraikuntza-obra 1884an hasi ziren eta lau urte beranduago amaitu ziren 2 milioi pezetako kostuarekin. Eraikina ekialdera begira egin zen, horrelakorik inoiz gertatu ez bazen ere, mugatik etor zitezkeen inbasioei aurre egin ahal izateko. Artilleriako hiru bateria nagusi ditu eta euri-urak biltzeko erabiltzen zen uharka duen patioa ere bai. Uharka honi esker 200 gizoneko goarnizioa 5 hilabetez mantentzea lortzen zen. Ondoren hobi batez eta lubaki batez inguratu zen eta bertara iristeko galtzada militar bat eraiki zen. Gotorlekua militarren esku egon zen 70eko hamarkada arte eta gaur egun, Txoritokietako arekin batera, Errenteriako Udalaren esku dago. Hau garbitua, berregokitua eta publikoari irekia izan ondoren San Markos eta Txoritokietako parkea eraizteari ekin zaio.



LUZERA: 4.6 km.


IRAUPENA: 2 ordu 15'



KONTUAN IZATEKOAK

Zamalbide inguruan errepidea zeharkatu eta metro batzuetan hau jarraitu beharko dugunez, arretaz ibili beharko dugu.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Zamalbide, Erreterria Perurenako gainarekin lotzen duen errepidean dago. Norbere ibilgailuarekin joanez gero, Pekineko errepidetik edo Agustinetatik iritsi daiteke. Kaletik bertarako lineako autobusak ere badaude.

EZAUGARRIAK

San Markos gotorlekuaren ospea dela eta Txoritokietakora ez da jende gehiegi joaten, ikuspegiari dagokionez oso ederra bada ere.

AUKERAK

Txoritokietara igotzea ez da beharrezkoa, eguraldi bero eta eguzkitsuarekin neketsua izan baitaiteke. Horretarako, muinoaren oina ekialdetik inguratu dezakegu, Aitzetako Txabalako trikuharritik goiko bideraino (1,4 km) igotzen garenean, ezkerretara joz. Gipuzkoako ekialdearen eta Lapurdiko itsasertzaren ikuspegi ederra eskainiko digun 600 metroko ibilaldi lau eta polita egin ondoren Floreaga Berri baserrira iritsiko gara eta hemen, ibilbide nagusiko 2,9 kilometroan deskribatzen den puntuarekin bat egingo dugu.

LOTURAK

San Markoseko ibilbidearekin lotzeko bai aukera ditugu, gotorleku honetara igoz edo Erreterriara jaitsiz. Lehenengo lotunea Ondartxabaleko lepoan dugu, bai igotzerakoan (6,0 km) eta bai jaisterakoan (4,0 km). Hemen, San Markoseko ibilbidearen 5,2 kilometroarekin bat egiten dugu. Bigarren lotunea Aitzetako Txabalako trikuharria igaro bezain laster eta galtzada militarra (1,6 km) iristen garenean dugu. Hemen eskuinetara jarraituz, San Markoseko ibilbidearen 4,6 kilometroarekin bat egingo dugu.

0,0 km Zamalbide. Ermita bat, jatetxe bat eta zenbait baserrik osatzen dute. Perurenako gainera begiratzuz errepidearen eskuinetara hormigoizko pista bat abiatzen da. Hemendik gora igotzen hasiko dugu ibilbidea.

0,4 km Pisten bidegurutzua. Ezkerretara igotzen jarraitu.

0,6 km Ondartxabaleko lepoa, bide desberdinak gurutzatzen diren gune estrategikoa. Gure ezkerretara abiatzen den hormigoizko pista jarraituko dugu Ondartxuloko sakonunea inguratuz.

1,0 km Harrobi zahar baten arrastoen azpian lepo txiki bat nabarituko dugu. Hementxe bertan, hormigoizko pista utzi ondoren eskuinetara dagoen arzolazko bidea igotzen hasiko gara. Pixkanaka, moztu berria dagoen hariztian zehar igotzen garen neurrian, landarediak izkutatzen duen Aitzondo baserria ezkerretara utziko dugu, pagadi batera iritsi arte. Hantxe dago

1,2 km Aitzetako Zabalako trikuharria. Basotik irten ondoren erreka horren sakon batetik igoko gara

1,4 km Goiko bide batera iritsi arte. Txoritokietako gailurrera galtzada militar zaharretik igoko gara. Horretarako, esandako bidera iristen garenean eskuinetara joango gara.

1,6 km Galtzada militarra. Bidearen trazadura eta bidegurutzetan beti gorako norabidea jarraituz, bi bihurgune itxi gainditu ondoren eta eskubitara pista-aren adar bat utziz,

2,3 km Txoritokietako gailurrea gaindituko dugu. Ton-tor hontan gotorlekua dago eta telekomunikazio antena batek apaintzen du. Itzulera hasteko, gotorlekua inguratzen duen pistatik abiatzen den eta Perurenako gainera doan mendibizkar-lerroa (Elorriako Gaña) jarraitzen duen bidezidorra hartu behar da. Astigarra-ga eta Erreterria arteko mugaren paretik joanez eskuinetara sagastia duen bidezidorra beste pista batera eramango gaitu.

2,9 km Pista. Eskuinetara metro batzuk jarraituz eta Floreaga Berri baserrira iritsi aurretik, ezkerretara zelai artean jaisten den bidea hartu. Erreterriako kalearekin lotzen zuen herribide zahar bat da hau. Bidea bapatean jaitsi eta pinudi batean sartzen da.

3,4 km Eskunaldetik elkartzen zaigu pista bat eta, honekin batera, gasbidea, bere zutoin horiengatik ezagutzen dena. Herribide zaharraren arrastoak ezkerretara utziz jaisten jarraituko dugu, eroso-eroso,

4,0 km Ondartxabalko lepoan azaltzeko bapatean. Hormigoizko pistatik jaitea besterik ez dugu ibilbidearen amaierara iristeko.

4,6 km Zamalbide, ibilbidearen amaiera.

Zamalbide. Erreteriatik Astigarragara doan errepidean kokatutako landagune hau plano zaharretan herrixka bezala jasotzen da. Zamalbide baserria, errepideen bidegurutzearen aldamenean kokatua dago eta eraikuntza sendoko etxe handia da. Bertan azpimarragarriak dira sarrerako arku beheratua, baoak inguratzen dituzten harlanduak eta balkoi nagusiko forjazko baranda zoragarria. Etxe honetan bizi izan zen Zamalbide generala eta Kapitan Etxean ikus dezakegu eraikin honen maketa. Eraikin honen eraskin gisa dagoen ermita zaharra gaur egun kola-fabrika gisa erabiltzen da. Eguno ermita mendalderago errepidearen aldamenean dago, eta eraikin berri bat da.

Lepoak eta benta zaharrak. Bidaiari eta merkatariek sarritan zeharkatutako tokiak izan dira beti lepoak. Honez gain, askotan udalen eta batzuetan probintzien arteko muga adierazten zuten lepoek. Beraz, udal-alkabalaz salbuetsita zeuden toki hauen zeregina garrantzitsua izaten zen merkataritzan. Horregatik egon izan dira haibeste benta nahiz kantina lepoetan. Hauetako asko gaur egun oraindik ezagutzen dira, adibidez, Perurenakoa, San Markoseko kantina (aurritan), Igoingo ibilbidean dauden Bentatxuriko aurriak, Zamalbidetako benta, etab.

Hormigoio edo porlanezko bideak. Antzinan baserrietara iristeko erabiltzen ziren gurdi-bideak mende honen erdialdean lurrezko edo harrizko pista bihurtu ziren, ibilgailuak baserrietaraino iristeko. 80ko hamarkadatik aurrera bide hauetako gehienak hormigoiz estali dira.

Aitzetako Zabalako trikuharria. Ongi mantendutako trikuharri hau Gipuzkoako ederrenetako bat da eta leku nahiko lauan kokatuta dago. 1962an aurkitu zuten eta hurrengo urtean J.M. Barandiaran jaunak indusketak hasi zituen. Bertan ez zen inolako material arkeologikorik aurkitu baina, hauek jentilen hilobi izanik altxorak bilatzen ibiltzen zirenek aspaldi espoliatu zituztenez, hau ez zen harrizkeoa izan.

San Markos - Txoritokieta, koralezko arrezife izandakoa. Duela 120 milioi urte, behe Kretazikoan, klima tropikal epelak eta azaleko itsas hondeok organismo eraikitzaile desberdinen sorrera eta garapena eragin zuten. Hauek, batez ere maskor eta eskeletuen pilaketari esker sortutako arrezife-eraketetan aurkitzen ziren koralak eta rudistak ziren eta gaur egun ia estratifikaziorik gabeko karri konpaktu eta homogeno gisa gordetzen dira. San Markos eta

Txoritokietako harrobiak, karri gorri eta grisez osaturikoak, antzinako arrezife honen legatu ikusgarriak dira. Bere harriak arretaz begiratzen baditugu orain fosilizaturik dauden koralezko organismo zaharrak haitza nola osatzen duten ikus dezakegu.

Txoritokietako gotorlekua. San Markosekoa baino egoera txarragoan dago gotorleku hau. Aurrekoaren antzeko ezaugarriak ditu eta 1888tik 1890era bitartean eraiki zen. Bere funtzioa San Markoseko babestu gabeko hego aldea zaintzea zen eta honekin batera Oiarzungo Lubaki Eremu Militarra osatu zuten. Honek, era berean, Hondarribiko Guadalupeko gotorlekua eta Irungo Pagogañako gotorlekuarekin batera Bidasoako muga defendatzeko sistema osatzen zuen.



Txoritokietako gotorlekua.

Txoritokietako hegalatik ikusten den paisaia. Iruadiaren ezkerrean, San Markos. Atzean, Jaizkibel. Eskuinean, Oiarzuneko haranaren etxeak. Atzekaldean, Bidasoa ibaiaren bokalea eta, urrunago, Lapurdiko kosta lerroa.



Txoritokietako iruinarrria. Astigarrago udalarekiko muga adierazten duen mugari bezala ere erabiltzen den menhir lerden hau zoritxarrez burdinsare batez guztiz inguratua dago, beraz oso zaila da hau oztoporik gabe ikustea. Hala ere, Burdin Aroko (900- 300 k.a.) monumentu megalitiko hau harearri tria-sikozko bloke bat denez Igoinetik ekarria izan zela badakigu.

Lutxutako azalera penak. Ondartxabeleko lepora jaisten ari garela bidearen eskuinetara kararri-azalera pen bat ikus dezakegu. Erdi-estalitako lapiaz bat da eta haitzaren zati altuenari dagozkion pinakulu txikiak bakarrik ditu bistan.

Lutxutako erdi-estalitako lapiaza.



Paisaia karstikoa


Karst Esloveniako eskualde bat da baina era berean urak kararrian duen eragin geldoaren ondorioz sortutako erliebe-motari izena ematen dio. Kararriaren osagarri nagusi den kaltzio karbonatua euri-ura eta anhidrido karbonikoaren nahasketaren eraginez disolbatu egiten da. Honela urak haitza disolbatzen du eta zartaduretatik barrena sartuz lurrazpian garraiatzen da galeria eta eroanbide-sare bat eratuz. Karstaren azalean *erliebe-mota* desberdinez osatutako paisaia berezi eta malkartsua eratzen da. Lurrazpian haitzak disolbatu eta arrailadurak eraginez *lapiaza* edo lenarrak sortzen dira. Lurrazalaren estalkia kenduz eratutako kanal-multzoak ikus daitezke. Euri-urak jaso ondoren disoluzioak eragindako lurrazpiko galeria-sarean sartzen dituzten enbutu-itxurako sakonune handi edo *Dolinak* ere ikus daitezke. Batzuetan, ibai batek kararria erosi onatzean galeria hauek bistan jartzen ditu eta haranen hegaletan *haitzulo* edo *leizeak* sortzen dira. Galeria-sareak, kararriko lurretatik datozen urak eroan eta *iturburuetan* biltzen ditu. Honela, euri-urak bildu eta iturburuetara eramaten dituen "belaki izugarri" bihurtzen da kararriko masa hori. Azalean egindako edozein isurketa kutsagarrikeraketa karstiko guztiaren uretan izango du eragina. Kontuan izan beharra dago gainera gizakia ez dela ur hori erabiltzen duen bakarra.

Kararriko baso mistoa

Kararriko lurretan aurkitzen den basomota ireki honetako zuhaitzak ez dira asko hazten. Arrazoa, kararriko azalera pen ugariko lurralde honek duen lur eskasia da. Txoritokieta Euskal Herri atlantiarreko zonan kokatua dagoenez bertan haritz kanduduna (*Quercus robur*) nagusitzen da baina honek beste espezie batzuei ere tokia uzten dio. Goragoiko lurretan berriz pagoa (*Fagus sylvatica*) da beste espezieei tokia uzten diona. Baso hauetan hurritza (*Corylus avellana*) eta astigar arrunta (*Acer campestre*) dira ugariena baina hauen ondoan zuhandorra (*Cornus sanguinea*), lizarra (*Fraxinus excelsior*), basa-gerezi ondo (*Prunus avium*), hesilaharra (*Rhamnus catharticus*), hostazuria (*Sorbus aria*), elorri zuria (*Crataegus monogina*) eta basarana (*Prunus spinosa*) ere aurki ditzakegu. Baso hauetako batzuetan urriagoak diren beste batzuk ere aurkituko ditugu, adibidez, ezkia (*Tilia platyphyllos*) eta hagina (*Taxus baccata*), Gipuzkoako armarrian agertzen den zuhaitza. Lur gutxiko inguruetan hazten direnez, baso hauen suntsidurak erosio eta lur-galera handiak eragiten ditu eta ondorioz lur hauek berreskuratzea oso zaila gertatzen da.




Sabarako iturburu karstikoa



LUZERA: 7.2 km.

IRAUPENA: 2 ordu


ZAILTASUNA



KONTUAN IZATEKOAK

Baserritan bizi direnei ez molestatu eta gurea ez dena errespetatu. Ate eta langak itxi, zelaia ez zapaldu eta artaldeak ez izutu. Bestalde, Santa Grazi edo Harkaitze baserrietarako igoeran Aldura Leporaino arretaz ibili behar da.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Txikierdiko bidegurutzetatik aterako gara. Hona iristeko Perurena gainetik Oartzuna jaisten den errepidea hartu behar da. Errenteriako udal-mugapetik aterata 500 metro ingurura, eta Txikierdi tabernara iritsi aurretik, eskuinean bidegurutze bat dago. Hemen hasten da ibilbidea.

EZAUGARRIAK

Ibilbidea ohizko euskal paisaia atlantiarrean zehar igarotzen da haranean gora eta bertan zenbait baserri ikus ditzakegu. Ibilbidearen gune altuenean, gaur egun hutsik geratu diren baserri altu eta urrunduenen jabetzako lurrek osatzen duten zona birpopulatueta iritsiko gara. Orokorrean, inguruak duen paisaia-balio handiagatik, bertan aurkitzen diren baserrien balio arkitektonikoagatik eta landa-inguruak aldameneko hirigunearekin sortzen duen aparteko kontrasteagatik aukeratu da ibilbide hau.

LOTURAK

7. ibilbidearekin lotzeko aukera ematen dugu. Hemen Aldurako elurzuloa ikustez gain, gailurrera igo edo Malbazar eta Listorreta aldera joan gaitzake. Bi ibilbide hauek lotu nahi badira, Episkar lepoan (3,6 km) eskuineko pista jarraituz Aldura baserrira iritsiko gara berehala.



Basaporria edo *unanua*
(*Asphodellus cantabricus*),
udaberrian eta lurzoru azidoetan
ugari sortzen den
tamaina politako espeziea.

0,0 km Txikierdiko bidegurutzea. Gure eskuinean igozen den hormigoizko pista hartu.

0,3 km Bidegurutzea (eskuinera jarraituz pista Añarre Berri eta Oartzabal baserrietara garamatza, hauen balio arkitektonikoek merezi dute geldialdi bat). Aurrera joanez, haranean gora doan bidea jarraitu.

0,6 km Oartzun eta Errenteria arteko mugan dagoen bidegurutzea (ezkerretara dagoen pista, Juan Francisco Petrarena "Xenpelar" bertsolari famatuaren jaiotetxe den Xenpelarre baserrira igotzen da). Haltzadiaren arrastoak dituen erreka bazterretik jarraitzen da. Metro gutxira bigarren desbiderapena ezkerretara uzten da.

1,1 km Pisten bidegurutzea. Egungo pista laburtzeko, herribidearen trazatu aldapatsua aprobetxatzen zuen hormigoizko bide zaharra hartzen dugu aurrean. Hau igo ondoren pista nagusia aurkituko dugu berriro eta bertan jarraituko dugu landazabalaren paisaia zoragari batez inguratuz.

1,9 km Trabaleku baserrira iritsi arte. Hau ezkerretara utzi eta eskuinetara jo igotzen hasten den pistaren arrastoari jarraituz. Langa bat gainditu ondoren pinudi eta zelaiaren artean igotzen jarraitzen dugu. Bide aldapatsuan aurkitzen dugun bigarren langa kareharkaiztegikoeremuan utziko gaitu.

2,5 km Santa Grazi edo Harkaitze baserria, harkaiztegiaren erdian kokatua. Honen gainean, ur-biltegiaren ondoan jarraitzen du gure ibilbideak. Bi burdinsare gainditu ondoren dagoen bihurtune igaroz igotzen den bidea jarraitu behar da eta langa bat gaindituz.

3,4 km Episkar baserrira iritsiko gara, orain hutsik eta lizarrez inguratua dago. Metro batzuk gorago.

3,6 km Aldura eta Aldura Txiki arteko lepoa dago. Hau da ibilbideko puntu altuena eta hemendik aurrera lepoaren beste aldean zehar jaisten hasiko gara. Bertan herribide zaharra ikusi ahal izango dugu. Bidea Aldura Txikiko gainaren ekialdeko hegaletik igarotzen da. Herribideari bihurtune batean eskuinetik bide bat gehitzen zaio eta hemendik, inguruko eta Beringarate Ermitaren ikuspegi ezinobea dugu. Ondoren jaisten jarraituko dugu herribidetik.

4,2 km pista batekin lotu arte. Gune honetan langa bat gaindituko dugu. Pistan behera jarraituz beste langa bat igaroko dugu.

4,5 km Baringarate Goia baserriaren aldamenen. Hemendik aurrera, hormigoizko bidetik jaisten jarraitu besterik ez dugu.

5,4 km Aitzate baserria, gure eskuinean.

5,7 km Txoritokieta Goikoa (eskuinean) eta Txoritokieta Behekoa (ezkerrean) baserrien artean igarotzen da. jarraitzen dugun pista.

6,0 km Bidegurutzea eta Oartzungo muga. Gure eskuinean dagoen dolina ikus dezakegu. Beti hormigoizko bidean aurrera joanez jaisten jarritu.

7,2 km Txikierdiko bidegurutzea, ibilbidearen amaiera.

Añarre Berri baserria (Lekunberri). Eskuinetera 0,3 kilometro inguru desbideratzen bagara baserri eder hau ikusi ahal izango dugu. Bere ondoan dagoen Añarre Zaharra baserria eraberritua izan bada ere bere eraikin zaharra Errenteriako zaharrenetako bat zela uste da.

Olazabal baserria. Aurrekoa baino urrutiago dago eta Errenteriako zaharrenetako bat da. Eraikin honen atzeko aldea edarrenetako bat da.

Santa Grazi edo Harkaitze baserria. Bere izenaren arabera antzinan Santa Graziri eskainia zegoela uste da baina gaur egun ez dugu honen berririk. Bigarren izena bere lurretako kararizko azalaperapen ondorio da. Kararri hauek Aizpitarteko haitzuloetatik ekialdera zabaltzen den zerrenda berekoak dira.

Episkar baserria. Azpaldidanik hutsik dagoen lizarrez inguratutako baserri hau, abeletxe bihurtu da. Euskal mitologia herrikoiak lizarrez inguratutako egote hori etxebizitzaren babesarekin erlazionatu du. Lizarraren hostoek eta adarrek duten balioak abereak elikatzearekin zerikusi gehiago izan du zalantzarik gabe eta horregatik aurkitu ohi dira baserri-inguruetan nahiz abeltzaintza-eremuetan.

Aldurako herribidea. Alduratik Baringaraterako jaitsiera herribide zaharretik (antzinako bide publikoa) egiten da. Gaur egun gutxi erabiltzen da eta oraindik ere bertatik urtetan igarotako gurdiak zoruan utzitako arrastoak ikus ditzakegu.

Baringarate ermita. Mende hasieran ermita eta eskola pribatu izan zen baserri hau orain hutsik dago.

Iturralde baserria. Hormigoizko bidearen ezkerretara geratzen da. Frailene izena ere badu baina izen bitxi honen jatorririk ez dugu ezagutzen. Erlijio-bokazioen iturri izan ote zen edo bertan fraileak bizi izan ote ziren?

Aizate baserria. Anekdotak asko gordetzen dituen bide- bazterreko eraikin apala da. Orain dela gutxi arte bilkura eta erromeria alaien gune izan zen eta, Baringarate Ermitako eskola 1912an itxi zenetik 1972 arte, baita eskola ere. Irakasleak oinez etortzen ziren Oiartzungo kaletik (ordubeteko bidea). Eraikina azken gerra karlistan erre zen baina oraindik ere kanpoan duen gezileiho eta etxe guztia inguratzen duen harrizko zokaloa bistan ditu.



Euskal Herriko kantabriar isurialdearen landa-arkitekturaren eredu polita den Añarre Berri baserria, Lekunberri izengoitiarekin ezagutzen dena. Honen aldamenean, azken karlistadetan erre ez zutelako aintzinako etxea Añarre Zaharra zena, gaur egun guztiz eraberritua, ikus dezakegu.

Baringarategatik Aldurara zijoan herribidea. Oso bide erabilia garai batean, gaur egun mendizalearen bat besterik noiz behika igarotzen da hemendik. Pixkanaka pixkanaka, gure bide zaharrak ahaztutzen goaz...



Landazabala

Erdi Aroa amaitu ondoren nekazaritza-ingurunea garatu zen Euskal Herriko alde atlantiarrean. Bertan baserria nagusitzen zenez landazabal edo *bocage* paisaia-mota sortu zen. Baserriak, bidet, laboreak, zelaiak, palaxuak, ibaitxoak eta zuhaitziak bata bestearen gainean nahasturik dira paisaia hau osatzen duten elementuak. Bazka-laboreek (artoa, erremolatxa, arbia) eta giza kontsumorako baratzeak betetzen dituzte aldapa gutxieneko zonak. Aldapa berdina edo handiagoa duten baserri-inguru-zonetan zelaiak daude. Bertan, nagusiki abereak elikatzeko erabiltzen diren larreei aniztasuna eta kalitatea ematen dioten landare gramineoak, konposa-



Berdantza (*Emberiza citrinella*), landazabalaren beste egoile bat.

(Josetxo Riofríoren argazkia)

(*Pyronia tithonus*), Palaxuetan maiz ikusten den pinpilinpaua.

(Josetxo Riofríoren argazkia)



tuak eta lekadunak hazten dira. Honi guztiari zuhaitz sakabanatuak, zuhaixka-palaxuak eta erreka-ertzetako kaduzifolioen zuhaitziak gehitu behar zaizkio. Paisaia-aniztasun honi esker aberastasun botanikoa eta faunistikoa handiak dira, ingurune hontan espezie askok babesa eta elikadura aurkitzen baitute. zirauna (*Anguis fragilis*), txantxikua (*Alytes obstetricans*), musker berdea (*Lacerta viridis*), sugegorri kantauriarra (*Vipera seoanei*) bezalako animaliak aurkitzen ditugu. Hegazti gehienek palaxu eta zuhaitzietan egiten dituzte beren habiak: txantxangorria (*Erithacus rubecula*), txepetxa (*Troglodytes troglodytes*), ZOZOA (*Turdus merula*) eta txonta arrunta (*Fringilla coelebs*). Ugaztunen artean triku arrunta (*Erinaceus europaeus*), sator arrunta (*Talpa europaea*), basasagua (*Apodemus sylvaticus*) daude. Inguru hauetako harrapari nagusiak antzandobi arrunt txikia (*Lanius collurio*), belatz gorria (*Falco tinnunculus*), hontza zuria (*Tyto alba*), zapelatza (*Buteo buteo*), erbinudea (*Mustela nivalis*) eta azeria (*Vulpes vulpes*). Udaberrian izaten den intsektu ugaritasunak, udako zelaietako hazi ugaritasunak eta udazkenean zuhaitzi eta palaxueek ematen dituzten ale eta fruituek, beren biztanleen elikagaia bakarrik ez baizik baita migraziozko zenbait hegaztiren eta landazabalean negua igarotzen duten beste batzuen ere ziurtatzen dute.

Palaxu bizidunak

Palaxu bizidunak lurzatien mugak finkatzen dituzten altuera txikiko landaretza trinkoen multzo linealak dira. Hauetan espezie desberdinak aurki ditzakegu: haritz kanduduna (*Quercus robur*) eta lizarra (*Fraxinus excelsior*), erramua (*Laurus nobilis*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*), txorbeltz karraskila (*Rhamnus alaternus*), arrosa eta sasia (*Rosa spp.*), basoetako atxaparra (*Lonicera periclymenum*) edo aihez zuria (*Clematis vitalba*). Palaxuen garrantzia ez dator jadanik oso gizatarturik dagoen ingurune flora eta faunaren erreserba gisa duen zereginetik bakarrik: nekazaritza tradizionala ere bertan bizi den faunaz laboratzen da, izurri arriskua kontrolatzen duten intsektiboreez batez ere. Gainera haizearekiko babesa nahiz itzala ematen dute, lurrari ura atxikitzen laguntzen diote, izozteak saihesten dituzte, etab. Baina hala ere, ekoizpen intentsibozko irizpide berriak direla eta, batzuentzat oztupoaz gain izurri nahiz gaixotasunen izkutaleku besterik ez direnez, gero eta urriagoak dira.



LUZERA: 5.2 km.


IRAUPENA: 2 ordu



KONTUAN IZATEKOAK

Igoingo mendibizkar-zona oso ibilbide zaila da, beraz mendian nolabaiteko praktika eta esperientzia izan behar da bertara igotzeko. Eskalada egiten ez bada ere ibilbideak oztopo asko ditu eta ez dago jarrai daitekeen bidezidorrik. Mendiko bota altuak eramatea gomendatzen da. Mendibizkarrera igo nahi ez bada Landarbasoko mendihagealetik bira amaituz egin daiteke ibilbidea, proposatzen den beste aukerara azaltzen den bezala. Dena den, bero egiten duen egunetan ur-kantimplora bat eramatea gomendatzen dugu.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Listorretako udal-parkea.

EZAUGARRIAK

Ibilbide hau nagusiki Landarbaso inguruan zabaltzen da, Donostiako lurretan beraz. Hala ere, Listorreta parkearekiko hurbiltasuna kontuan izanik eta bertatik dugun Errenteriako iparralde guztiaren ikuspegia ederra denez, hau ere aztertu egingo dugu. Gutxieneko entrenamendu duen edozein mendizalerentzat ibilaldi polita izan daiteke mendibizkarrera igotzea. Gutxiago prestatuta daudentzat ibilbidea erraztuko duen beste aukera bat ematen dugu.

AUKERAK

Mendibizkarrerako igoera zail xamarra izan daitekeenez, Igoingo zona altuena iristen ez bada ere mendibizkarronatik izan dezakegunaren antzeko ikuspegi ederra dugu bertatik. Hara iristeko Igoingo lepoan (2,9 km) ibilbide nagusia utzi eta beste isurialdera joanez burdinsarea gainditzen da. Ondoren eskuinean mendi-hegala zeharkatzen duten pistetatik altuena hartu eta hau jarraituko dugu. Pista hau hasieran pixkat igotzen bada ere, ondoren laua bihurtzen da eta azkenean 4 edo 5 pago handik osatzen duten multzorantz jaisten hasten da. Hemendik aurrera jaitsiera gero eta gogorragoa egiten da enborrentzako pista batean zehar eta hormigoizko bideraino garamatza. Hau jarraitzen badugu Listorretara iritsiko gara. Igoinera mendibizkarra egin gabe ere igo daiteke mendizaleek erabili ohi duten ibilbidea eginez. Bidekrutzetako lepotik (2,2 km) eskuinetara igotzen den pista hartzen da. Beti ere bide-adar altuena aukeratuz eta interflubiora arian-arian hurbiltzen saiatuz, gora egingo dugu. Nahiko neketsuak diren azken metroetan bidezidorraren arrastoak oraindik ere ikus daitezke. Mendibizkarrera iristen garenean gailurra ezkerrean metro gutxitara geratuko zaigu.

0,0 km Listorretako Udal Parkea. Errepidearen bukaera aldean, eskuinetara jaisten den hormigoizko pista bat dago.

0,5 km Landarbaso erreka zeharkatzen da, ura kloraizeko estazioaren parean. Orain dela urte gutxi arte zentral hidroelektriko bat zegoen zen tokian pistak bihurtzeko bat egiten du. Hormigoizko neketsuan jarraitu beharrean erreka-erretatik igotzen den bidea hartuko dugu.

0,8 km Kobako Zabala, zaborrik ez dagoenean idilkoa izatera iritsi daiteke toki hau. Eskuineko lurrezko pista ezkerrean beti gorantz jarraitu beharko dugun hormigoizko bidera eramango gaitu. Ezkerretara eta gorantz honi jarraitu

1,5 km Larraz baserria. Pistak aurrera eramango gaitu, eta Urdanetako aurrietatik igaro ondoren

2,2 km Bidekrutzetako lepora helduko gara. Hemen eskuinetara dagoen lurrezko pista hartuko dugu.

2,8 km Bidegurutzeta. Eskuinetara jo behar da pista zahar batetik

2,9 km Igoingo leporaino igotzeko. Bertan behar bezala babestutako trikuharri bat aurkitzen dugu. Lepo honetan, ondoren jarraitu beharreko ibilbidea aukeratuko dugu (ikus mendian esperientzia handirik ez dutenentzat proposaturiko aukera). Igoingo gailurrera joateko mendibizkarraren lerro bera hartu behar da eta bloke eta harrizarren artean eskuinean lagunduz eskaladatxo erraz eta laburrak eginez pixkanaka altuera lortuko dugu. Basoan sartzen garenean bapatean agertuko da

3,4 km Igoingo gailurra, metalezko uso bitxi batek dotoretua. Ibilbideak mendibizkar-lerroan zehar jarraitzen du eta orain errazagoa egiten da, bidezidorraren arrasto batzuk aurkitzen ditugularik. Jarraian dauden gainez-gain jaitsi eta beti hegiak gidatzen gaitularik, perspektiba berriak irabaziko ditugu.

4,2 km Aizpitarako haitzuloen gaineko balkoi zoragarria. Hemendik aurrera gure ezkerreko pixkanaka jaisten hasiko gara larre eta garoetatik, biderik gabe.

4,4 km Urandela. Hemendik, zelaiak zeharkatuz, hormigoizko pistaraino jaisten da. Hau ezkerretara jarraitu besterik ez dugu eta erreka zeharkatzerakoan ibilaldiaren azken puntura iritsiko gara.

5,2 km Listorreta, ibilbidearen amaiera.

LOTURAK

Bidekrutzeta lepotik Malbazarrera iristeko aukera badago, oso ondo definitua eta balizarik gabe dagoen bide bati esker. Horretarako urak banantzen dituen lerroak osatzen duen pista jarraitu behar da. Hau gaitzen denean, urki baten alboan dagoen aldapa gogorren hasieran, Hernani, Donostia eta Errenteriako Udal-mugapeek bat egiten duten gunea adierazten duen mugarria dago. Hemen hasten da suebaki batera garamatza bidezidorra. Hortik aurrera jarraituz bidezidor batek Malbazarrera eramango gaitu.

Listorreta eta Barregoloiaoko Parkea. Udal jabetzakoa den parke hau 1972an zabaldu zen eta Erretereriako nahiz eskualde osoko biztanleek oso gustoko duten tokia da. Azken urteetan gertatu den masifikazioak zabor arazok, zelaien narriadura, etab. eragin ditu.

Zentral elektrikoa. 1990. urte inguruan eraitsi zen eta bihurtu honetan kokaturik zegoen. Artikutzako urek turbina mugitzeko gaintitu behar duten desnibela aprobetxatzen zuen. Orain dela urte batzuk, zentral hau Andoain bezalako herri bat elektrizitatez hornitzeko gai zela zioen harrotasunez bere zaintzaileak. Gaur egun berriz heziketa gabeko pertsona ugari ibilgailuak garbitzeko erabiltzen du toki hau.

Astabizkar eta Lexon Errota baserriak. Lehenengoan jendea bizi da eta hauek, beste gauza batzuen artean, txakolina egiten dute. Lexon Errota berriz hutsik eta aurritan dago eta bere garaian errota izan zen. Errota bera zena Erretererian zegoen eta etxebizitza berriz Landarbason.

Landarbasoko enklabea. Donostiako lurretan dago kokatua. Bere garaian eskubide bereziak izan zituen elkarte bat izan zen; baserriak kontribuzioa ordaintzetik salbuetsita zeuden eta gizonezkoek ez zuten soldaduzka egiteko obligaziorik. Gaur egun baserrietako jende askok alde egin duenez enklabea ia hutsik geratu da. Mendearen hasieran 12 familia bizi ziren bertan eta hauek Erretereriako parrokiakoak ziren (Landarbason ez da inoiz elizarik edo ermitarik izan). 1990ean 4 familia bakarrik geratzen ziren eta hauek Astigarraigako parrokiaren betetzen zituzten beren zeregin erlijiosoak. Aurriak bazter guztietan aurki daitezke gaur egun: Izenerder Goikoa (1956an hutsik geratu zen eta gaur egun nekazalturismorako berreraikitzen ari dira), Auzokalte (lan-

detxe gisa berreraikitzen ari direna), Bentaxuri, Urdaneta, Larrazpuru, Lexon Errota, Zentrala, ...

Bidekrutzetako lepoa. Urumea eta Oarso haranen arteko igarobide garrantzitsua da eta bertara pista batek hautsi duen galtzada bat iristen zen. Igoierantz goazela lepoa baino metro batzuk gorago Bentaxuriren arrastoak geratzen dira oraindik. Aterpe, erromeri-gune eta merkataritza-transakzio leku izan zen bentaren kokagune izan zen hau. Gauzak asko aldatu dira orduetik.

Igoingo Lepoko Trikuharriak. J.M Barandiaran jaunak aurkitu zituen 1928an. Lepo berean beste trikuharri bat (Neolitikoko hilobi-monumentua) aurkitzen da eta hau behar bezala zutoinez babestua dago. Mendibizkar-lerroa Igoien aurkako norabidean jarraituz beste trikuharri bat aurkitzen dugu. Igoien NW mendi-hegal guztian zazpi trikuharri gehiago daude, hauetako asko oso narriatuak egonik eta oteak estaltzen dituzenez, aurkitzeko zailak badira ere.

Landarbasoko Astabizkar baserria. Ere mu berezi honetan geratzen den baserri gutxienetako bat.



Igoineko mendi-bizkarra. Paisaiaren aldetik balore handiko hegia bainan paseatzeko zaila den lekua.

Igoingo gailurreria. Bertan triasikoetako konglomeratuekin harearri ugari eta buztinak ikus daitezke. Hauen gainean eta beren gune lehunenak aprobetxatuz, eragile atmosferikoek haitz-multzo handi hau blokeetan hautsi dute. Batzuk mendi-hegaletan behera erori dira eta beste batzuek berriz gailurreriaren erliebe nahastua osatu dute.


Otalur atlantikoa

Haritz, pago eta konifera landaketak moztu diren eremuetan otalurra edo Txilardi-Otadi-Iraleku deituriko sastrakadimota sortzen da. Aurkitzen ditugun espezieetako batzuk otea (*Ulex eusopaeus*, *Ulex gallii*), iratze arruntza (*Pteridium aquilinum*), ainarra purpura (*Erica cinerea*), ainarra burusoila (*Erica vagans*), txilar

arrunta (*Calluna vulgaris*), *Daboecia cantabrica*, *Lithodora prostata*, etab. dira. Otalurreko fauna ez da oso ugaria ez baitago honen aterre izango den zuhaitz-estaturik. Ez du espezie ezaugarririk, pitxartxar burubeltzaren salbuespenarekin (*Saxicola torquata*). Espezie gehienak inguru-mota guztietan aurkitzen ditugunak dira (espezie ubikistak). Oso handia izatera iritsi daitekeen otea nagusitzen da gehinbat eta honek, antzinako basoa berreskuratzeo aukera eskaintzen duen ongi garatutako lurra dela adierazten digu. Baina otalurrak, abereen etzalekua egiteko eta larretarako erabili ahal izateko sarritan erretzen direnez zarritan ez da egoera hau suertatzen eta iratzea nagusitzen da. Bestalde, txilar gehiago badago, honek lurraren pobrezia adierazten duenez jatorrizko basoa berreskuratzea zaila izango da.

Aitzbitarteko indusketak

Indusketa hauek 1892an hasi zituen Modesto del Valle jaunak Aitzbitarte IV haitzuloan. Hau, Euskal Herrian ezagutu zen lehen hobi paleolitikoa izan zen. Bere aurkitzaileak pikotx eta aitzurrez hornituriko langileak kontratatu zituen indusketa baino gehiago hobi bihurtu zen hau eraberritu nahian. Eraberritze-lan hauek zaletasun handiko baina prestakuntza urriko beste eruditu batzuek jarraitu zituzten; hobia oso egoera txarrean geratu zen eta lortutako materialak ezin izan ziren kultura edo kronologia jakin batean kokatu, benetakoa balioa ematen diena hauxe bada ere. Gaur egun, lan geldo eta zorrotza eginez, silex, hezur eta beste materialetako aztarna guztiak jasotzen dira eta topografiatzko tekniken bidez hauek espazioan zuten tokia jakiten da. 1960an J.M. Barandiaranek Aitzbitarte IV haitzuloan indusketak hastea erabaki zuen eta hauek 4 urte iraun zuten. Hauek, aurrekoak ez bezala, irizpide zientifikoak jarraituz burutu ziren. Lortu nahi zutena ez zen hobia aztertzea bakarrik baizik baita aspaldian zebiltzan bisitariak oroirgari bat aurkitu nahian historiaurreko biltegietan burutzen ari ziren eta hobia oraindik gehiago narriatzen zuen espoliazioa amaitaraztea. Gaur egun 1985ean hasi ziren indusketak burutzen ari dira Aitzbitarte III haitzuloan. Orain arte, duela 24.000 urte inguru kokatzen den Perigord aldiko kultura ez oso ezaguneko hobi garrantzitsu bat aurkitu da. Oraindik legeak zigortzen duen izkutuko iharduerak jarraitzen duenez Aitzbitarte III haitzuloaren sarreran burdinsare bat ezarri behar izan da baina hala ere hau urtero bortxatua izaten da. Zorionez, eraso hauen ondoren hobiak ez du kalte handirik jasan.



Otalurra eta bertan sortzen den otea (*Ulex europaeus*)espezie bereziaren xehetasuna.

1961. urtean Aitzbitarte IV kobazuloan egindako indusketak. Bertan, Jose Migel Barandiaran eta Jesus Altuna, gaur egungo Aitzbitarte III.aren indusketaren zuzendaria, azaltzen dira.





LUZERA: 4.5 km.

IRAUPENA: ordu 1, 15'

ZAILTASUNA




KONTUAN IZATEKOAK

Ibilbide hau oso erraza da eta arazo gehien sor dezakeen zatia Malbazarreko pistatik Landarbasoko errekaetara jaisten dena da. Euri asko egiten duen garaian haranaren hondoan lasai ibili ahal izateko uretarako botak eramatea gomendatzen da. Zati txiki bat oso malkartsua da eta hemen mendian ibiltzen jakitea komeni da. Euri-garaian, uretan ibiltzeko egokiak diren oinetakoak erabili behar dira, zubirik gabeko errekaetara zeharkatu behar baita.

INTERESA

	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Listorretako udal-parkea.

EZAUGARRIAK

Malbazarreko pistatik igo eta askotan masifikaturik egoten den Listorretaren inguruko eremu ezezagunetik itzultzen den ibilbide erraza eta lasaia da. Hemen, haltzadi baten arrastoak dituen uharre zoragarri baten ertzetik jaisten ari garen bitartean, Landarbasoko haitzulo ospetsuen sarrera ikus dezakegu.

AUKERAK

Bapurrutatik (2,4 km) pista jarraitu eta oso nabarmena ez den bidezidor batek itzulo igoz, Igoingo mendilerrotxo eta Aldura-Malbazarrekoa lotzen dituen mendibizkar-lerrora (balizarik gabeko ibilbidea) iristea aukera daiteke. Ondoren eskuinetara joanez, gailurrerian zehar Bidekrutzetako lepora iritsiko gara (5. ibilaldia) eta hemendik, bertara igotzen den pista hartuz, Listorretara itzuli edo Igoinera igotzea aukera daiteke.

LOTURAK

Aurrez aipatutako aukerak eginez gero 5. ibilbidearekin lotu eta Igoinera igo nahiz bere NW aldean zeharkatu daiteke. Gainera, 6. ibilaldia Listorreta-Malbazar zonan hasten den edozein ibilbiderekin lotu daiteke, honela Aldura, Añarbe edo Urdaburun zehar geure ibilbide propioa sortuko dugu (ikus 7, 8, 9 eta 10 ibilbideak).



Daboecia cantabrica,
bide ertzetan ugaritzen
den txilarra.

0,0 km Perurenako gainatik datorren errepidearen bukaera. Malbazarreko igotzen den pista zehar ibiltzen hasi albo batean dagoen bidezidor bat probetxatuz bihurtzeko. Berrirori pista itzuliko gara eta eskuinetara berrirori ere bidea laburtzea eta ibilgailuetatik ihes egitea ahalmentzen digun bidezidorra hartuko dugu. Bidea baso misto batean zehar igotzen da eta berrirori ere

0,6 km Malbazarreko pista azaltzen da. Bertatik igotzen jarraitu.

0,7 km Aitzbitarteko lepoa eta bidegurutzetara. Bi pista hauek toki berera eramango gaituzte, beraz bietako edozein har daiteke. Hobena ezkerrekoa da, ibilgailu gutxi dagoelako.

1,0 km Susperregi taberna. Aurrera jarraitu.

1,3 km Idoiagako lepoa. Gorantz doan pista jarraitu eta

1,8 km Talaiako iturria igaro ondoren, eskuinetara pistaren beso bat abiatzen da. Hau hartuz Malbazarreko pista utzi. Orain pinudi lau bat zeharkatuko dugu.

2,4 km Bapurruta. Lau xamarra den zona honetan pistak bihurtzeko zabala egiten du ezkerreko aldean. Gune honetan bidea utzi eta bapatean altuera galten duen eskuineko bidezidorretik jaitsiko gara. Txondor zahar batek aldapa gogorrean atsedean hartzeko aukera emango digu.

2,7 km Haranaren hondora iritsi gara, Artikutzako kanal eroalean zehar jarraituz, kanala kontrolatzeko dagoen etxetxo batera iritsiko gara eta zubitxo zeharkatuko dugu.

3,1 km Aurrexeago joanda beste etxetxo bat dago eta bertan ura sifonatzeko da harana zeharkatzeko. Gune honetan bidezidor bat hartuko dugu

3,3 km Landarbaso errekaaren hondora jaisteko, Errenteria eta Donostia arteko muga. Erosoena den bidea bere eskuinetik doa baina honez gain, nahi izanez gero, bertan dauden bidezidorretatik ere joan gaitzake. Hauetako edozeinek

3,7 km Kobako Zabalara eramango gaitu, errekaostaren ertzean kokatutako soil txiki bat da. Honera ailegatu baino lehen bidearen eskuinetara bi karela, nahiko honatuak, ikus ditzakegu. Errekan behera goazela, eskuinetara eta gure gainean Aitzbitarteko haitzuloen aho desberdinak ikus daitezke, Kukuzulo edo Landarbaso izenez ere ezagutzen direnak. Geratzen diren bide zaharren zatiak aprobetxatuz, erreka bazterretik,

4,0 km hormigoizko pista azalduko gara. Eskuinetik jarraituz eta porlaneko pista gora joanez

4,5 km Listorretako atsedean lekura iritsiko gara, gure txangoaren bukaera.

Lapiaz. Susperregi eta Malbazarrera garamatzaten pistan nahiz bidean gora goazela lapaiz formako kararri-azalera-penak aurkitzen ditugu. Kare-lurretan gertatzen den kanpo-eragileen disoluzioaren ondorioz eta batez ere euri-uraren eraginez gorabehera handiko erliebe gogor eta berezi hau sortzen da. Beheko zonetan landarediak garatzeko giro egokia aurkitzen du eta lurra estaltzean lapiaza estalia edo erdi-estalia geratzen da. Honen gainean, haritz kanduduna (*Quercus robur*), lizarraren zenbait espezie (*Fraxinus excelsior*), hurritza (*Corylus avellana*), astigarra (*Acer campestre*), elorri zuria (*Crateagus monogyne*) eta haginak (*Taxus baccata*) osaturiko baso mistoa sortu da.

Pinudiko txondorrak. Konifera-landaketaren erdian ikatza egiteko plataformaren arrastoak ikus daitezke oraindik.

Karelabea. Kobako Txabaletik hurbilean nahiko egoera txarrean gordetzen diren bi karetoxi ikus ditzakegu. Hauek kararritik karea lortzeko erabiltzen ziren, ongarrri kimikorik ez baitzegoen garai hartan. Hauetatik ateratzen zen karea lur eta zelaia ongarrizatzeko erabiltzen zen eta horretarako egurra errez kararria asko berotzen zen, gutxi gorabehera aste betez. Harria prozesu honen bidez aldatu eta guztiz hausten zen eta hozten zenean ongarrri gisa erabil zitekeen. Euskal Herri atlantiarreko lurrak nutriente eta oligoelementotan pobreak direnez eta euri ugariak eragiten duten garbiketa-prozesu jarraien ondorioz azidifikazio joera duenez, emankortasuna galtzen joaten dira eta ondorioz ongarriztea beharrezkoa dela kontuan izan beharra dago. Azidifikazioa eta mineralen gabezia aipatutako ongarrri-sistemaren bidez konpontzen zen lehen eta horregatik dago Euskal Herri osoan hainbeste kare-labe.

Haitzuloetako fauna Aitzbitarten

Aitzbitarten intsektu-kontsumitzaile amorratuak diren saguzar mota asko aurki daitezke, hauen artean *Myotis myotis*, *Rhinolophus euriale* eta *Rhinolophus ferrumequinum*. Gaur egun, beren aterpe eta negutoki ziren haitzuloetan ibiltzen diren bisitari ugarietasunak eraginda gehienak desagertu egin dira. Baina ez dira saguzarrak bakarrik han bizi direnak; lurrazpian, zuloguneetara iristen diren ekarpen organiko urriei, ilunpe osoan bizi den bakteriazko florari eta harrapaketari esker elikatzen den orno-gabe txiki ugari bizi da. Elikagai gutxi dituen inguru heze eta ilun honetan, haitzuloetako animaliek egokitzapen bixiak garatu dituzte, adibidez, pigmenta-




Landarbasoko erreka, Donostia eta Errenteriako muga. Honen ertzetan kokatu zen haitzadiaren lekukoak diraute oraindik

Landarbaso edo Aitzbitarteko haitzuloak, Kukuruzulo bezala ezagutzen direnak ere. Jendetza izugarri sartzen diren barrunbe hauetan haitzulo fauna aberatsa eta aztarnategi arkeologiko garrantzitsua gordetzen dira.

zio edo ikus-organo gabezia, metabolismo oso baxua nahiz mugitzeko appendizeen eta ukimen-organoen eta organo kimiorrezeptoreen garapen izugarria. Haitzuloetako biztanleak fosil bizidunak direla esan daiteke, tertziarioan Europan bizi izan zen antzinako fauna tropikal eta subtropikalaren arrastoak baitira. Aitzbitarten bizi diren espezieen artean azpi-

marragarria da lehenengo aldiz haitzulo hauetan aurkitu zen *Lithobius multidentis* deituriko ehunzangoa. Harrezgero Gipuzkoa eta Nafarroako beste haitzulo batzuetan ere aurkitu izan da. Gauza bera gertatu zen hirurkakalardoko txikirekin *Trechus fulvus vasconicus*, *Pristonychus terricola reichenbachii* eta *Bathysciola schlodtei breuili*. Euskal Herrian bakarrik aurkitzen diren espezieak dira hauek, iparraldeko zenbait haitzulotan bakarrik bizi baitira. Beste kakalardo mota arraro bat *Ceuthosphodrus vasconicus* deiturikoa da, Aitzbitarten bakarrik aurkitu dena. Errenteriakoa bakarrik den espeziea da beraz hau (munduan bakarra) eta ondorioz aurrez aipaturikoekin batera beren ingurua aldatu gabe babestu behar dena.



Haitzuloetako faunaren hainbat ale. Goitik behera: Campodea sp., Lepismachilis sp., Bathynella natans (goitik eta alde batetik) eta Parastenocaris. Gipuzkoako koba eta leizetan aurkitzen dira espezie guzti hauek. Parastenocaris-a, zehazki, Aitzbitarten bildu da.

(Carlos Galánen irudiak)

Haltzadia

Haltzadia bi faktorek definitzen duten ingurunea da; bata uraren presentzia, eta bestea beti istilduta dagoen lurzoruari egokitzeko zaio zuhaitz-mota: haltza (*Alnus glutinosa*). Presio antropikoaren eraginez, gaur egun haranaren hondotan geratzen diren haltzadiak zuhaitzlerroak besterik ez dira. Goialdean, haran itxietan haltzadi eta baso mistoen nahasketa nagusitzen da. Haltzaren inguruetan lizarrak (*Fraxinus excelsior*) eta haritz kanduduna (*Quercus robur*), hurritza (*Corylus avellana*), sahats iluna (*Salix atrocinerea*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), orkatxa (*Hypericum androsaemum*), etab. daude. Bertako fauna ingurune akuatikoari lotua dago. Ornogabe ugariaren artean ibai-amurraina (*Salmo trutta fario*), suge biperakara (*Natrix maura*), ur-zozoa (*Cinclus cinclus*), buztanikara horia (*Motacilla cinerea*), ur-satitsu hankazuria (*Neomys fodiens*) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*) nahiz errunaldietarako bertaraten diren anfibioak bizi dira. Haltzaren zura urazpian egindako obretarako erabili izan du gizakiak, hau ez baita uretan usteltzen. Azkenaldi honetan, landare-diaren bidez uraldietako uraren indarra gutxitzen languntzen badute ere ibai nagusien inguruetakoa haltzadien arrastoak galtzen ari dira egindako zenbait kanalizazio indiskriminaturen ondorioz. Hauek, uraren indarra gutxitzen garrantzia duten meandro naturalak ezabatzen dituzte.



LUZERA: 6.2 km.

IRAUPENA: 2 ordu


ZAILTASUNA



KONTUAN IZATEKOAK

Arrisku aipagarririk gabeko ibilbide erraza. Alduratik Susperregira jaisteko dagoen aldapa gogorrarekin kontuz ordea. Arreta izan elurzuloaren barnera begiratzerakoan.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Idoiagako lepoa. Perurenako gainetik Listorretara doan errepidetik iristen da bertara. Han gaudela Malbazarrera igo ondoren Idoiagako lepora igo. Bertan Susperregi izeneko taberna berria kokatzen da.

EZAUGARRIAK

Aldura pinudiz inguratua dago baina bere gailurrean zuhaitzik ez dagoenez Gipuzkoaren ekialdeko kostaldearen ikuspegi ezinobea eskaintzen zaigu bertatik. Nahiko erraza den ibilbide honetan nebera edo elurzuloen adibide bitxi bat aurki dezakegu, Errenteriako bakarra.

AUKERAK

Yantziko Zabalatik besterik gabe zuzenean igotzen den aldapako pista jarraituz Yantziko gailurrera igotzea aukeratu daiteke. 10 minutu nahikoak dira gailurrera iristeko eta zuhaitzik ez dagoenez paisaia ezinobea izango dugu bertatik. Toki beretik itzuliz lepoan ibilbidearen deskribapenarekin lotu dezakegu. Norbaitentzat Pertselera eta Aldurara igotzea gehiegizkoa bada, mendibizkar hau inguratzea aukeratu dezake. Horretarako, Yantziko Zabaleko lepoan (4,1 km) pagadian barneratzen den pista jarraitu behar da. Arazorik gabe bi erre-kasto zeharkatu ondoren (hauetako batean uhaska txiki bat ikusiko dugu: Dontzella iturria, 4,8 km) Aldura baserri-ira iritsiko gara (5,4 km). Aurreraxeago joan eta bira ia osoa emanaz Alduraren NW alde malkartsuaren erdialdean igarotzen den pista hartu beharko da suebakira iritsi arte (6,3 km). Hau gailurretik jaisten da eta ibilbide nagusia bertatik igarotzen da. Hemen, eskuinetara jo eta aldapa gogorrean zehar jaitsiko gara Idoiagako lepora iristeko (6,8 km).

LOTURAK

10. ibilbidearekin lotu daiteke ibilbide berean Urdaburu eta Aldurara igotzeko. Bestalde 8. ibilbidearekin ere lotu daiteke, lehendabizi Añarbera jaitsi eta ondoren itzultzean Aldurara igoz. Ezpalaurriko lepoan pista nagusia ekialderantz jarraituz Iruibitako lepora iristen gara. Han gaudela aurrean dugun suebakian zehar igoz edo eskuinean dagoen pista igoz Otraitzeko lepora iritsiko gara. Bertan Zariara igotzen den 11. ibilbidearekin lotu ahal izango dugu.

0,0 km Idoiagako lepotik abiatuz, Malbazarreko pistan zehar igoko gara.

0,5 km Talaia errekastora doan iturria.

0,7 km Pistaren ezkerretara dagoen iturria. Udaran agortu egiten da.

1,0 km Malbazarreko lepoa. Eguraldi txarra eginez gero aterpea emango digun txabola eta mahaiaik daude bertan. Ia 180ºko bira eginez txabola honen ondotik igarotzen den pistan ezkerretara jarraitu.

1,6 km Pisten bidegurutzeta. Pista nagusian aurrera jarraitu eta eskuinera jo.

2,3 km Burkondoko txabola, begiratoki egokia da. Pista jarraituz gero galtzeko arriskurik ez dago.

3,0 km Pistaren eskuinetara dagoen bihurtune. Aurrera jarraitzen badugu suebakian zehar bidea laburtu edo erosoago ibiltzeko pista jarraitu dezakegu.

3,2 km Pagadian dagoen Ezpalaurriko txabola eta lepoa. Mendi-hegalaren erditik igarotzen den eta Argiñuzta errekastoa zeharkatzen duen pista ezkerretara hartuz

4,1 km Yantziko Zabala edo Yantzisoroko lepora iritsiko gara. Aldurara igotzeko ezkerretara dagoen aldapa gogorra hartzen da -Elurzuloko Malda- ezkerretara pinudia eta eskuinetara pagadia utziz.

4,4 km Eskuinean, pagadiaren ertzean, Aldurako elurzuloa ikus dezakegu. Gurtarrastoak jarraituz, gainaldea inguratu eta Pertselera gailur hurbilaren magalean pista utziz eta ezkerretara aldapa labur baina gogorra igoz

4,9 km Pertselera gailurra lortuko dugu, ikuspegi eder-rra eskainiko digun gailurra hain zuzen. Eskuinetara jarraituz hurbil dagoen lepora jaitsiko gara. Aurrez bidearen eskuinean mugarririk aurkituko dugu. Lepora iritsi ondoren pinudia zeharkatuz ondorengo puntura igotzeko zeharkatu beharko dugun pista aurkituko dugu.

5,4 km Aldurako Gaña. Mendizaleen buzoia dago gailurrean eta Pertselen bezala bertatik ikuspegi ezinobea izango dugu. Mendibizkarra jarraituz suebakian zehar jaitsi eta pista bat zeharkatu ondoren aldapa gogorra jaitsiz iritsiko gara

6,2 km Idoiagako lepora, ibilaldiaren hasiera eta amaiera.

Burkondo eta Ezpalaurreko Bordak. Udalaren jabetzakoak dira eta ekaitzak harrapatzen dituenentzat aterpe egokiak dira. Hauek errespetatzea denoi dagokigu eta guztion onerako izango da.

Yantziko Zabala eta Yantziko Kortarrria. Aldura eta Yantzi artean dago toki hau. Lepoaren erdian kortarrria ikus dezaketu, garai batean artzaintzarako zen lur-mota baten mugak finkatzen zituen harria.

Aldurako Elurzuloa. Aho borobila eta 12 metroko sakonera du. Urutako elurra hustutzeko tunelaren irteera gaur egun itxita dagoela ikus daiteke. Tuneletik ateratako lurrarekin sortu zen zakartegian pago bat hazi dela ere ikus daiteke bertan.

Erpin geodesikoa. Pertseleko gailurrean, oinarri zilindriko zabalago baten gainean beste hormigoizko zilindro bat dago. Batzuek abiaziorako seinalea dela esan izan dute baina kartografia egiteko erabiltzen den ikur topografikoa besterik ez da.

Pertsele eta Aldurako gailur lauak. Aldura eta Pertseleko gailurren lautasunak beren isurialde malkartsuekin kontraste handia egiten du. Erliebe-mota hau, "gailur lauuko muinoa" deiturikoa, itsasalde osoan agertzen den ezaugarria da. Forma hauen jatorria sare-hidrografikoak gainaldeak "errespetatuz" eta ganbil-formako isurialdeak eraginez osatzen dituen haran estuetan dago.

Alduraren Ipar aldeko pagadia. Alduraren Iparraldeko aurpegian, orientazio egokia eta erreka-guneak eskaintzen dion kokagunea aprobetxatzen dituen pagadia zabaltzen da.

Moto-krosa. Batzuek kirol deitzen duten ariketa-mota hau asko egiten da Landarbaso, Aldura eta Urdao inguruetan. Motoak pistetan zehar ibiltzen direnean txangolarientzat gogaikarri izateaz gain norbait kolpatzeko arriskua besterik ez dute eragiten. Mendiak zeharkatzeari ekiten diotenean erosio arazo handiak eragin eta antzinako bideak narriatzeaz gain, faunari kalte egin eta ke nahiz zarataz kutsatzen dute berez halakoan arrastorik ere ez duen zona hau.

*Aldurako gailurratik iparraldera
begiratzuz daukagun paisaia.
Behelalde gertuagoan, 4. ibilaldia
gainditzen duen Aldurako Lepoa.
Atzekaldean, Jaizkibekek gainartzen
duen kostaldeko depresioa.
Ezkerrean ikus daiteke Pasaiaiko
Boka, portuaren bokalea
hain zuzen.*



Ezpalaurreko borda.

Yantziko Zabalan dagoen kortarrria.





Aldurako elurzuloa edo nebera. Udalerriaren leku garaienetaren oinpean, gurdiz goitik behera elurra garraiatzeko noski, kokatzen dira eraikuntza hauek. Elurra elurzuloan sartu eta gero, oinez zapaltzen zen izotza bihurtzeko. Hau lan gogorra kondizio haietan: oinetako ez egokiekin, gaeuz eta hotz handiarekin gehienetan!.

Malbazerreko txabola elurtepean. Nahiz eta altuera handirik ez izan, nahiko arrunta dira neguko elurteak Errenteriako leku garai hauetan.



Elurzulo edo neberak.

Elurra izotz bihurtzeko eta gero bertan gordetzeko erabiltzen diren eraikuntzak dira. Zulatutako putzuak dira eta barne-rik harriz eginda eta sabai batez estalita egon daitezke izotza hobeto kontserbatzeko. Gipuzkoan iharduera hau XVII. mendean zabaldu zen. Izoztegi gehienak Udalen jabetzakoak ziren eta alokatzen ziren. Lana, elurzuloaren hondoan ezartzeko otea eta hostoak biltzen hasten zen. Horien gainean elurra jartzen zen eta hondoan jarritako materialak belaki funtzioa betetzen zuen. Elurra zapaltzerakoan (oinekin egiten zen lana) ura galtzen zuenez hau izotz bihurtzen zen. Honela izotz geruza desberdinak egiten ziren eta hauen artean belarra jartzen zen hotza hobeto gordetzeko. Negua igarotakoan barretan zati-tzen zen izotza ateratzen hasten ziren. Hauek zurrupaki eta limoi-edariak egiteko nahiz elikagaiak kontserbatzeko erabiltzen zen eta gaixotasun desberdinak sendatzeko erabilera terapeutikoa ematen zitzaien.

Euskal Herri atlantiarreko basoak XX. mendean

Aurreko mendeko desamortizazio legeek, mende-aldaketan gaztainondoek nahiz haritzek jasandako gaixotasunekin batera basoen nariadura garrantzitsua eragin zuten eta hauek desagertuko zirela pentsatzera ere iritsi ziren. Zuhaitzez estalitako udal-lurrak pribatuei saltzean zuhaitzak moztu, saldu eta landutako lur edo larre bihurtu ziren. Mendearen hasieran Aldundietako Basoetako Zerbitzuak sortu ziren eta hauen zeregin garrantzitsuenetako bat, arroaren hasieran ura eutsi eta erosioa frenatzeko funtzioa zuten zuhaitzak ez galtzeko ahaleginak egitea izan zen. Bestalde zurezko untzigitza eta burdinolak desagertuak ziren jadanik. Zuraren merkataritza papergintzarekin erlazionatua zegoen orduan. Hau dela eta, sektore pribatuan, laster hazten ziren espezieekiko interesa piztu zen batez ere. 40ko hamarkadan, autarkia urteetan, papergintza sektorearen fibra luze-ko zuraren eskaria gehitu zitzaion gainera. Honen konponbidea, bi baldintzak betetzen zituen espezie batean aurkitu zuten: intsinis pinua (*Pinus radiata*). Urte horietan benetako "boom" a izan zuen eta Euskal Herri atlantiarrean larreak edo baso autoktonoak zirenak berriro zuhaitzez estali ziren. Intsinis pinuaren ondoren beste espezie exotiko batzuk iritsi ziren, hauetako gehienak koniferrak, adibidez pinu beltza (*Pinus nigra*), alertzea (*Larix* spp.) edo lawson altzifrea (*Chamaecyparis lawsoniana*) eta haritz amerikarra (*Quercus rubra*) nahiz eukalitua (*Eucalyptus* spp.) bezalako zenbait zuhaitz hostozabal.



LUZERA: 9.4 km.

IRAUPENA: 2 ordu 45'


ZAILTASUNA



KONTUAN IZATEKOAK

Ibilaldi erraz honetan, alde batetik gainditu beharreko desnibelak eta bestetik itzuleraren zati handiena aldapa gora dela izan behar da kontuan. Neguan, euri asko egiten duen garaian, Malbazar erreka-stoaren inguruko zatia ez da batere erosoa egiten gomazko bota egokiak jazten ez badira.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Idoiagako lepoa. Perurenako gainera doan errepidetik iristen da bertara. Han gaudela Malbazarreko igotzen den pista hartu eta oinez nahiz kotxez Idoiagako leporaino igoko gara, Susperregi taberna dagoen tokira.

EZAUGARRIAK

Añarbeko ibilbideak Erreenteriako Udal-mugapean dauden ederrenak dira. Toki bakartiak igaroko ditugu harizti eta pagadi artean. Bertatik Añarbeko urtegi bakarti eta misteriozua ere ikusi ahal izango dugu. Honi Malbazar erreka hondoan egin daitekeen ibilaldi polita gehitzen badiogu, zenbaitetan zailtasunak dituen txango originala egin ahal izango dugu.

AUKERAK

Belelepoko lepoan gaudela Añarberaino jaitsi ordez gorantz igotzen bagara ibilbidea laburtu ahal izango dugu. Interesgarria izan daitekeen beste ibilaldi bat Belelepoko lepotik gora 50 m inguru igoz eskuinetara ikus daitekeen pista zahar bat hartuz egin daiteke. Gehienbat laua den pista hau jarraituz Martindegi erreka zeharkatu eta Burkondo hegia gainditu ondoren beste erreka baten aurrean aurkitzen gara. Garañoren ertzetik joanez gero Malbazarretik Irubitarra doan pista nagusiarekin lotuko dugu Ezpalaurreko lepoaren ekialdera. Honelakoetan pista beretik edo 7. ibilbidea jarraituz bere edozein aukera baten bidez itzuli ahal izango gara.

LOTURAK

7. ibilbidearekin lotuz Aldurara igo ahal izango gara. Malbazar erreka gainera zubiaren (4,5 km) urtegiatik 9. ibilbidean proposaturiko beste sarbideetara iritsi eta hauetako edozeinen bidez Malbazarreko igo ahal izango gara.

0,0 km Idoiagako lepoan abiatuz Malbazarreko pista-igoko gara.

1,0 km Malbazarreko lepoa. Mahaiak, eserlekuak eta txabola bat daude bertan, aterpe beharra izango bagenu ere. Ezkerretara 180ºko bira egin eta pista jarraitu.

1,6 km Bidegurutzeara. Eskuinetara, pinudiar pista kaxkar bat jaisten hasten da. Metro gutxira bira osoa eman eta bide bihurtzen da eta pinuditik atera ondoren lepaka luze baten mendibizkar-lerroa hartzen du.

2,7 km Asentsoko Borda, paisaia ederra eskaintzen du eta eguraldi txarra egiten duenerako aterpe izan daiteke. Garbi ikusten den bidetik jaisten jarraitu.

3,5 km Belelepoko. Bertan linea elektrikoaren zutaina dago kokatua, Artikutzako ur-eroanbidea lepoaren azpitik metro batzuetara igarotzen da tunel baten bidez. Eskuinean dagoen bidea hartu ondoren ia zuzen jaisten den bidezidor malkartsua hartuko dugu.

3,9 km Haranaren hondoan Malbazar erreka igarotzen da. Uraren norabidea jarraituz eta ertzetan dauden erdi-estalitako bidezidorak aprobetxatuz ibaia behin eta berriz zeharkatuko dugu. Pixka bat aurrerago joanda Olin erreka eskuinetik lotzen zaio. Errekari jarraituz

4,5 km Añarbeko urtegiaren pista azalduko gara. Ezkerretarantz joko dugu urtegiaren ertzetik jarraituz.

5,2 km Ondorengo haranean sartu ondoren, ezkerretara desbiderapena dago. Bidegurutzeara ez galtzeko arreta handia jarri behar dugu. Hemen pista utzi eta bidezidor batean zehar igotzen hasiko gara.

5,4 km Artikutzako ur-eroanbidea. Aldapa labur baina gogorra igo eta ondoren kanal aldera joango gara

6,1 km Belelepoko iristeko. Hemendik igaro gara jadanik behar bidea egin dugunean. Gorako ibilbidea egiten badugu, Asentsoko hegitik joanez dagoen aldapa gogorra igo beharrik ez dugu izango. Horretarako, lepoaren ezkerretara jarraitu eta ur-eroanbidera hurbildu eta hau jarraituz arian-arian hurbilduko gara.

7,1 km Malbazar erreka ubidera. Hemen gaudenean zeharkatu eta pixkanaka igotzen den pista iritsiko gara. Honek, galtzeko arriskurik gabe,

8,5 km Malbazarreko txabolara eramango gaitu. Hemendik joaterakoan erabili den ibilbide bera egingo da

9,5 km Idoiagako lepora jaisteko, txango berezi honen amaiera.

Asentsoko Borda. Haize-gerizpean eta txukun konpondurik dago udalaren jabetzakoa den borda hau. Antzinan hostazabalez estalia egon zen lepoaren gainean otalur atlantiarra ezarri da. Ezkerretara, lurzatieta zuhaitzak moztu ondoren intsinis pinua nahiz alertzea landatuz Zariak jasan duen birpopulaketa sakona ikus dezakegu. Eskuinetara berriz Añarbeko hostozabalak ikuspegi ederra izango dugu.

Belelepo. Haritzia eta pagadia nagusitzen diren ingurua da. 600 metrotik gora pagadiak hariztiak baino ugariagoak badira ere, Añarbera doazen haran estuetan iparraldera jotzen duten mendi-hegalak pagadiz estalita daude eta hauek beren itzal ederra aprobetxatzen dute. Euskal Herri osoan Añarbera da altuera txikienean dagoen pagadia duena, zuhaitz hauek jadanik 200 metroko altueran bakarrik aurkitzen baitira hemen.

Artikutzako kanala. Eroanbidearen abiapuntua, Artikutza eta Añarbe urtegien bidez Donostia urez hornitzeko Añarbe ibaian egindako ur-hartuneetan dago. Artikutzatik ura garraiatzen duen kanal honen eraikuntza 1896an hasi zen.

Añarbeko hariztiak. Euskal Herriko baso gehienak moztu eta birpopulatu direnez harizti gehienek egoera oso onean aurkitzen ez diren zuhaitzi txiki eta sakabanatuez osatuta daude. Añarbeko hariztiak berriz nahiko zabalak dira eta egoera onean daude. Ondorioz ingurugiro-interes berezia hartzen du area honek.

Añarbeko pista. Urtegi gehienek dute pista bat, jagoletzako pista deitu ohi dena. Honek urtegia inguratzen du eta legediaren arabera urtegia eta honen artean zortasun zona detituak bat egongo da. Bertan zuhaitzak landatzea nahiz ezer eraikitzea debekatua dago. Honela uraren kalitatea murriztuko duen edozein ekintza saihesteko jagoletza ahalmenu nahi da.

Malbazar erreka. Errekastoaren ubidearen inguruko itzalak haritza pagoa baino ugariagoa izatea ahalbidetzen du. Errekastoaren inguruan uraren zipriztinez eta itzalpeaz baliatzen diren ondorengo landareak aurki ditzakegu: *Saxifraga hirsuta* eta *Chrysosplenium oppositifolli*.

Malbazarreko tunela. Malbazarrean igotzen hasi aurretik kanalean zehar zenbait metro jarraitzen badugu ur-eroanbidearen tunelaren sarrera ikusi ahal izango dugu. Malbazarreko lepoa 700 metroko luzera duen tunel baten bidez gainditzen da.



Asentsoko Borda. Leku atsegin batean kokatua eta udalak mantendutako mendizaleek erabiltzen duten babes txabola.

Kukulorea (Digitalis purpurea), kukuarekin batera udaberriari datorren lore galanta eta ugaria, Urdaburuko irudiarekin.





Ibilaldi honetan behin eta berriz gurutzatu beharko dugun Malbazar erreka.



Belelepon hariztia.



Muxarra (Glis glis) bere gau-ibiltzetan ezustean hartua. (J. Riolrioren argazkia)

Birpopulaketak. Malbazarreko igoeran zehar inguruan dagoen landaredia anitza eta bertan egin diren birpopulaketak (beheko aldean pagadiak eta goiko aldean harizti amerikarra) ikus ditzakegu.

Hariztia eta baso mistoa.

Garai batean Euskal Herriaren zona atlantiarrean 600 metro arte azalera zabalak betetzen zituzten hariztiak orain murriztu eta landaketa-lurrez ordezkatu dira. Bertan haritz kanduduna (*Quercus robur*) nagusitzen da. Hariztia oso trinkoa ez denez argia igarotzen uzten du eta ondorioz landare nahiz animalia espezie anitzez osaturiko oihanpea eratzen da azpian. Lurzoru azidoetan, oihanpeak oinarritzko lurzoruetan baino aniztasun gutxiago eskaintzen du eta bertan ondorengo espezieek osaturiko **baso mistoa** eratuko da: haritza eta lizarra (*Fraxinus excelsior*), zumar hostozabala (*Ulmus glabra*), hurritza (*Corylus avellana*), gaztainondoa (*Castanea sativa*), astigarra (*Acer campestre*), etab. Lur aberatsenetan kokatzen direnez, baso misto hauek izan dira giza-kiaren eragin handiena jasan dutenak. Añarbe bezalako lurzoru azidoetan honi egokituriko espezieak ere sartu dira, adibidez urkia (*Betula alba*), gaztainondoa (*Castanea sativa*), etab. Oihanpean berriz zumalakarra (*Frangula alnus*), ainarra burusoila (*Erica vagans*), iratze arrunta (*Pteridium aquilinum*), *Hypericum pulchrum*, ondoak (*Boletus* spp.), zizaoriak (*Cantharellus* spp.), etab. Gaur egun Euskal Herrian dauden harizti eta baso misto gehienak neurri handiko animaliak bertan bizitzea ahalbidetzen ez duten zuhaitziak dira. Beraz, beste espezie batzuen artean ondorengo animaliak aurkitzen ditugu: baso-igel gorria (*Rana temporaria*), suge gorbataduna (*Natrix natrix*), garrapoa (*Sitta europaea*), birgarro arrunta (*Turdus philomelos*), eskinoso (*Garrulus glandarius*), gailupa (*Pyrrhula pyrrhula*), urubia (*Strix aluco*) eta muxar grisa (*Glis glis*). Hegazti eta ugaztun asko, beren aterpe izango diren zuhaitz zaharren presentziaz baldintzatuak daude. Ondorioz harizti gazteetan espezie ubikistak aurkitzen dira. Haritzaren zura oso garestia da (bere prezioa intxaurrondoarenak bakarrik gaintzen du) eta oso geldo hazten denez oso errentagarritasun baxua du. Diru aldetik batere errentagarria ez den baso-ustiapena du espezie honek. Gutxienez 150 urte behar dira 30 cm. baino gehiagoko diametroa duen haritza lortzeko. Egurikatza lortzeko erabiltzeaz gain joan den mendeko utzigintzaren oinarritzko elementua izan zen.



LUZERA: 12.6 km.


IRAUPENA: 3 ordu 30'

ZAILTASUNA

KONTUAN IZATEKOAK

Lainoa dela eta bisibiltate gutxi dagoen egunetan pagaduan galtzea erraza denez kontuz ibili. Arriskutsua izateaz gain Añarbeko Urtegian bainatzea debekatuta dago. Intxixu errekatik Elkitaiko lepora (7,5 km-tik 8,5 km-ra) igotzerakoan arretrez ibili bidea ez galtzeko.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Idoiagako lepoa. Perurenako gainera doan errepidetik iristen da bertara. Han gaudela Malbazzarrera igotzen den pista hartu eta oinez nahiz kotxez Idoiagako leporaino igoko gara, Susperregi taberna dagoen tokira.

EZAUGARRIAK

Aurreko ibilbidean esan bezala, Añar-beko ibilbideak Errenteriako udal-muga-pean egin daitezkeen ederrenak dira: bakartiak, liluragarriak eta originalak diren inguru hauek Errenteriako aglomerazioarekin kontraste handia sortzen dute

AUKERAK

Txangoa laburragoa egiteko 2,8 km-an gaudenean pista utzi gabe urtegiraino jaitsi daiteke (ibilbide nagusiko 5,2 km, ibilbide hau aukeratzen bada 3,4 km). Han gaudela eskuinera 180ºko bira eman eta urtegiko pista jarraitu, ibilbidearen deskribapenean esaten den bezala.

LOTURAK

Pikorrenea edo Añarbe Goikoa baserritik ezkerretara urtegiko pista har daiteke 8. ibilbidera iristeko. Bidean 1.800 metro igaro ondoren Malbazar errekan gora Beleleporaino igo. Elkitako lepotik 10. ibilbidearekin (Urdaburu) bat egitea ere erraza da, gure ezkerretara dagoen aldapa igoz gu baino 40 m gorago dagoen Zezenan Zabalako lepora iritsiko baikara.



Otearen (Ilex europaeus) zurtoinak. Leku soiletan edota eguzkitsuetan hazitzen da otea nagusiki. Hala, gutxi erabiltzen diren bideak hartzen ditu sarritan.

0,0 km Idoiagako lepoan abiatuz Malbazarreko pista-tik igoko gara.

1,0 km Malbazarreko lepoa. Mahaiak, eserlekuak eta txabola bat daude bertan, aterpe beharra izango bagenu ere. Pistan eskuinetara jarraitu.

1,2 km Bidegurutzeta. Ezkerretara jaisten den pista trafikoari itxia dago. Hemendik jarraituz gero galtzeko arriskurik gabe jaitsiko gara.

2,4 km Goiko Arkaitz Lepoan pisten gurutzeta. Añar-betik itzultzean hona iritsiko gara. Oraingo pista nagusian aurrera jarraituko dugu ondorengo puntura jaisteko.

2,8 km Lepoa. Beti ere lepo honetan pista utzi behar da ezkerretara dagoen bidezidorra hartuz Beko Arkaitzetako hegia jarraitzeko.

3,4 km Hurrengo lepora iritsi baino pixkat lehenago eskuinetara dagoen burdinsarea gaintu eta hemen hasten den bidea hartuko dugu.

3,8 km Bidea mozten duen pista. Pista hau hartuz metro batzuk ibili ondoren berriro eskuinetara gertozen bidetik hartuko dugu, modu honetan

4,4 km Pikorrenea edo Añarbe Goikoa baserrira iristeko. Pista honetan zehar urtegiko jagoletzako pista aurkitu arte jaitsi. Hau eskuinetara hartu eta bertan urtegiaren paretik jarraitu.

5,2 km Bidegurutzeta. Ezkerretara jarraitu. Pixkat aurrerago pistaren alde batean iturritxo bat dago. Pixkanaka urtegitik Arrizabal errekarara doan besoan sartuko gara.

7,5 km Bigarren besoan, Intxixu errekararenean alegia, jagoletzako pista bihurria utzi eta eskuinetakora harizti batean zehar igoko gara. Txondorrez txondor gorantz goazela, ezker aldera dagoen pagadira iritsiko gara, eta hurbil dagoen

8,5 km Elkitako lepora. Ibilbide hau egiterakoan gune honetan arretaz ibili behar da. Mendi-hegalaren erdian harana eskuinetara uzten duen bidezidorrean zehar aurrera jarraitu. Pagadi fronedunean zehar ibiliz laster iritsiko gara

9,0 km Baso-pista batera. Hau jarraitzen badugu galtzeko arriskurik gabe

10,2 km Goiko Arkaitz Lepora iritsiko gara, jaisterakoan erabili dugun ibilbidearekin bat egiten dugu. Pista gorantz jarraitzen badugu egindago bidea alderantziz eginez Malbazzarrera lehenbizi eta gero

12,6 km Idoiagako lepora helduko gara.

Baso-pisten itxiera. Ibilgailu-kopuruaren hazkunde izugarriak, mendi-ibilgailuen aniztasunak (eta hauen gidari xele-break) eta denok egiten dugun okerrak zerbait pista ixtea eragin du, Pikorre-nera jaisten den honen kasuan bezala. Zoritxarrez, debekua adierazten duen seinalea jartzea nahikoa ez denez pista-tak langaz itxi behar izaten dira.

Beko Arkaitzeta. Lepo honetan bidea hartzen dugunean ezkerretara pagadia eta eskuinetara hariztia ikus ditzakegu. Gailurrera iristen garenean, harizti asko moztu direnez Añarbe eta bere inguru-nearen ikuspegi ederra ikus dezakegu bertatik.

Añarbeko pista. Inguru honetan Pikorrenera jaisteko zeharkatu dugun hariztia baino altuera gutxiagoko pagoa-ak aurkitzen ditugu.

Añarbeko baserriak eta burdinola. Gaur egungo urtegiaren uren azpian zenbait baserri, zubi handi bat (Oronozko zubia) eta Añarbeko burdinola aurkitzen dira. Azken honek 1592tik joan den menderarte egin zuen lan. Errenteriako Udalarena zen eta bertan produkzio handia lortzen zen. Itxi zenean, bertako tresneriaren zati handi bat gaur egun San Telmo Museoa denari eta orduan Donostiako Etnografiako Euskal Museoa deitzen zenari eman zitzaion 1890etik 1918ra bitartean. Bertan San Migel Ermita ere egon zen.

Haltzadia. Errekasto desberdinetako ura hartzen duen urtegiaren besoak haltzadiz (*Alnus glutinosa*) estaltzen ari dira. Hauek txikiak dira eta bata bestea- ren gainean nahasturik daudenez lan-derediarik ez duten urtegiaren gainera-ko ertzekin kontraste alai sortzen dute.

Gaztainondoak eta haritzak. Añarbetik Elkಿತako leporako igoera hariztia zehar- katuz egingo da. Bertan, tamaina oneko zenbait gaztainondo ikusi ahal izango dugu.

Txondorrak. Igoera guztian zehar txon- dor ugari ikusi ahal izango dugu. Txon- dorra, txondarzuloa edo ikaztobia ikaz- kinak ikatza egiteko egiten zuen suaren oinarria zen.



Añarbeko urtegia, Gipuzkoa eta Nafarroako mugetan. Atzean ikus daiteke presaren hormigoizko itxitura. Donostialdean kontsumitzen den ura biltzen duen urtegi honek, urperatu zituen hainbat baserri eta burdinola bat.



Pagadi baten bi irudi, uda parteko egun eguzkitsu batean leku eta ordu berean eginak. Goiko argazkiak, orbelaz estalitako eta oihanpe gabeko lurzorua erakusten du. Eskubian, berriz, nabariak dira eguzkiak aurkitzen dituen oztopoak pagadian zehar sartzeko.





Txondorraren errekontza zaintzen.
(Fermín Leizaolaren argazkia)

Pago enborra parasito batekin: ardaia (Fomes fomentarius). Beraz onto bat den hau ardaia bezala erabilia izan da, hortik bere izena.



Pagadi batean txondorplaza baten arrastoak.



Ikazkintza

Ikazkintza, egurra guztiz erre gabe lortzen den egur-ikatzaren produkzioa da. Erdi Arotik mende honen hasiera bitartean garrantzi handiko iharduera izan zen. Lortutakoarekin burdinolak elikatzen ziren. Tona bat burdin lortzeko 3 tona egur-ikatz behar ziren eta hauek lortzeko berriz 6 tona egur. Burdinolek batez ere pago, haritz eta gaiztainondoei lortutako ikatza erabiltzen zuten sutegirako. Onenak azken biak eta batez ere gaiztainondoa ziren. Moztutako zuhaitzetatik ikatza lortzeko txondor bat egokitu behar zen: kono-formako egur-meta ezarriz egiten zen su honek erdian tximinia edo txondor-zuloa izaten zuen eta oinarrian nahiz erdian egur lodienak ezarri ondoren hostoz eta lurrez estaltzen zen. Gero pizten zen sua eta hortik aurrera hau kontrolatzen jakitean zegoen lanaren arrakasta. Beharrezkoa zenean sua indartzeko, airea hartzeko zuloak egiten ziren alboetan. Egurra egosten zenean 24 ordu baino lehen atera behar izaten zen ikatza honek su har ez zezan. Baina lana ez zen ikatza zakutan kargatu eta garraiatzarekin bukatzen. Ondoren zuhaitzak mozterakoan gehiegikeriarik egin ez zela egiaztatu behar zen. Ikazkintzan iharduteko azken enkanteak 1928an izan ziren Erreterian.

Pagadia

Pagoek (*Fagus sylvatica*) 600 metrotik gora ozeanoaren eragin handia jasotzen duen Euskal Herriaren azaleraren zati handia estaltzen dute baina hauek beherago giro egokia duten zonetan ere aurkitzen dira. Giro honen ezaugarrietako batzuk argi eskasa eta hezetasun handia dira. Pago-buru trinkoek ez dute oihanpea garatzeko argi nahikoa igarotzen uzten eta lurra orbel geruza sendo batez estaltzen da. Bertan pagoaren hostoak hazi aurretik jaiotako loratuko diren landareak bizi dira. Oihanperik ez dagoenez ez da animalia eta landare aniztasun handirik izaten. Honi, basoei ematen zaien tratamendua gehitzen zaio, hau da, zuloz eta tartetxo beteriko zutik dauden edo eroritako enbor zaharrak kentzean faunari elikagai eta aterpe ugari kentzen zaio. Pagadietan ondorengo espezieak aurki ditzakegu: zumar hostozabala (*Ulmus glabra*), hagina (*Taxus baccata*), otsalizarra (*Sorbus aucuparia*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta, gibelurdin (*Russula* spp.) eta lanpernen artean (*Amanita* spp.), goroldio eta iratze mota ugari. Faunaren artean aipatzekoak dira baso-igel gorria (*Rana temporaria*), arrabioa (*Salamandra salamandra*), oilagorra (*Scolopax rusticola*), kaskabeltz txikia (*Parus palustris*), garrapoa (*Sitta europaea*), katagorria (*Sciurus vulgaris*) eta basakatua (*Felis sylvestris*).



LUZERA: 7.8 km.


IRAUPENA: 2 ordu 30'

ZAILTASUNA

KONTUAN IZATEKOAK

Kontu izan Urdabururen goiko zonarekin ekaitza, ikusgarritasun txarra eta lurzoru bustia dagoen egunetan. Kontu handiz ibili tontoretetik suebakirainoko jaitsieran (3,3 km), okerreko bide bat hartuz gero amildegi batzuetan ager baigaitzke. Gomendagarria da ere suebakitik irtetean (3,9 km) arreta handia jartzea eta zona honen eta Pagoxardeko lepoaren arteko bidea ongi jarraitzea (3,9 - 5,6 km).

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Idoiagako lepoa. Bertara heltzeko Perurenako gainetik Listorretako parkera doan errepidea hartu behar da. Listorretako parkean gaudela, Malbazarretera iristen den pista hartu Idoiagako leporaino.

EZAUGARRIAK

Urdaburu Erretereriako mendi enblematikoa dugu. Ez da mendirik altuena baina, zalantzarik gabe, ederrena da, pinu landaketa itsusietatik eta ondoriozko pistetatik gehien libratu dena. Urdaburura igotzeko, ohizko ibilbidea proposatzen dugu, aldaera txiki batekin: pistatik ibili ordeaz alde aurretik Zuarkazurako igoera eroso eta atsegina egitea alegia. Itzultzean, suebakitik egiten den jaitsiera desatseginarekin ordain gisa Untzegi eta Zezenan Zabalana zehar Pagoxarderaino doan pagadiko zehar-bide zoragarria izango dugu. Beraz, biziki gomendatutako ibilbidea da.

AUKERAK

Suebakitik egin beharreko jaitsiera aldatasun sailhesteko hainbat aukera daude. Lehena Urdaburu mendia osorik inguratzean datza, tontorrera igo gabe geratuko bagara ere. Horretarako, Pagoxarden (2,3 km) eskuinetik iristen den pista hartu behar da. Bete bidearririk altuena erabiliz, mendi-hegalaren erdialdean Urdabururen IM aldea gurutzatuko dugu eta, bigarren langa igaro ondoren, pinudi batean sartu eta bertatik metro gutxi batzuk jaitsiko ditugu. Orduan pisten arteko gurutzagune bat aurkituko dugu eta hortik ezkerretara jo behar da, mendi-hegalaren erdialdean oraingoan ere. 200 metro inguru aurrerago, gurutzagune berri batean, Untzegiko lepora (3,9 km ibilbide nagusitik eta 5,0 km honen aldaeratik) eramango gaituen goiko bideadarra hartu behar da eta bertatik, pagadian zeharreko ibilbidea jarraitu, ibilbide nagusian deskribatu bezala. Beste aldaera bat, interesgarriagoa beharbada, Urdaoko tontorrera iritsi ondoren laino eta euriarekin arriskutsu samarra den mendebaldeko hegi harritsu zeharkatzean datza. Bete ere eskuinetik sailhesteko ditugun haitzazalerapen batzuetara ematen duten begiratoki natural zoragarriak ditu. Azalerapen hauetariko azkena jaitsi ondoren -bertan iturri txiki bat dago-, aurreko aldaeran aipatu dugun pistara helduko gara erraz (4,2 km). Bertara iritsitakoan, Pagoxardera eskuinetik (zuzenean) nahiz pista ezkerretik jarraituz iritsi gaitzke, Lizarregiko Lepora jaitsi eta ondoren Untzegiko Lepora helduko garelarik (3,9 km ibilbide nagusitik eta 5,2 km aldaera honetatik).

0,0 km Idoiagako lepoan gaudela, Malbazarreko pistatik gora egingo dugu.

1,0 km Malbazarreko lepoa. Eskuinetik pistan zehar jarraitu gurutzagune batera iritsi arte.

1,2 km Gurutzagunea. Behera doan ezkerreko pista trafikora itxita dago eta Añarbera jaisten da 9. ibilbidetik. Eskuinetik gora doan harrizko pista txikia hartu eta handik metro gutxitara

1,4 km Zillegiko Loiako lepoa. Pista utzi eta ezkerretara doan bidezidor bat hartuko dugu, erosoki hainbat hesi gurutzatzen dituen eta Maixarreko gailurra zeharkatzen duena. Bidezidorrak hurbil dagoen

1,9 km Zuarkazuko tontorrera eramango gaitu. Bertatik gainez-gain jaitsiko gara eroso.

2,3 km Pagoxardeko lepoa eta atsedean lekua (babeste txabola bertan). Jarraitu beharreko bidea sinplea eta argia da, Urdaburuko tontorra begibistan baitugu. Hesi bat gurutzatu eta lehen aldapa igo behar da,

2,7 km Urdaoko Zabalana utziko gaituena. Atsedean labur bat hurrengo aldapari ekin aurretik. Aldapa honek hurrengo puntura eramango gaitu.

3,3 km Urdaoko tontorra edo Urdaburu. Adarra aldaera, Añarbera, Bidasoako mendietara, Lapurdiko kostaldera, Erretereriara eta Donostialdera ematen duen begiratoki zoragarria. Ibilbidearen jarraipenak zailtasun txiki bat du hemen. Tontorreko gailurretik metro gutxi batzuk atzera eginez, altzifre batzuen ondoan hegoalderantz jo behar da. Jaitsiera gogor batek suebaki batean utziko gaitu berehala eta bertan A (Altza) eta R (Rentería) letrak dituzten mugarriak aurkituko ditugu. Altuera handia galduz

3,9 km Untzegiko Lepora iritsiko gara. Kontu izan puntu honetan, ezkerretara desbideratu behar baitugu mendi-hegalaren erdialdean pagadia zeharkatzen duen bidearen bila. Mendi-hegal honetan lau samarra den zona bat gurutzatu ostean,

4,4 km Zezenan Zabalako lepora hurbilduko gara. Behera egin gabe ezkerretara jarraitu, bidean arreta handia jarritz (gutxi gorabehera leku berean amaitzen diren bidezidor ugari daude). Zertxobait gora eginez bideak ez du galtzeko arriskurik eta

5,6 km Pagoxardeko lepoa (atseden lekua) eramango gaitu. Abiatzerakoan bezala Zuarkazuko kaxkotik itzul gaitzke, edota menditxo hau ezkerretik inguratzen duen pistan zehar jarrai dezakegu. Edozein kasutan,

6,4 km Zillegiko Loiako lepora helduko gara berehala. Bertatik, igotzeko erabilitako pista hartu eta

7,8 km Idoiagako lepora jaitsiko gara. Amaiera.

LOTURAK

Zezenan Zabalako lepoan gaudela (4,4 km), zuzenean eskuinetara jaitsi eta hurbileko Elkitako lepora iritsi gaitzke, era honetan 9. ibilbidean kokatuko ginatke-elarik. Horrela, Añarberko zona bisitatu edo Malbazarretera itzuli ahal izango gara.

Urkia eta mugak. Hernani eta Errenterriako udalerrriak mugatzen dituzten hainbat mugarri ikus ditzakegu. Mugarri hauen ondoan nahita landatutako urkiak egon ohi dira, enborren kolore zuriak lurren mugapena urrutitik ikustea ahalbidetzen baitu.

Pagadi motza. Zuarkazun pago motzetako mota ugari dago.

Urdaburu eta Igoineko bizkarreko konglomeratuak. Mendi hauetan Triasikoko konglomeratuak dituzten hareharrri masiboak eta buztinak daude azaleraturik, agente atmosferikoek beren toki ahulak aprobetxatu eta haitz-masa hau bloke handitan puskatu dutelarik. Bloke batzuk mendi-hegaletatik erori egin dira eta beste batzuek berriz, Igoinen nabarmenagoa den gailurreriaren erliebe kaotikoa sortu dute.

Urdaburu Mendigoizale Taldea. Izen honekin, hainbat mendizale bildu ziren Errenterrian mendizaletasuna sustatzera bideratutako elkarte bat sortuz, 1942an. Hasierako garai haietan Aralarrera joatea lorpen handia zen eta Piriñoetara joatea berriz, odisea bat. Eta hasierako garai haietan hain zuzen, mendi talde honek, beste entitaterik ez zegoenez gero, kultur iharduera ugari sustatu zituen udalerrian. Gaur egun iharduerak beren eremuan zentratzen dira batez ere baina oso desberdinkatuak dira. 700 bazkide inguru ditu.

Urdao/Urdaburu. Izen honen inguruan eztabaidak izan dira. Horrela, Errenterriako kalean mendiak Urdaburu izena hartzen du eta Urumeako areako herri eta baserrietan aldiz, Urdao (Landarbaso eta Zamalbideko biztanleek ere izen hori ematen diote). Dakigunez, kostaldeko herrietan arrantzaleek Urdaburu




Urdaburuko gailurra.



Errenteria eta Hernaniko mugan urkia eta mugarria.

Mendebaldera begiratuz. Lehena, Urdaburu eta honen atzetik, Adarra-Mandoegi mendilerroa.





Urdabururantz igotzerakoan aurkitu dezakegun langa.

Beti itxura bereziko pago motzaren (*Fagus sylvatica*) ale ederra.



izena ematen diote untzietatik erreferentzia puntu gisa erabiltzen duten mendi honi. Baliteke Erreterian itsas eta portu iraganak Urdaburu izenaren erabilera ekartzea, gaur egun dirauena alegia. Bi toponimoen onarpen zabala- ren ondorioz, gaur egun biak erabil daitezke. Hala ere, zenbaitentzat Urdao zona osoa da, Urdaburu tontorra eta Oberan -administrazioak besterik erabiltzen ez duen toponimoa- Donostia eta Altzako barrendegiak jasotzen duen izena.

Suebakia. Suebaki bat bideska zabal eta soildu bat da, suaren hedapena saihesteko mendian uzten dena. Suak ezin du aurrera egin, su har dezakeen ezer ez baitago. Suebakiak bertikalki kokatu ohi dira mendietan eta isurialde edo orientazio aldaketak izaten direneko zonetan, haizeari suaren hedapena eragozten zaiolarik. Hala ere, zaindu gabeko suebaki batek alderantzizko ondorioa ekar dezake: sua errazago hasten da suebakian babestu beharreko zuhaitz masetan baino.

Pagadi motza

Pagadi motzen agerpena ikazkintzaren ondorio gisa ulertu izan da oro har. Itxuraz, beren jatorria ez da ikazkintza, Armadarentzako zuhaitzen derrigorrezko salmentak saihesteko Gipuzkoan eta Bizkaian antzinatik hasi zen lana baizik. Izan ere, Armadarako gerrauntziak erai- ki behar zirela eta, Koroak zuhaitzak desjabetzen zituen, bidezkotzat hartzen zuen prezioa finkatuz. Horrek arrazoi on bat ekarri zuen zuhaitz gazteen mozketara lana zabaltzeko. Modu honetan enbor motzeko eta adar bihurriko zuhaitzak hazten ziren, behar adinako luzerara iristen ez zen zura ematen zutenak eta itsas eraikuntzarako adabegi gehiegi zituztenak. Estatuaren zurberrizantzen saihestez gain, zuhaitz motzak beste zereginetarako ere erabilgarriak ziren. Mozketaren bidez eragindako kimu berrien gehikuntzak erraz erazteko moduko adarrak ematen zituen abereak elikatzeko. Gainera, adarren gehikuntzak egurraren erazpena ahalbidetzen zuen. Aldi berean baso motzak argitu egiten ziren, hau da, beren zuhaitz kopurua txikiagoa zen. Ondorioz, lurzorura argi gehiago iristen zen eta honek aberentzako larredien hazkuntza ekarri zuen. Horrela, epe erdira baso-ustiapenaren eta abeltzaintza-ustiapenaren arteko konbinazio interesgarri bat agertu zen. Guzti hori dela eta, mozketara zabaldu egin zen, haritz, pago, gaztainondo eta lizarrena bereziki.



LUZERA: 6.8 km.

IRAUPENA: ordu 1, 45'


ZAILTASUNA



KONTUAN IZATEKOAK

Ibilbide sinplea, azpimarratu beharreko zailtasunik gabekoa. Mendiko edozein ibilalditan bezalaxe kontuan izan behar da. Udan ura eraman behar da.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



ABIAPUNTUA

Ibilbide honen abiapuntua Erreenteriako herrigunetik urrutien kokaturik daudeneraiko bat dugu. Oiartzunaino joan beharko dugu eta bertan Artikutzarako errepidea hartu. 17 kilometroa igaro eta Arandan baserria kakatzen den bihur-gune itxi baten ondoren, Sorondo tabernara doan desbiderapena aurkituko dugu eskuinean. Lepotxo hau, alde batean ikus daitekeen demarako harri bat lekuko, antzinako probalekua zen eta bertan utzi beharko dugu ibilgailua.

EZAUGARRIAK

Igoerak eta jaitsierak ia topo egiten dute bi aldiran. Igoera pistatik eta jaitsiera gailur-lerrotik egitea gomendatzen dugu. Era honetan, paisaia eta ikuspegi desberdinak tartekatuko ditugu. 635 m dituen Zariako tontorra Erreenteriako mugarteko altuerarik handiena da eta Oiartzungo lurrekin egiten du muga. Hemen proposatzen den ibilbidea ez da Zariara igotzeko laburrena, bai ordea interesgarriena paisaiaren ikuspegitik.

LOTURAK

Aldurako ibilbideekin lotzeko aukera dago eta, handik aurrera, Añarbe edo Urdaburukoekin. Horretarako, 2,2 km-an kokatutako lepotik zuzenean jaitsi behar da Irubitako lepora eramango gaituen suebakian zehar. Pistatik men-debalderantz jarraituz, Ezpalaurriko lepora helduko gara eroso (3,2 km 7. ibilbidean; 4,1 km 11. ibilbidea jarraituz). Bertan gaudela, aukerak anitzak dira.



Lathyrus montanus.
Oso ugaria larre eta otalurretan.

0,0 km Sorondo tabernaren ondoan gaudela, ezkerretik abiatzen den pista bat hartuko dugu (eskuinetik iritelen denarekin nahastu gabe). Matarrasan moztutako landarediaren artetik eta Sarobe Errekako harana azpian dugula, poliki baina etengabe gora egin eta piskanaka altuera polita lortuko dugu.

1,7 km Otraitzeko atseden lekua (babesteko txabola, mahaiak eta eserlekuak). Pistatik jarraitu gure ezkerrean gailur-lerroa utziz eta pagadi txiki bat gurutzatuz. Handik gutxira aurkituko dugu

2,2 km lepoa eta pisten gurutzagune bat. Aurrera eta mendi-hegalaren erdialdetik ia desnibelik gabe doana hartuko dugu hegoalderantz. Landarediaren artetik ibilita

3,3 km Pilotasoro izenez ezagutzen den eta hainbat pista elkartzen direneko zona lauan agertuko gara. Ezkerretara jo eta pista-suebakian zehar Zariako tontorrera igo zuzenean. Gora egin ahala, paisaiaren ikuspegiak gero eta gehiago zabalduko zaizkigu Zariako tontorrera iritsi arte.

3,8 km Zariako tontorra, Erreenteriako mugartearen punturik altuena eta bere antena-errepikagailuari esker erraz ezagutzeko modukoa. Gailur-lerrotik itzuliko gara, paisaia zabal bat gure menpe dugularik. Zenbait momentutan aldapatsua den jaitsierak ez du zailtasunik. Gure eskuinean dagoen landak bistekin gozatzen jarraitzea ahalbidetuko digu

5,1 km Otraitzeko atseden lekura heldu arte, igoeran ere igaro duguna. Pistatik jaisten jarraitzeko tentaldi errazean ez erortzea eta gailur-lerrotik jarraitzea gomendatzen dugu, aldapa gora txikiren bat gainditu behar badugu ere askoz ere atseginagoa baita. Jaitsiera luze baten ondoren, azken aldaparekin egingo dugu topo eta honek

6,2 km Usategietako kaxkoan utziko gaitu. Handik berri ere jaitsi hesi batera iritsi arte.

6,3 km Langa gurutzatuko dugu. Pista ezkerrean izango dugu eta hau hartu eta, beste langa bat gurutzatu ondoren, galtzeko arriskurik gabe

6,8 km Sorondo baserrira jaitsiko gara.

Ozentzioko ermita. Sorondo merenderora eramaten gaituen gurutzagunean eskuinetarantz abiatzen bagara Ozentzio baserrira iritsiko gara, bertan izen bereko ermita dagoelarik. Duela gutxi arte aurri egoeran zegoen ermita hau eraberritu egin da, bere jatorrizko itxura errespetatuz. Karlstadako Santa Kruz apaiz eta gerrilari ospetsuaren tropek eraiki zuten, ezin baitziren guda garaian Oiartzungo elizara joan.

Matarrasa. Termino honek baso-lurzati baten mozqueta osoan datzan baso-iharduna adierazten du. Euskal Herriko koniferoen masetan ohizko lana da.

Antenak eta komunikazioak. Mendietako tontorretan dauden antena anitzek paisaiarekiko inpaktu gogor bat eragiten dute. Ingurunean gehiago integratzeko ahaleginak egin al litezke, beren kolore minak saihestuz adibidez?

Alertze landaketak. 50eko hamarkadaren amaieran izandako izozteen ondoren, kaltetutako intsinis pinuko (*Pinus radiata*) unada asko alertzeekin ordezkatu ziren (*Larix kaempferi* eta *Larix decidua*). Hori dela eta, alertzea 400etik 800 m-ra bitarteko altituteetan aurki dezakegu, intsinis pinuko landaketen gainetik. Alertzeak, udazkeneko eta neguro azikulak galtzean, espezie hostoerorkorren antzera dihardu. Gainera, bere kukulak ez dira oso dentsoak eta argia pasatzen denez gero, belar-geruza baten garapena ahalbidetzen da. Azpimarratu beharra dago alertzeak hasierako hazkuntza handiaren ondoren gelditu egiten diren espezieak direla eta horregatik birlandaketa berriak gero eta urriagoak dira, laborantzak desagertzeko joera duelarik.

Mugarriak. Jarraituko dugun hegiak Errearteria eta Oiartzungo udalerrien arteko muga osatzen du. Bertan mugarri asko aurkituko ditugu, 1491ko bereizketa administratibo hori markatzen dutenak. Orduarte bi udalerriak elkarturik zeuden eta Oiarsoko Kontzejua osatzen zuten.


Aiako Harria. Gipuzkoako ipar-ekialdeko mendi bereizgarri hori granitozko masa handi bat da. Duela 250 milioi urte, lurrazalaren barruko magma urtzeko masa batek lurrazaletik gora egin eta Paleozoikoan pilatutako materialak zeharkatu zituen. Gora egitean hoztu eta granito bihurtu zen. Orogenia alpe-tarrarekin zona hau itsasoaren gainetik altxa eta higatzen hasi zen. Granittoa inguratzen zuten materialak, biguinagoak zirenez gero, errazago higatu ziren eta granittoa goian geratu zen. Horrela sortu zen egungo Aiako Harria.



Ozentzioko ermita, Oiartzungo lurraldetan.



Zariako gailurra eta bertan ipinitako antena.



Garoa (*Pteridium aquilinum*), jaioberrria eta Aiako Harriaren orrazaez atzetik.

Koniferoen landaketak

Mende honen hasieran, antzinan zabalak izan ziren basoak oso eskasak ziren Euskal Herrian. Arrazoi nagusiak antzina nako mozketak, mendearen hasierako haritz eta gaztainondoan gaisotasunak eta nagusiki joan den mendeko desa-


Matarrasan moztutako partzela. Azal edafikoa (lurzorua) higaduraren menpe geratzen da honez gero.




Zariko hegaletan suebakia. Argi ikusten denez, mantentze lanak gutxi dira. Honen ondorio arriskutsua zera da: suak suebakian hasteko erreztasun handia du.



Otraitzeko Lepoa. Banku eta mahaiez hornitutako atsedeen leku bat kokatzen da hemen.



mortizazioak izan ziren. Bizkaiak adibidez Landetako eta Holandako zura inportatzen zuen eta Nafarroan zuhaitz gazteak moztzen hasi ziren. Egoera honetan espezie exotikoen landaketak sustatzen hasi ziren. Ingurune hauek zura erazten deneko beste basoak bezalakoak direla iruditzen bazaigu ere, ez dira berdinak; benetako laborantzak dira eta horrela ulertu behar ditugu. Denak espezie berekoak dira eta zuhaitz guztiek adin berbera eta elkarren arteko bereizketa berbera dute, bereizketa honek argiari toki gutxi uzten diolarik. Honi maiz samar moztzen direla gaineratzen badiogu, flora eta fauna beste espezieentzako ingurune txar samarra dela ulertuko dugu. Landaketetan iratze arrunta (*Pteridium aquilinum*) eta sasiak (*Rubus* spp.) aurkituko ditugu ia soilik. Faunari dagokionez, oso espezie orokorrak eta landaketen ertzak okupatzen dituztenak daude. Bereizgarrienen artean pinu-kaskabeltza (*Parus ater*), amilotx mottoduna (*Parus cristatus*), erregetxo bekainzuria (*Regulus ignicapillus*) eta katagorri arrunta (*Sciurus vulgaris*) aipa ditzakegu. Erabilitako konifero motaren eta bere adinaren arabera, flora eta fauna aldatu egiten dira. Horrela, alertze landaketek (*Larix* spp.) komunitate botaniko eta animalia komunitate handiago baten ezarpena errazten duen oihanpe bat dute. Oso zuhaitz multzo dentsoak diren Lawson altzifreen landaketetan berriz (*Chamaecyparis lawsoniana*), beste bizidunek ez dute ia aukerarik. Laborantza mota honek eragindako ingurugiro arazoak anitzak dira. Flora eta faunaren harrerarako duen ahalmen txikiak arearen aberastasun biologikoa pobretu egiten du. Hostozabaleko basoekin alderatuz, koniferoek nahiz beren oihanpeak (oso urria den oihanpeak), oso ur gutxi gordetzen dute euria ari duenean. Horrela, euri-jasa handietan ibaien etorrera luzatzeko duten ahalmena txikiagoa da. Jasotzen duten arreta eskasak basoko suteen hedapena errazten du, etab. Dena den, arazorik handienak ustiapenak sortzen ditu. Mozketarako eta ondorengo garraiorako pista ugari eraikitzen dira, pista hauetatik oso makineria astuna ibiltzen delarik. Honek, matarrasa izeneko moduan egindako mozketarekin batera, lurzorua enkaitze handi bat eta ondoriozko higadura dakartza, landare-estalki oro desagertzen baita. Pistak abandonatu eta uharre bihurtzen dira, hauetatik ura libre doalarik. Lurzoru galera honek murriztuta utzi ditu lurzati asko.



LUZERA: 17.1 km.


IRAUPENA: Aldakorra



KONTUAN IZATEKOAK

Ibilaldi hau errepidez egin behar dugunez, gomendarria da ibilgailu-trafiko handietako egunak (igandeak eta horrelakoak) ahaztea.

INTERESA	1	2	3	4	5
Paisajistikoa					
Geologikoa					
Geomorfologikoa					
Hidrologikoa					
Botanikoa					
Faunistikoa					
Arkeologikoa					
Etnografikoa					
Arkitektonikoa					



Aurreko ibilbideetan ezin izan ditugu Erreneriako elementu interesgarri ugari barne hartu, trafiko handiko zonetan baitaude. Azken ibilbide honek Listorretara eramane eta aipatutako lekuetara bizikletaz hurbildu nahi gaitu. Ibilbide nagusi batetik abiatuz puntu interesgarri desberdinetara eramango gaituzten joan-etorriko desbiderapen txiki batzuk aurkituko ditugu. Bidea kotxez egiteak bizikletaz egiteak baino arazo gutxiago ekarriko dizkigu, aparkatzea zaila izateaz gain bide estuetan zehar ibiliko baigara, bide nagusira itzultzeko ibilgailuarekin buelta egitea eragozten dutenak hain zuzen. Kotxea erabiltzekotan, gomendagarriagoa izan daiteke desbiderapen txiki hauek oinez egitea.

Txirrita baserria.



Erreneria Sagastiberri baserriaren inguruetatik ikusten den bezala.



- **0,0 km** Foruen Plaza. Puntu honetan Erreneriako portuko kaia eta lonja zeuden. Portuaren ondoan, Erreneriako harresietatik kanpo,
- **0,01 km** Madalen errebala zegoen. Egungo Madalen kalea honen herentzia dugu, bertan eraikin interesgarri batzuk daudelarik, hala nola 15 eta 18 zk. eta Xenpelar etxea. Kalea
- **0,1 km** Madalenaren ermitan amaitzen da, gaur egun trenbidearen ondoan kokaturik dagoen ermita honek, leku garrantzitsu bat okupatu zuen harresiez kanpoko antzinako Errenerian. Astigarraga eta Donostiako bidearen irteeran zegoen. Erdi Aroan eta Aro Modernoan, hirien inguruetan, ibiltari eta bidaiari gaisoei edo epidemiaren baten eramaileak izatearen susmagarriei harrera egiteko destinatutako lazaretoak zeuden, kontrolatuak izateko bezain hurbil baina herritarrei nolabaiteko segurtasuna emateko bezain urruti. Hauxe izan zen ermita honen zeregina XVII. menderarte. Mende honetan lan terapeutikoa alde batera utzi zen baina kultuak jarraitu egin zuen, Udalak jarritako serora bat tenpluaren mantentimenduaz ardura-tzen delarik. Gaur egun, izen bereko santa Erreneriako zaindaria da eta urtero, Madalen egunean (uztailaren 22an), Santaren irudia Parrokiaraino eramaten da prozesioan, bertan 25erarte egoten delarik. Eraikinak berez ez du balio handirik. Hainbat alditan aurri egoeran egon eta berreraiki ondoren, jatorrizko eraikuntzaren gauza gutxi gordetzen ditu, hala nola oina eta kokapena. 1949an behin-betiko eraberritu zenean lortu zen gaur egun duen itxura. Azpimarratu beharrekoak dira barruko zurezko bilbadura, sartzeko atearen ondoan dagoen urbedeinkatu-ontzia - pasioaren eszenak dituen- eta zuran landutako Santaren bi irudi polikro-

matuak. Errepidetik Astigarragarantz jarraituko dugu, gaur egun lurrazpitik doan Pekin erreka-stoaren ubide zaharraren ertzaren ondotik. Ondoren Fabril Lanera eta Pekin izenekoen industri eraikinen artetik igaro eta, autopistaren azpitik pasa ostean, ezkerrean utziko dugu.

- **0,85 km** Arramendi baserria. Zur eta harrizko eraikin handia, bi etxebizitzetarikoa batean merendero bat duena. Errepidetik jarraituz, Contadores-eko eraikinaren zertxobait aurretik, Loidi baserria dago ezkerrean.
- **1,3 km** Loidi baserria, zurezko bi balkoi interesgari, jabalkoiak eta harlanduzko eskantzuak dituena. Ingu-ruetan, Pekin errekan, begi bakarreko zubi bat dago, pertsonak eta gurdiak pasatzeko modukoa. Eskuinetara
- **1,4 km** gurutzagune bat dago, Txirrita Bekoa baserri ikusgarriaren ondoko pabiloi baten atzean uzten gaituena. Hemendik, Tobar baserrira igotzen gaituen pista bat abiatzen da (350 m). Baserri bikaina dugu, fatxada nagusian zurezko bilbadurak eta harlanduzko haize-babesak eta aldeetan gezileihoak dituena. Txirrita Bekoatik ezkerretara eta gora eginez (150 m), Txirrita baserria dago. Txirrita bertsolariaren etxebizitza izan zen eta Errenteriako herri-arkitekturaren adibiderik onenetariko dugu. Errepidera itzuli, Benta aldera jarraitu eta
- **1,5 km** gurutzagune bat aurkituko dugu ezkerrean. Errekastoaren barrualderantz aurrera egiten duen pista hartuko dugu, amaieran Tolarie-ta baserria aurkituko dugularik (550 m). Azken Karlistadan baserri gutxi geratu ziren erre gabe Errenterian eta hau horietariko bat dugu. Egitura berezia du. Bere azpitik erreka doa eta sagardoa lantzeko hiru prentsako tolare zahar bat zuen. Errepidera itzuli eta Zamalbiderantz igo. Eskuinetara
- **2,5 km** Pokopandegi baserria dago. Harri berberekin bi aldiz erre eta berreraiki zen eta bere fatxadaren mutur batean haize-babes bat dauka oraindik. Errepidetik jarraitu eta
- **2,6 km** Zamalbidera iritsiko gara. Gaur egun erabat transformaturik dagoen baserri multzo honetan bere lehen eraikuntza nabarmentzen da, Zamalbide baserria alegia. Bere eras-kinetariko batean Santo Kristoren ermita zaharra dago, gaur egun xede lurtiarragoetara destinatua. Taberna-ren ondotik Bordaondo baserrira jais-ten gaituen pista abiatzen da (500 m). Ibilbidean zehar ikusi ditugun elemen-tu arkitektoniko interesgarriez gain, etxebizitzari erantsitako aska eta ate eta leihoetako hainbat babes-gurutze

nabarmentzen dira. Atzera egin, Zamalbide igaro eta

- **3,2 km** Lubeltza Berri baserrira helduko gara, errepidearen beste aldean sagardoa lantzeko tolare duena. Errepide honetatik igoera txiki batek
- **4,1 km** Perurenako Gaina edo Benta mendatea bezala ezagutzen den lepora eramango gaitu. Bertan Benta baserria dago, egitura onekoa eta, ustez, bere antzinako dedikazioari erantzuten dion izena duena. Jarraian Donostiara ura eramateko eraikuntza-rako obren hasieraren oroigarri gisa dagoen monolitoa aurkituko dugu. Astigarragako den Perurena ondotik igaro eta Listorreta aldera joan.
- **4,2 km** Gurutzagunea ezkerretara. Gure Ametsaren azpitik igaro ondoren, behi eta idientzako antzinako perraleku baten elementuak gorde-tzen dituen Oleta baserria iritsiko gara (400 m). Bere gainean (175 m) Apagola Zahar baserria dago, bere barruan zurezko tolare bat gordetzen dutelarik.
- **5,1 km** Listorretarako errepidera itzuli. Frantzilla ondoan idi-demarako pro-



Frantzillako probalekua.



Langagorriko iruinaria.


baleku bat dago. Aurrera jarraituz

- **5,9 km** Otsozuloeta baserriaren aurretik pasako gara. Bere etxebizitzetarikoa batek zurezko bi balkoi eta haize-babesak ditu. Aurrerago, Urri-rtzaga baserrira iritsi aurretik (Astigarragarekin muga egiten duena), eskuinteko belardi batean eta errepidearen ondoan,
- **6,7 km** Langagorriko iruinarrria dago. Burdin Aroko monolito honek bi udalerrien arteko muga gisa ere balio du eta gurutze bat du grabaturik. Errepi-detik jarraitu eta
- **7,8 km** Listorretara helduko gara. Listorreta eta Barregoloiako atsedean lekua oso toki ezaguna da eta eskualde osoko jendea hurbiltzen da bertara. Hemendik Perurenara itzuliko gara eta ondoren
- **12,4 km** Zamalbidera, bertan Agustinetarako gurutzagunea hartuko dugularik.
- **12,8 km** Orereta ikastolara eramaten duen gurutzagunea ezkerretara. Ikas-

tolatik pasa ondoren Anabitarte baserria aurkituko dugu (450 m), gaur egun Gastronomía Elkarte dena. Karabela bat eta bi arrain erreprezentatzen dituen armari bat dauka. Errepidera itzuli eta

- **13,1 km** gurutzagune bat aurkituko dugu. Ezkerrean Bidegurutzeta baserria dago (125 m), hondatu samar dagoen garai moduko eraskina duena. Ibilbide nagusira itzuli eta hilerria eta Gurutzeko komentua igaro ondoren
- **14,2 km** gurutzagune batera helduko gara. Honek, Larretxipi Haundi eta Larretxipi Txiki baserriak zeharkatu eta gure ezkerrean Gabiarrako sarbi-dea utzi ondoren, Palaziozorra (toponimo interesgarria) baserrirako sarbidera eramango gaitu, bere ondoan garbileku berezi bat dagoelarik. Errepidera itzuli ondoren (600 m),
- **14,9 km** San Agustin edo Agustinen Komentura helduko gara. 1543an sortua, bere antzinako eraikuntzatik hondar gutxi batzuk besterik ez dira geratzen kaperan, zorigaitzeko interbentzio bat jasan baitzuen duela urte batzuk. N-1 errepidera jaitsiko gara. Zona honetan Santa Klarako errebala zegoen. Izen bereko ermita bat zuen, behartsuentzako ospitale izan zena eta 1933ko uholde batek suntsitu zuena. Eskuinetarantz joko dugu, Gabierrotarantz, eta hemen Oartzun ibaia gurutzatuko dugu. Orduan Fanderia izeneko gunera iritsiko gara.
- **16,0 km** Fanderia. Hemen Errenteriolako antzinako udal burdinola zegoen, 1467. urtea baino lehenagokoa. XVIII. mendean saldu eta galdategi bihurtu zen 1873an liberalak armatzeagatik eraitsi zen arte. Handik aurrera irin-errotari izan zen, hasieran ura eta ondoren, duela 30 urterate, elektrizitatearekin erabiltzen zuena. Aurrerago pentsu-fabrika bilakatu zen. Erabilera anitz eta jarraikakoak izan baditu ere, antzinako ate eta kanalek bertan diraude. Egungo pentsu-fabrikari erantsita Fanderia baserria dago, kanala azpitik doalarik. Beste baserri bat Olalde Bekoa izenekoa da, ogi labe zahar bat duena. Zurezko bilbatura bertikal eta inklinatu bat duen fatxada bati erantsita dago. Fanderia interes handiko puntua dugu eta bere ingurunea oso atsegina da. Hurbileko herrigunearen ondoan kokatutako landa-gune txiki bat da, balio handiko aztarna etnografiko eta industrialak gordetzen dituena. Fanderia utzi eta N-1 errepiderantz joko dugu. Errenteriako kasko zaharrera itzuli eta
- **17,1 km** Foruen Plazara, txangoaren azkenengo puntua, helduko gara.

Anabitarte baserriaren armaria. Errenteriako iragan maritimoak bere aztarna utzi du, ez bakarrik hiri kaskoan, baizik eta bere mugarte guzian ere.



Agustinen Komentua, Goizuetako Errege Bidearen alboan.